



Autonomo gehiago Kuban
Indarrean da norbere kontura
lan egiteko araudi berria,
178 lanbideko zerrenda 2-3

«Tortura latzak» jasan dituztela salatu dute Atristainek eta Besancek

Bost eguneko inkomunikazio aldiaren tratu txarrak oso gogorrak izan direla jakinarazi diete konfiantzako abokatuei, haiekin hitz egin duten bost minutuetan

Ismael Moreno Auzitegi Nazionaleko epaileak atxilotuak espetxeratzeko agindu du, ETAko kide izatea eta lehergaia eta armak gordetzea leporatuta 8



→ **Arkitektura eta natura, bat eginda.** Jesus Mari Lazkanok erakusketa handia zabaldu du Bilboko Arte Eder museoan. 82 lan bildu ditu, errealistak guztiak: alde batetik, 1999. eta 2006. urteen arteko lan esanguratsuenak; bestetik, museoa eta hango lanak ardatz hartuta propio sortu berri dituenak. 32-33

LUIS JALREGALTZO / ARGAZKI PRESS

Osasun sistema publikoa hein batean arriskuan dagoela uste du Bengoak

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak herritarrei ez gehiegi larritzeko eskatu die, irtenbideak badaudelako 11

Ezker abertzaleari politika egiten uzteko eskatu du Olanok

Gipuzkoako ahdun nagusiak uste du ezin zaiola ezker abertzaleari bide baketsuen alde egiteko eskatu eta gero «itotzen saiatu» 9

Roussefek ekologistak aintzat hartu beharko ditu bigarren itzulian

Brasilgo Langileen Alderdiko hautagaiak hauteskondeak aise irabazi ditu, baina bigarren itzulia beharko du, ez baitu gehiengo osorik lortu 17

Ia 172.000 langabe daude Hego Euskal Herrian 15



Harian

Kuba → Erreforma ekonomiko eta sozialak

Munduko pilota txapelketan bi kubatar desagertu dira

Munduko pilota txapelketako antolatzailerek jakinarazi dutenez, lehiaketan parte hartzekotan ziren bi kubatar desagertu egin dira. Pauen ari dira egiten egunotan txapelketa; eta Alejandro Quesada eta Juan Romero bertan ziren parte hartzekoak asteburuan. Ihes egin ote duten ari dira ikertzen.



- **Biztanleak:** 11,2 milioi. Zuriak (%65), mulatoak (%24,9) eta beltzak (%10).
- **Hizkuntzak:** gaztelania (ofiziala).
- **Erlitioak:** katolikoak, protestanteak, etabar. Santeria aski zabaldua dago. Erlitio gabeak ere asko dira.
- **Bizi-itxaropena:** 77 urte gizonetakoek eta 81 emakumezkoek.
- **Esportazio nagusiak:** nikela, azukrea, tabakoa, itsaskiak, zitrikoak eta kafea.
- **Dirua:** peso kubatar, peso bihurtgarri.

36

■ **Askatutako preso disidenteak.** Kubako Giza Eskubideen eta Adiskidetze Nazionalerako Batzordeak jakinarazi duenez, Kubak bederatzi preso disidente askatuko ditu laster. Espainiara bidaltzeko, udatik 36 preso askatu ditu Raul Castroren gobernuak.

«Norbere konturako lanak»

ekoizpen sistema eraginkor eta arrazoizko bat lortzeko asmoz, autonomoen lana sustatuko du Kubako Gobernuak

Estatuko lan taldetik milioi erdi lagun kaleratuko dituzte martxora bitartean

Joxemi Arrugaeta Habana

Joan den abuztuaren 1ean, Asanblea Nazionalen egindako hitzaldi batean, egitura aldaketan garai bati hasiera eman zion modu ofizialean Raul Castro Kubako presidentea. Badira pare bat urte soslai moderatuko neurrien bidez abian jarria dutela erreforma iragarri hori, zeinaren helburu agerikoa baita gizarte ekonomia eta banaketa oso-osorik berregituratzea, ekoizpen sistema eraginkor eta arrazoizko bat lortzeko asmoz. Halako gizarte batean, estatuak kontrolatzen du zuzenean jabetzaren, ekoizpenaren eta zerbitzuen %95 —nekazaritza da salbuespena, %65ekoa baita proportzioa—, eta herritar guzti-guztiak —inolako bereizkeriarik gabe— ohituta daude erabat diruz lagundutako barne ekonomia bat izaten; alde horretatik, edozein aldaketa gertatzen delarik, berrikuntza nabarmena da, ez bairik gabe, ekonomiari ez ezik, herritarren gogoari, jarrerari eta pentsamoldeari eragiten baitio.

Erronka ezinago izugarriagoa da ekonomia eta gizarte sistema bat oso-osorik berregituratu behar izatea, nazioarteko krisialdia bete-betean egonda eta, herrialde barneko egoerari dagokionez, estatuko lan indar guztiaren laurden bat murriztu behar izanda —milioi bat eta berrehun mila pertsona inguru gutxiago—, eta, ondorioz, haien ordezko lan hautabideak lortu beharra. Horrek gizarte eta politika tirabira muturrekoak eragingo lituzke edozein gizartetan, eta, argitzea komeni da Kuba ere —ezugarri bereziko herrialdea izanagatik— ez dela

salbuespen bat izan gizarte erantzunei dagokienez.

Baina adierazpen, asmo eta helburu guztietatik harago, kontua da joan den abuztuan iragarritakoa berretsi egingo dela. Atzotik, izan ere, indarrean da Errepublikako osoan autonomoen lanaren inguruko araudi berria; egiaz, «norbere konturako lanak» jardun beharko genuke, hala esaten baitiote Kubako herritarrek lan ekimen pribatu txikiari.

Desira eta ahal dena

Irailaren 24an argitaratu zuten modu ofizialean *Granma* egunkarian lan zerrenda luze bat; 178 lan eta lanbide «baimendu» zekartzan. Lehen begiratuan, ez dirudi alde handirik dutenik horrek eta 1990. urtearen erdialdera onartu zuten antzeko beste hark. Astiroago begiratu gero, ordea, beste zazpi hautabide ageri dira —adineko pertsonen zaintzaileak, «berrikusleak» edo eskola partikularrak ematen dituzten irakasleak...—, eta zabaldu egin dituzte lehendiko hautabide batzuk ere —jatetxe eta alokairu txikiei dagozkienak—; halaber, nolabaiteko onura dakarkie landa aldeko herritarrei, «nekazaritza ekoizpen txikiak erostea eta merkatu-ratzea» jasotzen baitu.

Prentsan agertutakoaz harago, ordea, dekretu berriak aditzera ematen du badagoela borondate politiko sendo halako bat, adierazi baitute inolako murrizketarik gabe emango dituztela lizentziak, baita «izoztuta» zeuden lanbide ugariarako ere; Kubako eran esanda, izan ere, lehen zilegi zen halakoak eskatzea, baina ez zituzten baimentzen.



Ehunka lagun iraultzaren Defentsarako Batzordeen 50. urteurrena ospatzen, Habanan, iragan abuztuaren 28an. ALEJANDRO ERNESTO / EFE

Hain zuzen ere, herabea eta murrizta irudi lezake oraindik lege berriak, kontuan izanik herritar zenbaiten helburuak eta gaur egungo barne ekonomiaren eguneroko zailtasunak; oraingoz, ordea, pentsatzekoa da lan pribatuaren handitzea eta lanaren erreforma sakoneko bat elkarriz lotu-lotuta datozela, zeina hasi baino ez baita egin, eta milioi erdi langile inguru kalean utziko baititu datorren urteko martxo alderako. Beraz, ikusteko dago ea le-

gedi hori handituz joango diren gizarte eskariak hala galdegiten dien heinean.

Xedapen berri horiek abian jartzea bete-betean dagoelarik, ibilgailuentzako erregaien prezioak garestitu izana gogoangarri bat izan da, nolabait: alegia, finantza egoera tirabiratsu eta delikatu batek baldintzatzen duela «aldaketa garai» hau, eta desiratzekoa denaren eta ahal denaren arteko tirabiraren arabera dela dena. Ez bairik gabe, Kubako eraldake-

tek berekin dakartzaten erronkak eta desafioak izango dira aurrerantzean ere hedabideetako albiste eta arretagune.

Egoera eutsiezina

Dagoeneko martxan diren erreformen bidez, produktibitatearen eta soldataren arteko erlazioa berreskuratu nahi du Habanako gobernuak. Gaur egun, izan ere, ez dago harreman handirik lanaren, soldataren eta erosteko ahalmenaren artean. Hori dela eta, kubatar askok legez kanpokoak diren jarduerak burutzen dituzte. Eta euren lan erritmoak azken emaitzan eragiten ez duelako, askok eta askok egiten dutenaren gaineko ardura galdu dute. Batzuk ekoizpen baliabideen jabe ere ez dira sentitzen. Hain zuzen, halako egoerak eutsiezinak direlako ekin zion Kubako Gobernuak gizarte ekonomia eta banaketa erreformatzeari.

Atzotik indarrean da Errepublika osoan autonomoen lanaren inguruko araudi berria

Lan pribatuaren handitzea eta lanaren erreforma sakoneko bat lotu-lotuta datoz

Estatuko lan taldetik milioi erdi langile kaleratzeak —lan talde osoaren zortzirena da— ondorio nabarmenak izango ditu Kubako gizartean. Dena dela, ez da halako zeregin bati ekiten dion lehenengo aldia; 1990eko hamarkadan, besteak beste, estatuaren enpresetan lan egiten zuten 300.000 nekazari kooperatibetara pasa zituzten. Beste 200.000 lagun inguru beren kabuz hasi ziren lanean, autonomo gisa. Halaber, hamarkada honen hasieran industria sektoreko 100.000 bat langile beste sektoreetan hasi ziren lanean, azukrearen industriak hondoa jo zuelako.

13» Bernadette Soulek hartuko du Euskararen Erakunde Publikoko zuzendari kargua

19» «Azken ondorioetaraino» eutsiko diote gose grebari Txileko hamar preso maputxek

Kuba → Erreforma ekonomiko eta sozialak



Erreformak martxan jarri arteko bidea

■ **2005eko azaroa.** Kubako ekonomia indartzeko asmoz, hainbat erreforma proposatu zituen Fidel Castrok. Ustelkeria jarri zuen jomugan. Handik sei hilabetera, larri gaixotu zen Kubako presidentea.

■ **2007ko uda.** Raul Castro behin-behineko presidentek anaiak hasitako prozesuari hel-

du zion, uharteko ekonomia ez zela eraginkorra argudiatu. Herri galdeketa bat egin zuen, eredu ekonomikoa erronka berrietara egokitzeko.

■ **2008ko udazkena.** Raul Castoren herri galdeketa esker, hainbat plan adostu zituzten. Alabaina, 2008ko udazkenean uhartetik igarotako hiru uraka-

nek kinka larri utzi zuten Kubako ekonomia. Barne produktu gordinaren %20 galdu zuten hondamendian.

■ **2009.** Nazioarteko finantza eta ekonomia krisiagatik beste etenaldi bat izan zuten Castoren erreformek. Munduko merkatuan Kubak duen egoera ahulagatik, izan ere, krisiak on-

torio bereziki larriak eragin zituen uhartean.

■ **2010.** Aurreko urtean ekonomia izaniko behaldira gelditzea lortu zuten. Hainbat etenaldi izan eta gero, Raul Castoren gobernuak abuztuaren 1ean iragarritako erreformetako batzuk martxan jarri zituen bi hilabete geroago, urriaren 4an.



Kubatarrek beren kabuz egin ahaliko dituzten ofizioen artean daude *habanera* eta *dandi*-a. Argazkia Habanan ateratakoa da, iragan abuztuaren 26koa. EFE

Kuban batek baino gehiagok uste du Raul Castrok proposatutako erreformak ez direla aski egungo egoerara egokitzeko eta etekin gutxi ematen duen ekonomia hori pizteko; bada, bestalde, aldaketei buruz oraindik iritzirik ez duenik ere.

«Hemen asmakizunetik bizi gara denok»

J. Arrugaeta Habana

Jendeak emandako erantzunek ez dute beti zerikusirik izaten agiri jakin batzuen azterketarekin edota interpretazioarekin, baizik eta hainbat kontu jakinekin eta apur bat harrigarriekin: «Edozergatik zergak ordaintzen hasi behar ote dugu, ba, orain?», galdetu du haserre emakume batek. Ada Gutierrez du izena, eta 65 urteak ondo beteak ditu. Argiak ditu begiak eta ilea; leun eta kafesne kolorea du larruazala; «*jabada*» esaten diete Kuban halako mulatoei. Irakasle erretiratu da, eta adineko emakume bat zaintzen lan egiten du, bi peso

bihurgarriren truke egunean. «Ez dut baimen eske joateko asmorik; nahikoa dut lan egin behar izatearekin», esan du azkenean.

Adierazgarria da iruzkin askotan behin eta berriro aipatzen dutena: alegia, kubatarrek uko egin diotela zergak ordaintzeari. Eta komeni da argitzea kubatar gehien-gehienek ez dutela zuzenean kotizatzen; beraz, zerga sistemaren zentzua eta helburua zein diren jakinagatik ere, badi-rudi haien mundutik kanpo dagoen zerbait dela, eta haren aurka daude naturaltasun erabatekoak.

Alejandro Dariok ez ditu 30 urte beteak izango, eta janari eta edarien kiosko estatal batean lan

egiten du. Ez du Raul Castoren erreformaren inguruko iritzirik oso argirik, baina ez dela nahikoa deritzo: «Hainbeste jende utzi behar baldin badute kalean, askoz ere gehiago zabaldu beharko dute»; hala esan du, inguruko ospitaleko kontsultara datozen haurdun batzuei galleta osasungarriak saltzen ari zaizkielarik.

Helburuetatik urrun

Askoz ere kezka handiagoa ematen diote Alejandro lan erreformaren inguruko kontuek. Alejandroren kioskoan sei pertsonak lan egiten dute —alde batera utzita, administrazio nagusiko langileak—, baina argi dago nahikoa

izango litzatekeela bakarrarekin: «Baina, hemen, asmakizunetik bizi gara denok». Alejandroren ustez, azkenean pribatu bihurtuko dute kioskoa; oraingoz, ordea, nahiago du horretan asko ez pentsatu.

Zeharo bestelako ustea du Maria Eugeniak, 50 urteko arkitektoa; kontratupean dihardu unibertsitatean eskolak ematen, eta, horretaz gainera, diseinatzaile independente moduan aritu da lanean urte askoan, informatikari gazte batekin eratua duen sormen talde txiki batean. «Duela urte batzuk arte, artista moduan lan egiten genuen, Kultura Ministerioarentzako kontratuekin, bai-

na hori amaituz joan da». Diseinu zerbitzuen enpresa txiki bat zabaltea gustatuko litzaioke Maria Eugeniari, baina xedapen berriek oraingoz alde batera uzten dituzte hainbat lanbide liberaletako lan ahalbideak; horregatik, helburu dituenetatik urrun dago oraindik araudi berria.

Izenik eman nahi ez duen iturri batek ez du ofizio horretan aritzeko baimenik behar izan. Iaz arte, izan ere, estatuko firma bantentzat aritu zen lanean. Horrekin batera, modu pribatuan ere aritu da hainbat lanetan. Euren kabuz diharduten langileetako askok sektore publikoko lanpostuari eutsi izan baitiote orain arte.

Langabetuak

Zenbakiak gizontzeko gaude, izan manifestazioetakoak, kilometroetakoak, hiztunenak, gizarte-segurtzakoak ala langabeziarenak. Eta hala xe ihartzen gara, zenbakiak gizenduz.

Atzo goizeko albistean arabera, «Hego Euskal Herrian 1.764 lagun gehiago daude langabezia». Eta guztira, 171.923 dira gaur Hegoaldean. Erraz idazten da, sei zifra dira. Zenbakiak, bizitzarik ematen ez zaien artean, segundo laurden bateko arreta erakartzeko beste ahalmen daukate. Eta hala ere, zenbakiz beteta datoz azterketak, estatistikak, proiektuak

oro. Eta haien luzapen edo bozgorailu bilakatu diren heinean, zenbakiz beteta datoz hedabideak oro. Eguneroko mar txak itotzen ditu haiek ere, ez daukate astirik atzo erredakzioetako pantailetara iritsitako 1.764 langabetu horietako bakoitzari galdera bat egiteko, aurpegi bat jartzeko, ahotsa emateko. Zenbat da 171.923? Askok, gutxi, Espainiarekin alderatuta ondo gaudela adierazteko beste, izugarri, batere ez?



Jira
Xabier Gantzarain

Ez dago hitz hoberik 171.923 horietako bakoitzaren eta guztien egoera deskribatzeko: langabetuak. Lan gabetuak dira, kendu egin zaie lana, eman zaien era berean, esango dute batzuek. Eta bai, halaxe da. Eman eta kendu, garai bateko Jainkoak bizi-tza bezala.

Beribilez

Karbono monoxidoak eragiten duen airearen kutsadura eta hirien antolakuntzan autoak pairarazten duen tirania ez dabilta zalantzan Pariseko kotearen saloian. Ferrari ederrak erakusten dizkigute, alemandar bolidoak, Asiako beribil erosoak, denak distiratsu. Autoa gure fikziora lerratu zen Jean Etxepare Aldudeko medikuak Iruñetik Loiolarainoko bidaiaren lekukotasun argigarria eskaini zuelarik *Beribilez* tituluarekin. Aitzina-pen erraldoia zen, bideak oraindik egokituak ez ziren arren.

Autoa jadanik elementu natural baten antzera



Bira
Itxaro Borda

azaltzen digute publizitate gordea egiteaz beste helbururik ez duten kazetariek. Aurten eletrikaz bultzatu kotxea da egiazko erregina: ez du zikintzen, ez du zaratarik egiten, ekonomikoa da, ideala, hots, ez balitz hain garestia. Eletrika beraz garbiena da. Puntu horretara garmatzate komentario guztiek. Ondorioa baimentzean energia nuklearra onartzen dugu, Txernobil sekula gertatu ez bailitzan. Erradioaktibitatea eta hondakinen arazoak buruetarik ezabatu dizkigute.

Sasian auto-eskolan gidatzeko baimena atera dutenei bezain telebistako aurkezleei autorik gabeko, edo autoak hain toki handia ez lukeen jendartea irudikatzen hasteko ordua ez ote datorkie?

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Xabier Makazaga
Edizio arduraduna:
Lurdes Huizi
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Iragarri SM
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@iragarri.net
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 05/10/2010
Exemplaire: 2.263
Editur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Commission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzio
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzio
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa,
45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

Arraunaren geroaz

Josu Sarasua
Irakaslea

Traineruek aurtengoz egin dute berea, eta arraunak hartu duen bidez gogoeta egiteko une egokia da. Prentsan, irratan eta telebistan asko hitz egin da arraun kontuez, baina funtsean arraunak hartu duen bidea elikatu besterik ez dute egiten, ez dira analisi sakonak egiteko zale. Bada kezkatzeko arrazoirik arraunaren geroaz, iraunkortasunaz eta, oro har, kirol ereduaz. Hona hemen bada nirea, arraun elkarte txikiak -gehienek- jaso nahi badute, kirol honen etorkizuna zuzentzeko lagungarri.

XIX. mendeko arrantzaleen nabigazioan, lehorrerako itzulera desafio eta lehia bihurtu zenekoa da gure arrauna, beste herri kirol batzuen bide bera egindakoa, beraz. Kanpotar baten begiez ikusita miraria ere izan liteke herri kirol hauek gaurdaino iraun eta nola dauden ikustea, eskaintzen duten espektakulua, kirol maila, afizioa, hedabideen jarraipena, federakuntzak eta abar. Irautea gure marka baita, nondik ote dator kigu *gene komunitario* hori, izan dena izaten jarraitzeko. Ez da kasualitatea, euskara, jaiak, usadioak, herri kirolak, kooperatibak... dituen herri bat XXI. mendean bizirik egotea. Gure marka da, gure izatearen muina, zaindu beharreko balioa. Ezaugarri horren barruan kokatzen da arraun mundua ere, hamahiru arraunlari, denak batera, gidari bat eta xede bat. Elkarlana- ren ikur emblematico izan liteke trainerua.

Ia orain arte arrauna herrikoia izan da, herri arteko norgehiagoka, apustuak eta saltsa noiznahi, kirol gogorrenarentzako osagai

arruntak. Bertako arraunlariak, tokian tokikoak, eta inguruan nongotasun edo herri-pertenezia sentimendu sakona.

Lehia desorekatua

Aldaketa nabariak jasan ditu, baina, arraunak azken urteotan, telebista emankizunek babesle handiak erakarri dituzte. Eta horien diruak, beti garaipen gose, klub batzuen filosofia erabat irauli dute, diruak txakurrari ere eragiten dio dantza. Fitxaketen bidez paregabe-ko selekzioak osatu dituzte, arraunlariak lehendabizikoz profesionalizatuz. Baina inon gutxi geratzen dena geratzen da arraun: talde batzuek neurri batean profesionalizatuta dauzkate arraunlari gehienak, eta beste batzuek ez... eta estropada berean batzuk besteen kontra. Ia-profesionalak eta afizionatuak elkarrekiko lehian.

Herri bakoitzeko onenen fitxaketa dantza honen erdian arraun elkarte arruntek beraien arraunlari onenak galdu izan dituzte ordainik jasogabe. Hala, estropadetan minutu bat atzetik etortzera ohitu dira, zinez desmotibagarria eguneroko entrenatzen den harrobiarentzako, eta are tristeago klubarentzako, urtetako lanaren ondorioz sortu dituen arraunlariak besteen diruak nola eramaten dituzten ikustean. Laburbilduz, bi arraun elkarte mota bereiz daitezke uretan: batetik, diruz tripulazioa osatzen dutenak -klub bizkaitar eta kantabriar batzuk- besteak ahulduz; eta, bestetik, gehienak kasua, nola hala geratzen zaienekin aurrera egiten dutenak.

Adibidez, Kontxa irabazi berri duen Urdaibaik estropadan bi bermeotar zituen soilik traineruan, bost galiziar, alikantar bat, hiru giputz eta hiru bizkaitar. Selektzio bat, talde profesionala, arraunlari gehienak beste klub batzuetatik diru truke banderak ekartzera eto-

riak. Eta zer sentitzen du Bermeoko herriak, harro al daude lortutako garaipenaz? Zer pentsatu behar dute herriko arraunlari gaztetxoek -balain badaude- beraien tostetan bakarrik herriko birentzako tokia dagoela ikusita? Banderak bulego- tan irabazten diren aroan sartzen hasi gara. Beste muturrean Orio. Bertako harrobian gaztetxotatik hezitako arraunlariekin, eta, hala ere, kanpora esportatzen bere arraunlari onenak. Oriok eutsi die- zaiokoe apur bat, bere izaera berezi- ziatatik, baina harrobian oinarritzen diren herriek ez dute zeregin- nik izango etorkizunean eredu horrekin. Hara non geratu den Zaur- tuz aurten, nahiz eta Urdaibaik eta Kaikuk batera baino arraunlari gehiago sortu azken urteetako lan bikainean.

Jakina da horren inguruko dis- kurtso nagusia: horrela doa mun- du kapitalista, ez dago beste auke- rari kirola merkantilizatzea bai- no. Ez da egia. Hainbat kirolen bidea merkantilizazio hori izan da. Beste batzuen, ez. Eta kirol nugu- sietan ere, nongotasunean oinarri- tutakoak leku itzela dauka. Hor oi- narritzen dira olimpiadak, adibidez, baita munduko futbol txapelketa bera ere. Diru fitxaketa onartzen ez duen nongotasunean. Herri bateko ordezkariak beste batekoarekin lehian. Egon litezke babesleak, bai- na arau horren barnean.

Toki askotan geroz eta gazte gutxiago dabil arraunean, kanpotarrez hornitzen hasiak daude traineru handiak, zerbait gaizki egiten ari den adierazgarri

Eredu kontua

Telebistari bota behar ote diogu bada errua? Ez da berez txarra tele- bista, arraunaren erakusleho bihurtu da, produktu egokia diru- di. Espektakulu paregabea da trai- neruen dantza itsasoan, nahiz eta egia esan iruzkinen aldetik oso maila eskasekoa izan azken urte- tan. Pilotaren kasuan bezala aditu egokiak ekarriz, pedagogian asko irabaziko luke telebistaren eman- kizunak. Dena dela, telebistak ber- din funtziona dezake nongotasu- nean oinarritutako eredu, mun- duko txapelketek ere ez dute ikuslerik falta.

Arraun mundura dirua sartu izana ere ez da albiste txarra, deso- reka hori guztia sorrarazten duena diruaren erabilera mota da: afizio- natuen artean abantaila duten tal- de ia-profesionalak sortzearena. Horrek ez du asko iraungo, bitarte- an batzuk ospea lortzeko baliatuko dira, baina desoreka horrek ez du ez hanka eta ez buru. Arrauna ki- rol gogorregia da, hauskorra, ani- mo gorabeheratsuek trainerua osatzeko zailtasunak dakarzkie el- karte askori. Toki askotan geroz eta gazte gutxiago dabil arraune- an, kanpotarrez hornitzen hasiak daude traineru handiak, zerbait gaizki egiten ari den adierazgarri.

Harrigarriena da nola lortu duten filosofia hori arraun elkarte- en barruan xertatzea, gehienak diru gutxiokoak eta harrobizaleak izanik. Eragile gutxi batzuen inte- reseji jarraika ari dira arraun elkarte gehienak, beren interesen aurka. Kirola-dirua binomioa ongi uztartzen noizbait ikasi beharko dugu. Arraun elkarten esku dago ados jartzea eta piramide forma hartu duen etxea zimenduetatik berri eraikitzea. Arrauna, azken urteetako bidean apur bat atzera eginda, oraindik gertu dago kirol eredu eutsigarri batetik. Nongota- sunean oinarritutako lehia histori- ko gisa aurrera egitetik, esker one- koagoa arraunlari guztiekin, harrobi sortzaile eta zaintzaile, eta aldi berean beti bezain ikusgarri. Pentsa dezagun apur bat kirol ere- duaz.

* Hizpideak

Gora eta gora

Koldo Aldabe
kaldabe@berria.info

Espaniako gobernuburu Jose Luis Rodriguez Zapaterok PSOEn duen lidergoa Madrilgo filialean egin diren primarioetan hankaz gora jarri dela esan eta esan ari diren unean, gobernuburu gisa duen sinesgarritasuna okerrago daukala agerian utzi dute Espainiako Lan Ministerioak emandako datuek.

Enplegua sustatzeko ei zen lan erre-

formaren aplikazioak zer utzi du emaitza gisa? Hego Euskal Herrian, 1.764 langabe gehiago. Jaurlaritza eta Nafarroako gobernua Madrilan esanetara dabiltzanez, Zapateroren porrota Lopezena eta Sanzena ere bada.

Gora eta gora doan multzo bat da langabeena; lan erreforma gorabehera, kontratu ia denak aldi baterakoak dira; Hego Euskal Herriko langabeen herenak ez dute langabezia sariarik... Langileen eskubideak murriztu dituzte lanpostuak sortzeko aitzakia gisa. Ikusten da non eta nolakoak diren emaitzak.

Hitz beste
Anjel Lertxundi

Herri filosofia

Arrain txikiak handia jan. Tiroa kulatatik irten. Zirkoa jarri eta ipotxak hazi. Putak putari, zapata-puntarekin. Mendekua, hotzean...

Herri filosofiaren ikasgai azeleratu bat jaso du Zapaterok astebate doan, gordintasun osoz esan dizkiote Fernandoren egiak. Praktikan jarriko al dituen, nekez ikusiko dugu, baina denbora batez ez dituela burutik kenduko, segurtzat jo liteke. Ikasgai azeleratu izan du, baina ez zaio debalde aterako.

Madrilen gertatutakoak popa bistan utzi du laborategien, bulegoen, inkesta-etxeen —eta, finean, buruiritzi mesianiko baten— eskuetan utzitako politika. Politika profesionala burutzen den saloietako perfumeak ez du gogoko bizitza egunerokoaren izerdi usaina. Herritik urruti, baztertu egiten dute herri filosofia, eta ez dute jakin nahi izaten galtzeko gutxi duenari zenbat gustatzen zaion Goliaten kontra lehiatu zen Dabid ustez ahul haren ausardia.

😊 Adur



Gaur, lehendakari izateari utziko diot

Imanol Azpiroz

San Marko Mankomunitateko jarduneko lehendakaria

Gaur, eguerdian, San Marko Mankomunitateko junta deitua dago. Bertan, EAJ eta PSE-EEren botoek lehendakari izateko didate. Bien bitartean, Joseba Egibarren *Batu gaitzen* horretaz goratzen ari naiz. Egibarri sinestea gustatuko litzaidake, bai. Baina ezin. Gehiengo izanik, hiru urtez aritu gara lanean San Markon, gau eta egun, hondakinen arazoari irtenbidea eman nahian. Gaur, Egibarren botoek erabakiko dute ezetz, abertzale batzuek, gipuzkoar zati baten ordezkari zabal batek ezin dela politikarik egin. Eta abertzaleon artean adostasunera iritsi beharrean, PSE-EEekin ezkondu da Egibar, Ibarretxeri lehendakari zena kendu zioten horiei bote-

rea emateko. Abertzaleok batzeko modu xeblea Egibarrena.

Hondakinen gaian, abertzaleon artean akordioaren bat lor ote genezakeen eztabaidatzeko bilera eskaerei muzin egin eta gero —GBBk zeregin garrantzitsua goak izango baititu— dator Egibarren gezur berri hau. Ez zara sinesgarri, Egibar. Ez duzu nahi politikarik egin dezagun. Horregatik errauste planta eraiki nahian egiten ari zareten irregularitasun guztiak auzibidean jarri ditugu, errauste planta hori finantzatzeko udaletxeak itotzeko ahaleginari aurre egin diogu, eta beldur zarete mamua bide erdian ziplo geldituko den. Nik bezala, Europako Inbertsioetarako Bankuak ere ez zaitu sinesten, Egibar jauna. Larri zabiltzate.

Hondakinen negozioak ez du etenik —begiratu bestela Italiara, mafia nola ari den borrokan pastela ken ez diezaioten— eta, orain, Gipuzkoan errauste planta toxiko bat behar omen dela esaten digu Markel Olanok zu-

zentzen duen Foru Aldundiak. Mendi zuloan zaborra bota eta bota aritu direnak orain ustezko puntako teknologiarekin datoz. Pastela kenduko dieten beldur.

Hondakinen pastelak, orain arte dirutza jasotzeko balio izan duen negozioak, gipuzkoarren arazo larri horrek, konponbidea du. Gure seme-alaben osasuna arriskuan jarriko ez duen errauste plantarik gabeko konponbidea duelako.

Pertsonengan sinetsita, *zero zabor* politika bat ezarrita, herri eredugarri izan daiteke gurea. Abertzaleon esku dago hori, Egibar jauna, zure esku neurri handi batean. Nola liteke, orduan, gure herriaren alde ezer egingo ez duen PSOERI kudeaketa ematea?

Zaborra gutxitu beharra dago. Eta hori egin nahi duen herritarri lagundu egin behar zaio. Autokonpostatzen duen herritarri hobariak eman behar zaizkio. Denok atsegin dugu ongi egindakoa baloratzea. Gainera,

administrazioari ekonomikoki merkeago irteteaz gain, ingurumena zainduko du. Eta konposta dezakeen arren konpostatu nahi ez duenari kutsatzeko eskubiderik ez duela esan behar zaio. Konposta dezakeenak konpostatu egin beharko du. Eta ez aipatu inposizio hitzik, nik konpostatzen dudana neurri berean ordaintzen baitituz zergak. Ala zergak ordaintzeko prest diren boluntarioen diruekin soilik kudeatuko luke diputatu nagusiak Gipuzkoa? Milaka eta milaka familiak autokonposta dezakete Gipuzkoan, eta ehunka batzuek besterik ez dute egiten. Hor da lehen eronka.

Bigarrena, organiko birziklatzea. Honetan ere, boluntarioak soberan daude. Legea bete beharra dago eta argia da: konpostagarria den hondakin organiko guztia biltzeko betebeharra dute 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztiek. Oiar-tzun, Hernani eta Usurbilez gain, nork egiten du hori? Legea bete gero, zentzurik ba al du errauste planta toxiko erraldoi batek? Sistema eragingarriak jarri behar dira gure zabor poltsaren %40 hori, organiko den %40 hori, garbi bildu eta konpostatzeko. Hori lortzeko atez ateko bilketa baino sistema hoberik topatzen bada, horren alde egingo dut. Bi-

tar-tean, birziklatze mailaren langa %80tik gora lortzen duen atez atekoak jarri behar dira martxan. Eta 20.000 biztanle dituen Hernanik egiten badu, aitzakia gutxi gelditzen zaie gainerako herri eta hiri guztiei.

Eta %80 birziklatuta, zer egin %20 horrekin? Gipuzkoako industria aitzindaria izan da maila askotan. %20 hori organikoarekin apenas zikindu gabe legokeenez, *zabor garbia* dei diezaiokegu. %20 hori dezente txikiagoa litzateke konpresa eta pixoihalak birziklatzeko gai bagina. Jar ditzagun plangintzak unibertsiteak iker dezan, I+G plangintzak marraz ditzagun teknologia norabide honetan joan dadin. Eredugarri eta liderrak izan gaitzake; ordea, inork nahi ez duen tximinia luze eta toxikoa inposatu nahi digute.

Hondakinen arazoak konponbidea du. Baina horretarako herritarren alde egin behar da, ez enpresen alde. Herritarren parte-hartzea sustatu behar da, hondakinen arazo honi irtenbidea emateko giltza herritarrok dugulako. Pertsonak gara teknologiarik puntakoena. Horregatik, egin dugunagatik, eta nola egin dugun jabetuta, larri zabiltza, Egibar jauna. Horregatik botako nauzue, gaur. Baina Gipuzkoan iragana zarete.

Lagunik ez

Natalia Ginzburg idazlea ez zen eskolara joan bere aitak esaten zuelako eskola publikoak gaixotasunak hartzeko tokiak zirela —nonbait garrantzi handia ematen zion gizon hark osasun fisikoari, baina batere ez osasun mentalari—. Nataliaren anai-arrebak zaharragoak zirenez, maiz bakarrik egoten zen. Agian bakardade horren eraginez okerreko ideiak sortu zitzaizkion; esate baterako: eskolara joaten zirenak pobreak zirela eta aberatsel irakaslea joaten zitzaie la etxera. Hortaz, Nataliak atera zuen ondorioa zen aberatsak zirela, baina, aldi berean, ez zuen aberastasun horren zantzurik inon ikusten, eta askotan entzuten zuen ez zela dirurik etxean. Etxekoak ez ziren ez benetako pobreak ez eta egiazko aberatsak ere. Elizara ere ez ziren joaten, erdi judutarrek eta erdi katolikoak zirelako; finean, ezer ez.

Haur hura oharitzen zen desberdina zela, eta goizak ogia jaten eta eleberririk irakurtzen pasatzen zituen, irakaslearen zain. Lotsatia, larderatsua eta setatia zen aldi berean. Falta zituen gauzei erreparatzen zien: telefonoa, loreak balkoian, paper margotua paretetan.

Heldua zela, idazle italiarrak aitortu zuen lagunik ez izatearen obsesioak jazarri zuela nonahi eta noiznahi. Maiz pentsatzen dut bakardadean bizi izan direnek luzaroan ez dakitela beste era batean bizitzen, baina, berdin gisan, gorroto dutela bakardade hori. Gatazka horrek egiten ditu bakar, egiten ditu berezi, egiten ditu sortzaile.



Larrepetit
Castillo Suarez

Heldua zela, idazle italiarrak aitortu zuen lagunik ez izatearen obsesioak jazarri zuela nonahi eta noiznahi

Hemeroteka

Grebak Juanjo Olasagarre > Deia

Seguru aski aste honetako gaia greba izan da. Eskubideak gutxitu, merkatuaren eskuetan utzi eta txiroago eginen gaituzten neurrien kontrako greba hori. Euskal Herrian ia nabaritu ez den greba hori, Ekainaren 28 euskaldunago egin gintuen greba. Neurri batean ez fu ez fa gelditu den greba hori bera.

Bururatzen zaidan galdera zera da: greba orokor baten helburua kalea gelditzea bada, Gobernuari erabakitako erreforma laborala gustuko ez dela adierazi, eta, oro har, merkatuak deitzen diren horien diru gose ikaragarria salatzea, badu zentzurik greba hori bi txandatan egin eta inork egin ez duela oharitzea?

Adiskide batzuk pozik agertu dira Iruñeak ez zuelakoz gelditua ematen, tabernak irekita, autobusak martxan, dendak saltzen eta kalean ohiko jendea harat-honat. Greban ez dute espainolak irabazi eta pozik egon gaitetzke nahiz eta horrek grebaren eragina murriztu. Guk, greba ekainaren 28an egin genuen, eta akordatzen ez banaiz ere, Irailaren 29aren pareko izanen zen, ez fu ez fa. Bale. Ez gara espainolak eta zer?

Iruditzen zait bizi ditugun nora eza garai hauetan, nora eza ezkeraren aldetik, nora eza nazio ikuspegiak deitzen den horren aldetik, taktikak bi grebak greba egun bakarrean egitera eraman beharko zituela sindikatu abertzaleak deitzen diren horiek. Bai, entzun ditzaket nire adiskidearen aitzakiak, haiek (sindikatu espainolistak?) ez luketela nahi greba eguna aldatu. Normala, nola aldatuko dute haien ikuspegiak Estatu Espainola hartzen baldin badu. Gainera gehiago dira. Horregatik uste dut sindikatu abertzaleek (abertzalea nintzen eta uste dut oraindik ere banaizela) oker egin zutela greba hura konbokatzean. Bereziaren bereziz ezer ez gara.

Izan ere, bost axola izanen dit niri 65 urterekin ezin erretiraturik nire euskalduntasunak, nire espainoltasunak, nire gaytasunak eta nire kristina santuak. Hankak arrastaka lanera joan nahi ez duen zahar bat baino ez naiz izanen. Zahar bat. Beste kategoria bat. Gehiegiz osaturiko kategoria debaluatua. Edertasunak, beti bezala, gazte izaten jarraituko du. Urriaren urriz ederrago.

Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Programa berria

Hemengo politikari *abertzale* batzuk, oraindik, ez dira programa berrira moldatu, eta ez dakit inoiz moldatuko diren. Dirudenez, zailtasunak dituzte funtzionamendua ikasteko. Urte asko daramatzate eskumako botoia sakatzen orain programa berria aukeratzeko. Aukeran, nahiago dute, orain arte bezala, garbigailuaren goialdeko zulotik arropa sartu, aurreko zulotik baino. Erosoagoa da, eta erabiltzaileari ez dio makurtzea eskatzen. Gainera, orain arte ez dute inolako arazorik izan arropa zuria eta kolorekoa batera garbitzeko, praken poltsikoetan dirurik zuten edo ez begiratzeko, bestelako garbigarriak erabiltzeko.

Baina orain beldur dira, beldur handia diote programa berriari, zentrifugatuaren abiadurari. Badakite garbigailuaren danborra biraka ari dela, zarata gero eta ozenagoa dela. Laster programaren ezaugarriak aukeratu beharko dituzte: luzea, laburra... Eta nola ez, garbigailuaren marka (Fagor ala *made in Spain*) eta garantia: laster hauteskondeek garbitu ez ezik arropa alde batera eta bestera astintzeko lixiba eta xaboia erabiltzeko go-go izango baitute.

Juan Luis Mugertza. Berango.

Euskara ikasteko udal diru laguntzen murrizketa, Bilbon

Aurreko ikasturtera arte laguntza soziala jasotzen dutenei euskara ikasteko ematen zien diru laguntzak zein barrutietan adinekoei eskaintzen zien euskara klaseak bertan behera utzi ditu Bilboko udal gobernuak. 2009-2010eko ikasturtera arte Udalak oinarrizko errenta jasotzen zutenei euskara ikasteko matrikula osoa ordaintzen zien, eta, adinekoren taldeei dagokionez, Udalak berak hartzen zuten beregain irakaslearen soldata. Aurten, krisia aitzakia hartuta, aipatutako diru laguntza eta hainbat euskaltegiarekin zuten hitzarmena bertan behera utzi du Bilboko Udalak, oinarrizko errentaren hartzaileei zein adinekoei jakinarazi gabe. Matrikula egiteko orduan jaso dute albiste txarra.

Beste behin ere, agerian gelditzen da EAJK eta IUK euskararekiko duten begirune falta. Krisia ezin daiteke izan aitzakia hainbeste urte administrazio desberdinen aldetik baztertuta egon den euskarari erasotzeko. Euskararen normalkuntzarako bidean, laguntza guztiak ezinbestekoak dira.

Ezin dugu onartu beharrezkoak ez diren handikeriazko herri lanetan, San Mames berria eta Alondegia, Shanghaiko erakusketan, Udalak dituen 79 konfiantzako goi

karguetan edota propagandan hainbeste diru xahutzen duen udal gobernu horrek orain esatea dirurik ez duela bazterketa soziala pairatzen dutenei laguntzeko, euskararen bidetik lan munduan berriro integratu ahal izateko edota gure adinekoei herri honen hizkuntza ezagutu ahal izateko. Gai izango dira jendarteari esateko zenbat diru «aurreztu» duten murrizketa horiekin?

Salatu behar dugu azken urte hauetan oinarrizko errentaren hartzaileak, lagundu beharrean, udal gobernuaren jo puntu bilakatu direla. 2007. urtera arte Bilbobus bidaiatzeko zuten doako txartela kendu zieten, eta ia 27.000 pertsonen osaturiko kolektiboaren kontrako kanpaina mediatico bat abiarazi zuten iaz, Barkalaren agindupean.

Argi dago EAJren eta IUren lehenasunen artean ez dagoela bazterketa soziala pairatzen duten gero eta sektore handiagoei zulo beltzetik ateratzen laguntzea edota gure nagusien artean euskara suspertzea. **Zuriñe Zorroza eta Borja Sarrionandia.** Ezker Abertzaleko hautetsiak (Bilbo).

Euskara, larunbateko manifestazioan

Larunbateko manifestazioa hasi baino lehen eta amaierako ekitaldia bukatu gabe zegoenean inkesta moduko bat egin nuen. Bi denbora tarte horietan, alde batetik bestera mugituz ehun talde ezberdinetako elkarrizketak entzun nituen. Haietatik 52 gazteleraz izan ziren, 47 euskaraz eta 1 ingelesez. Manifestazioa hasi baino lehen, zenbaketari ekin nionean gaztelerazko hizketaldiak nabarmen gehiago ziren euskarazkoak baino. Badirudi jendea autobusetan iritsi ahal euskarazkoak ugaritu zirela. Nire kontaketa horretan, noizbait parra egin zuten euskarak eta gaztelerak, baina inoiz ez zion aurrea hartu lehenengoak bigarrenari.

Entzundako euskara motak mendebaldekoa (bizkaiera), erdialdekoa (gipuzkera) eta batua izan ziren. Beste euskalkirik uste dut ez nuela entzun. Frantsesaren arrastorik ere ez. Hitzunen doinuari dagokionez, askotan gazteleraz hitz egiten bazuten ere, garbi zegoen euskaradunak zirela nire ezkutuko ikerketaren protagonista asko. Susmoa dut erdarazko elkarrizketa ez gutxi gure egoera soziolinguistikoko pattalarengatik, gaztelera ere nahastuz gero eta gehiago egiten den hizketa trakets horren parte zirela.

Ez dakit nire zundaketa honek ezertarako balio duen, baina uste dut zerbaiten adierazgarri badela.

Xabier Rico. Gasteiz.

www.berria.info

Norekin batu?

Bai, *Batu Gaitzen*, bai, baina galdera da norekin.

Abertzaletasun mundutik Herri honentzat erabakitzeko eskubidea eskatzen dugunekin, edo Madrilen eskubide horiek behin eta berriro zapaltzen dutenekin?

Koherentzia gutxieneko bat erakutsiz, EAJK erabili izan behar zuten PSOEren orain-

go egoera exijitzeko Auzitegi Nazionalaren desagertzea, torturaren desagertzea, Alderdi Politikoen Legearen desagertzea eta ez eskaini beraien botoa Espainiako Kongresuan Lan Politika Aktiboen transferentziarengatik.

Jarrera hori izango zen koherentea *Batu Gaitzen* proposamenarekin. Bestea da kea eta hitz ederrak, besterik ez.

Juan M. Sansinenea.

Kioskoa harpidedunentzat opariak

Zozketak

PARTE HARTZEKO, deitu: IGANDETIK ASTEARTERA 943-30 43 47 edo www.berria.info/kioskoa

SARIDUNAK ostegunetan argitaratuko dira.

01 SAMANIEGO JAUREGIA

Bi lagunentzako gaua eta gosaria



Constitucion 12 · Samaniego
Tel.: 945-60 91 51
www.palaciosamaniego.com

02 ARANDIA JATETXEA

Bi lagunentzako bazkari edo afaria



Altzo Muino, 72 · Altzo
Tel.: 943-65 22 62

03 ORUE LANDETXEA

Bi lagunentzako gaua eta gosaria



Ergoena auzoa, 28 · Mutiloa
Tel.: 943-80 19 00
www.oruelandetxea.com

04 LABEKOA BERRI

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria



Santa Luzia, z/g · Ezkio-Itsaso
Tel.: 943-72 25 52
www.labekoaberri.com

05 NAFARROA OINEZ 2010

Hamar saski



Pedro Luis
conservas artesanas

06 SOTAVENTO JATETXEA

Bi lagunentzako menu berezia



Maestro Calles Kalea, 3 · Santurtzi
Tel.: 94-483 71 62
www.restaurantesotavento.com

07 ZIGAKO ETXEZURIA LANDETXEA

Bi lagunentzako gaua eta gosaria
(behe denboraldian eta larunbatetan ezik)



Tripuxin kalea, 2, Etxezuria etxea · Ziga
Tel.: 943-45 20 78
www.zigakoetxezuria.com

08 AIKO-MAIKO

Bi elastiko



Karmelo Labaka, 4 · Hernani
Tel.: 943-24 37 23
www.aiko-maiko.com

09 OTEIZA MUSEOA

Bost lagunentzatz bina sarrera



Alzuza
Tel.: 948-33 20 74
www.museooteiza.org

10 ASTIZKO KOBAK

Bost lagunentzatz bina sarrera




11 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bost lagunentzatz bina sarrera



12 ARDOAREN MUSEOA

Bost lagunentzatz bina sarrera



Erriberri

k 2=1 kupoiak

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera*

* Harpidedun bakoitzak, asteko kupoi bat bakarra aurkez dezake.

AISIA DERIO HOTEL MUSEOA ETA SPA ***

Zamudioko Parke Teknologikoa
Derio
Tel.: 94-431 76 80
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA 2=1 kupoia

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

**Batek ordaindu,
eta bigarrenak doan!**

ARGITARATZE EGUNA: 2010-10-03
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

AISIA ISLARES Hs SPA **

Islares auzoa
Islares (Kantabria)
Tel.: 942-86 21 12
www.aisiahoteles.com

SASOIAN JARTZEKO ZIRKUITUA 2=1 kupoia

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

**Batek ordaindu,
eta bigarrenak doan!**

ARGITARATZE EGUNA: 2010-10-03
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Mikeletegi pasealekua, 43
Donostia
Tel.: 943-01 24 78
www.miramion.org

MUSEOA 2=1 kupoia

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

**Batek ordaindu,
eta bigarrenak doan!**

ARGITARATZE EGUNA: 2010-10-03
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

TXINDOKIKO ITZALA

Larraitz
Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67/628-947 253
www.txindokikoitzala.com
info@txindokikoitzala.com

SARRERAK 2=1 kupoia

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

**Batek ordaindu,
eta bigarrenak doan!**

ARGITARATZE EGUNA: 2010-10-03
ERABILITZEKO EPEA: bi aste

Bezeroari kasu egiteko ordutegia: goizeko 08:30etik gaueko 19:30era 943-30 43 45 telefonoan, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Atristainek eta Besancek «tortura latzak» jasan dituztela salatuta dute

ETAko kide izatea eta lehergaiak eta armak gordetzea egotzi die epaileak, eta biak espetxeratzeko agindu du

Inkomunikazioa azken egunera arte luzatu du Poliziak, eta miaketak egin ditu

Erredakzioa

Xabier Atristain eta Juan Carlos Besance espetxeratzeko agindu du Ismael Moreno Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Atristain eta Besance joan den asteazkenean atxilotu zituzten, Usurbilen eta Villabonan, eta, bost eguneko inkomunikatuta egon ondoren, atzo pasatu ziren epailearen aurretik. Guardia Zibilararen txostenetan eta polizia etxetan eginiko deklarazioetan oinarrituta, ETAko kide izatea eta lehergaiak eta armak gordetzea egotzi die bie.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi duenez, epailearen aurretik pasatu eta inkomunikazio kendu ondoren, konfiantzazko abokatuekin bost minutuz hitz egiteko aukera izan zuten atzo. Inkomunikatuta egon diren egunetan «tortura latzak» jasan dituztela adierazi dute. AAMK datozen egunetan emango ditu atxilotaldi buruzko xehetasunak.

Polizia operazio berean atxilotu zuten Jesus Mari Besance—Juan Carlos Besanceren anaia—, eta igandean utzi zuten libre, Madrilen, epailearen aurretik pasatu gabe. Inkomunikatuta egon den egunetan tortura fisikorik ez diotela egin, baina tratatu psi-

kologikoa «oso gogorra» izan dela salatuta zuten, eta kezka agertu zuten, atxilotuta jarraitzen zuten beste bi pertsonen polizia etxean zer-nolako tratua emango zieten. Besteak beste, harekin batera atxilotutako deklarazioak entzunarazi zizkietela adierazi zuten.

Inkomunikatuta egon den egunetan, Atristain bi aldiz ekarri dute Madrildik Donostiara. Gipuzkoako hiriburuko Puio auzoko trasteleku batean eginiko miaketan parte hartu zuten ostiralean, eta, igandean, Donostiako erdialdeko etxe batean eginikoan. Etxe hori atxilotu egunean ere miatu zuten poliziek. Ismael Moreno epailearen autoan jasotzen den trasteleku eta etxe horietan, besteak beste, 75 kilo lehergai eta armak aurkitu zituzte. Era berean, Villabonako Arroa auzoko garaje batean 101 kilo lehergai eta lapurtutako auto bat atzeman dutela dio epaileak. garaje hori Juan Carlos Besancerena litzateke.

Lehergaia eta armak gordetzearekin batera, ETAko kide izatea egotzi die epaileak. Autoan dio biak 2008an Venezuelara joan zirela armak erabiltzen jakiteko ikastaroak hartzerantz, Arturo Cubillas Venezuelako Gobernuako funtzionarioaren eskutik. Espai-



Polizia operazioan parte hartu zuten guardia zibilak, joan den asteazkenean, Villabonan. J. HERRERO / EFE

niako Auzitegi Nazionalak Cubillasen atxilotuta agindu zuten duela zazpi hilabete, ETA eta Kolonbiako FARC talde armatuaren arteko lotura ikertzen ari duen auzi bat dela medio. Venezuelako Gobernuak ez du aintzat hartu Espainiako Justiziaren eskaria.

Poliziaren jarraipena

Ondoren, Atristain eta Besance Ibai Beobide uestezko etakidearen agindutara aritu zirela dio epaileak. Irungo enpresari bati eta Villabonako ertzain bati buruzko informazioa jaso zutela dio.

Ibai Beobide otsailean atxilotu zuten, Asteasutik Villabonara bi-

zikletaz zihoala. Inkomunikatuta egon zen egunetan torturatu egin zutela salatuta. Poliziaren aurrean eginiko deklarazioetan oinarrituta, sei pertsona atxilotu zituzten orduan, eta, beste batzuen artean, Atristain atxilotzeko agindu zuten epaileak. Aste batzuk geroago, Atristainek bere burua aurkeztu zuen Miarrizteko aireportuko polizia etxean. Espainiara estraditatu eta epailearen aurretik igaro ondoren, aske gelditu zen aurtengo apirilean.

Epaileak dioenez, orduetik Atristainen mugimenduak jarraitzen aritu ziren poliziak. Epailearen arabera, irailaren 27an eta

28an—atxilotu aurreko egunetan— Atristain eta Besance bildu ziren «gordeta zeukaten materiala desagerrarazteko».

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Barne ministroak, berriaz, Besanceri leporatu dio Jose Javier Mugika Leitzako UPNko zinegotziaren hilketan parte hartzea eta Jose Ramon Rekalde PSE-EEko kide eta Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburu ohiaren aurkako atentatu saioan parte hartzea. Epailea bi atxilotuekin zela egin zituen adierazpenok Rubalcabak, atzo. Espetxeratze autoak ez du jasotzen Rubalcabak leporatutakoa.

BAKek tortura salaketak ikertzeko eskatu die gobernuari eta epaileei

Mikel San Argimiroren kasuan Espainiako Gobernuak jokaera «arduragabea» izan duela uste du

Erredakzioa

«Zuzenbide Estatuaren funtzionamendua zuzena izan dadin», Bakearen Aldeko Koordinakundeak (BAK) tortura salaketa guztiak ikertzeko eskatu die botere eragileari eta judizialari. Mikel San Argimiro euskal presoaren

kasuaren harira egin du eskaera hori erakundeak. Izan ere, Estraburgoko auzitegiak Espainiako Gobernuak zigortu berri du haren tortura salaketa ez ikertzeagatik—23.000 euro ordaindu beharko dizkio presoari—. BAKen ustez, auzi horretan gobernuak izan duen jokaera «arduragabea» izan da, eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak «lotsagarri» utzi du.

BAKen arabera, tortura salaketa horietako asko «ezker abertzaileen estrategiaren barnean» egon daitezke, baina, hala ere, «ikertu egin behar dira, delitua izan den ala ez argitzeko». Hala-

ber, torturak saihesteko neurriak behingoz har daitezke eskatu du BAKek.

Oriol Junqueras ERCko eurodiputatuak ere Argimiroren afera izan du hizpide. Ohar batean adierazi duenez, Espainiako Estatuak «hobetu» egin beharko lituzke herritarren eskubideen aldeko mekanismoak. Hala, nazioarteko erakundeek gauza bera ohartarazi diotela gogorarazi du. Besteak beste, azpimarratu du NBEko Giza Eskubideen Batzordeak kargu hartu berri diola Espainiari «terrorismoaren» inguruan duen definizioa zabalegia delako.

Espetxeratu egin dute kale erasoak egotzita Donostian atxilotutakoa

Aritz Aiestaran igande goizaldean atzeman zuten, edukiontzia eta kutxa automatiko bati su ematea leporatuta

Erredakzioa

Bi edukiontzi eta kutxa automatiko bat erretzea leporatuta, igande goizaldean Aritz Aiestaran gaztea atxilotu zuten Ertzaintzak Donostian, eta baldintzarik gabe es-

petxeratu dute. «Sute terrorista» delitua egotzi dio epaileak 27 urteko gazteari.

Ertzaintzak Auzitegi Nazionalaren esku utzi zituen eginbideak igandean, atxilotuak polizia aurrerariak zituela argudiatuta—Aiestaran 2000. urtean atxilotu zuten, kale erasoak leporatuta—. Epaileak frogatutzat eman du Aiestaranek Donostiako kale erasoetan parte hartu zuela: besteak beste, epaileak dio kutxa automatikoko bideokameraren grabazioetan agertzen dela gaztea.

Ezker abertzalea sistema demokratikoan txertatu behar dela dio Markel Olanok

Gipuzkoako ahaldun nagusia «baliabide demokratikoak» aktibatzearen alde mintzatu da

Oihana Eldualen Donostia

Ezin da ezker abertzaleari «soilik bide demokratiko eta baketsuen alde» egiteko eskatu eta, era berean, hura «itotzen saiatuz» politikan aritzea eragotzi. Ezker abertzalea politikan aritzeko modua egin behar dela esan du Markel Olanok Gipuzkoako ahaldun nagusiak, eta, zehazki, Alderdien Legea indargabetzeko eskatu du. Ezker abertzalea sistema demokratikoan txertatzen ez bada «oraindik ere» indarkeriaren alde egiten dutenei arrazoia ematen zaiela ohartarazi du. Gipuzkoako egoeraren inguruko eztabaida hasi zuten atzo Batzar Nagusietan. Ordu eta erdi inguruko hitzaldian egoera politikoari buruz aritu zen Olanok, besteak beste, eta alderdien interesak alde batera utzi eta gizartearen interesen alde egiteko deia egin zuen, hala, «egoera itxaropentsu» honetan, bake bidean urratsak egiteko.

ETAk egindako urratsak nahikoak ez direla esan arren, aurrerapausoa direla eta balioa eman behar zaiela azpimarratu du. Politikari zenbaitek urrats horiek balo-

ratu ez dituzten arren gizarteak balioa eman diela ohartarazi du, eta, haren arabera, gizarteak egoera bideratzeko eginahalak egiteko eskatzen die politikariei. Hargatik, «baliabide demokratikoa aktibatzearen» aldeko apustua egin behar dela adierazi du.


Izan ere, Olanoren iritzian, ez dago ETA bide polizialek amaitzerik. Dioenez, erakunde armatuak «erasoekintza armatuen etena» erabaki izana bi oinarritako testuinguruan kokatu behar da: gizarteak ETArri «aurre egin» izana batetik, eta ezker abertzaleak jarduera armatua baztertzeko eskatu izana bestetik. «Lan polizial eraginkorra» behar den arren ETA amaitzeko duen babesa bukatu behar dela iritzi dio. Olanok argi dauka ETAk behin betiko utzi behar duela borroka armatua, inolako ordain politikorik jasogabe, baina erakunde armatuekin hitz egitearen aldekoa da. Elkarrizketa «indarkeria amaitzeko lanabes garrantzitsua» beti izan dela ekarri du gogora, eta egoera honetan zergatik ez duen balio galdera jaurti du.

Indarkeriarik gabeko egoerara iritsitakoan adiskidetzaren alde lan egin behar da, Olanoren hitzetan. Horren abiapuntu biktimek izan behar dutela nabarmendu du. «Haiek dira gehien sufritu dutenak, eta guztiok geure egin behar dugu haien mina».

Nolanahi ere, Euskal Herrian

konpondu beharreko arazo politiko bat dagoela nabarmendu du ahaldun nagusi jeltzaleak. «Hori ez onartzeak ez du arazoa desagertzen». Euskal Herria erabakitze eskubidea duen subjektu bat dela onartu behar du Espainiako Estatuak, haren hitzetan. Estatuak «desegonkortasun politiko» mantentzea galarazi beharreko gauza dela dio, eta beharrezkotzat jo du egoera berri bat.

Besteak beste, Joseba Egibar GBBko burua eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea aurrean zituela egin zituen hitzok atzo Olanok. Gaur taldeek erantzungo diote Olanori. Ostiralera arte mozioak aurkezteko aukera izango dute talde horiek, eta egun horretan haiek bozkatuta amaituko dute eztabaida.



Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldun nagusia. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

PSEren ustez, Alderdien Legeak behartu du ezker abertzalea mugitzera

Betiko gauza bera eskaintzea egotzi dio Alternatibak Markel Olanori, eta Gipuzkoara atzerapena ekartzea

Erredakzioa Donostia

«Alderdien Legeak bizi asko salbatu ditu, biktimek zein sufrimendua eragotzi ditu, eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren babesa du», erantzun dio Julio Astudillo Gipuzkoako Batzar Nagusietan PSE-EEren ordezkariak Markel Olanori, hark Alderdien Legea indargabetzeko eskatu ostean. Izan ere, haren iri-

tzian, «zuzenbide estatuaren tinkotasuna» eta Alderdien Legea izan dira ezker abertzalea mugitzea ekarri dutenak. «Egindako urratsak nahikoak ez diren arren, egia da mugimenduak direla».

Aralar ere ez da aseta geratu Olanoren hitzaldiarekin. «Lidergo falta eta ahultasun ideologikoa» aurpegiratu, eta Gipuzkoa Aurreraren atzean ezkutatzea egotzi dio Rebeke Uberak.

«Betikoa» eskaintzea egotzi dio Alternatibak, eta Gipuzkoara atzerapen ekonomiko eta soziala ekartzea. «Okerrak onartu eta zuzendu» beharrean, lehengoan jarraitzea besterik ez du eskaini Olanok, Ander Rodriguezen esanetan.

NATURA ETA GIZAKIA

naturarekin loturiko garapen pertsonalarako tailerra
natura biziz

Tailer honen helburua norberaren hazkundera eta barne-adikortasuna lantzea da, oreduzat naturan dagoen harmonia harturik.

Datak: urriaren 16a, azaroaren 6a eta 27a
Zientziaren kutsaGunea (Donostia)
Astelekuaren 18a (Arantzazu)

Prezioa: 30 €

Informazioa eta izen-ematea:
www.kutxasocial.net



gizarte
KUTXA
Zugandik Zugara

Urizek «bidegabetzat» jo du PSNk kanporatzeko espedienteak ireki izana

Atarrabiako zinegotzi sozialistak «ETAren inguruko pertsonak» omentzea lotsagarria dela argudiatu du PSNk

Joxerra Senar Iruñea

Atarrabiako festen hasieran beste behin polemika izan da. Jose Luis Uriz Atarrabiako zinegotzi sozialistak jaiak hasi baino lehenago igorritako ohar batean zehaztu zuen, besteak beste, Arnaldo Otegiaren omenez jaurtiko zuela suziria. Hori ikusita, alderditi kanporatzeko espedienteak ireki dio PSNk. Jose Luis Izko PSNko Antolamendu idazkariak atzo azaldu zuen asteazkenean jakin zuela Uriz «mota horretako ekimen bat» egitera zihoala eta telefonoz hori ez egiteko ohartarazi ziola. Ostegunean, posta elektronikoz, agindu hori berretsi zion. Izokoren aburuz, «lotsagarria» da «ETAren biktimez oroitu beharrean ETAren inguruko pertsonak omentzea». Urizek, berriz, erantzun du «bidegabea» dela alderdiak espedienteak irekitzea.

Espedienteak aurrera atera edo ez, Jose Luis Uriz politika uztera doa. Azken legealdia du. Frankismo garaian alderdi komunistako militante izan ostean, 1990ean PSNn afiliatu zen. Hogei urteotan, parlamentari izan da bi legegalditan eta Atarrabiako hautetsia 1999az geroztik. Politika uztera doala eta, «sentiberatasunez» azken urteetan gertatutakoaz gogoeta egin, eta bost pertsona gogora ekarri zituen txupinazo aurretik argitaratutako oharrean.

Horietako bat zen Otegi, urteotan «Batasuna bakearen bidetik» zuzentzeko asmoz egindako lanagatik. «Batasunaren barruan mugimenduak diren honetan, bide



Jose Luis Uriz zinegotzi sozialista, Atarrabiako jaietako hasiera ekitaldian. JESUS DIGES / EFE

hori behin betiko izan dadin lagundu eta babestu egin behar da». Urizek atzo argudiatu zuen txupinazoan hitzaldi orokorra egin zuela bakearen alde esku zabaltasuna eta ausardia aldarrikatu.

“

PSOerekin ondorioztatu genuen oso larria zela eta espedienteak ireki behar zela»

JOSE LUIS IZKO
PSNko Antolamendu idazkaria.

tuz, baina ez zuela Otegi batere aipatu. Bidegabetzat jo du PSNk Otegi bai baina biktimez ez oroitu izana leporatzea. «Hautetsi gisa, ni eta nire udal taldeko kide-

ak urte askotan oso bakarrik egon gara sozialismoa eta demokrazia aldarrikatzen». Horregatik, espedienteak nabarmen eragin diola aitortu du.

PSN: «Nekatuta gaude»

Txupinazoa larunbat eguerdian bota zuten, eta une horretan PSNko militanteak lurralde batzordean ziren. «Horren berri izan genuenean, [PSOeko] zuzendaritza federalarekin jarri ginen harremanetan, eta bi aldeok ondorioztatu genuen oso larria zela eta kanporatzeko espedienteak ireki behar zela. Erabaki hori lurralde batzordeko kideei jakinarazi genien eta txalo zaparrada batekin oniritzia eman zioten», esan zuen Izkok. «Urizen kontuekin nekatuta gaude», gaineratu du.

PSNko zuzendaritzak espedienteak etzi irekiko du, instrukto-reak izendatuko ditu eta epeak jarriko ditu. Izkok gaineratu du Jose Luis Uriz «gaur-gaurkoz» PSNko afiliatu dela eta horrenbestez aukera izango duela prozeduraren barruan bere arrazoiak emateko. «Kanporatua bada, ez da PSNtik aterako, PSOetik bai. Gu PSOE gara».

Gertaerak udal politikaren mugak gainditu ditu. Nafarroako Gobernuak «zentzugabekeriatzat» jo du Urizek egindakoa. Yolanda Barcina Iruñeko alkateak, berriz, azaldu du suziria Otegiaren omenez egiteko zela jakinez gero ez zela hara joango. Uxue Barkos NaBaikoak, berriz, Urizek emandako azalpenekiko «errespetu osoa» eskatu du.

Gorenak Falange y Tradicion ikertzea Auzitegi Nazionalaren esku utzi du

Ekintzak «kale terrorismotzat» eta inputatuak «talde terroristako» kidetzat jo daitezkeela arrazoitu du

J. Senar Iruñea

Falange y Tradicion eskuin muturreko taldearen eraso eta mehatxuak, azkenik, Auzitegi Nazionalak ikertuko ditu. Hala erabaki du Auzitegi Gorenak. Guardia Zibilak zein Espainiako Poliziak talde horri leporatutako mehatxu eta eraso guztien ikerketa hasiera batean Iruñeko 3. instrukzio epaitegiak hartu bazuen ere, auzitegi horrek uste zuten «asmo subertsibo argiko» indarkeriazko ekintza horiek «delitu terroristak» izan zitezkeela eta, horrenbestez, ikerketa Auzitegi Nazionalak hartzeko eskatu zuten. Aldiz, Ismael Moreno Auzitegi Nazionalako 2. instrukzio epaitegiako epaileak uko egin zion eskaintza horri, eta auzitegi Gorenak erabakitzea proposatu zuten.

Gorenak, azkenik, Iruñeko epaitegiari eman dio arrazoia. Gorenaren arabera, azken emaitzaren zain, ikertutako ekintzak Zigor Kodeko 577. artikuluan datoren kale terrorismo delituaren barruan sar daitezke. Gorenak gaineratu du ordena konstituzionala zein bake publikoa apurtzeko exijentzia bai betetzen dela kasuotan, deskribatutako ekintzak «Memoria Historikoaren Legearen aurkako zein ezker abertzaleko alderdi, pertsonen eta interesen aurka doazelako». Ez du zehaztu inputatuak talde terroristako kide diren, baina iradoki du balitekeela baldintza hori betetzea.

«Erronka gehiago» iristear direla adierazi du ezker abertzaleak

Ez duela frontismorik bultzatuko esan du, eta konponbiderako prozesuak «jabetza partekatua» behar duela

Aitziber Laskibar Bilbo

Larunbateko manifestazioa «bide onean» eginiko pauso «erabakigarri» bat da ezker abertzalearentzat. Areago, iristear diren beste erron-

ka batzuen «iragarpena» dela dio. Bilbokoak garai politiko berriak duen ahalmenaz jabetu den «herri-tarren gehiengoa» irudikatu zuela eta, beraz, beste pauso batzuk egiteko aukera emango duela.

Haren ustez, badira aldaketa politikorako apustua egin dutenen aurkako «probokazioaren bidez» konponbiderako saioak presaka eta «desesperazioarekin» egitea nahi dutenak; baina, horren aldean, indarra eta esperantza erakutsi zituen manifestazioak.

«Larunbatean eskubide zibil eta politikoak izan ziren, eta laster erronka gehiago etorriko dira», iragarri du: «Ezker abertzalearen legeztatzea eta euskal preso kaleratzea ate-joka ari dira». Hurrengo urratsak egiteko, bide beretik jarraitzeko eskatu du.

Ezker abertzaleak ez duela frontismorik sustatuko ziurtatu du. «Konponbiderako prozesuak jabetza partekatua behar du, amaiera partekatua eta guztiona izan dadin. Konponbidea ez da

abertzaletasun gehiago edo konstituzionalismo gehiago formulatutik etorriko; ez da inoren kontra eraikitzen, denen parte-hartzearekin baizik».

Antolatzaileak, pozik

Manifestazioaren deitzaileei oso ona iruditu zaie jasotako erantzuna. «Oso plurala eta jendetsua izan zen; eskubideen murrizketari modu zibiko eta baketsuan emandako erantzuna», esan dio BERRIARI Felix Cañadak.

Abokatuaren hitzetan, «herri honetako elkarbizitza hobetzen laguntzeko bilgune plurala» izan nahi zuen protestak, eta hala izan zen. Adierazi EHri hitza eman izana honela azaldu du: «Helburu bat

manifestazioen debeku bidegabeak salatzea zen, eta garrantzitsua iruditzen zitzaigun haien aldarriak ezagutzeko, debekua zein bidegabea izan zen konturatzeko».

Adierazi EHri hitza eman izana salatu, eta «engainatu» egin dutela esan du EAJk. Cañadaren hitzetan, antolatzaileek nahikoa informazio eman zutela uste zuten; ez zuten inor mindu nahi. Eta aurrerantzean etor litezkeen ekimen partekatuei begira, «bakoitzak bere etxean pedagogia egin dezala» eskatu die alde guztiei; «elkarrekiko jarrerak aldatzeko».

Bestetik, PPK Herrizaingo Sailerik manifestazioa ikertzeko eskatu diola eta, ez dutela legez kanpoko ezer egin esan du.

Rafael Bengoa: «Osasun publikoaren sistema, hein batean, arriskuan dago»

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak dio «konponbideak» badaudela eta ez dela «dramatizatu» behar

Mikel Rodriguez

Osasun publikoaren sistema «hein batean arriskuan» dagoela adierazi zuen atzo Rafael Bengoa Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak, Radio Euskadiri eskainitako elkarrizketan. Hala ere, Bengoaren iritziz, «badaude konponbideak», eta ez da egoera «dramatizatu» behar. Gaixo kronikoen arreta «lehentasunezko osasun politika» bihurtzea jarri zuen horren adibidetzat. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko pediatrik ekarri nahi dituztela ere jakinarazi zuen sailburuak.

Hurrengo hamar urteetan osasun publikoaren sistema arriskuan ote dagoen galdetuta, gaur egun «hein batean» hala dagoela uste du Bengoak. Horrekin lotuta, sailburuak adierazi du «Euskadik duen gizarte eta ekonomia arazorik handiena, eta etorkizunean ere izango duena, demografia» dela.

Egoerak «konponbidea» duela nabarmendu du Bengoak, eta horren adibidetzat jarri zuen gaixo kronikoen gaineko politika: «Lehentasunezko osasun politikatzat ezarri dugu, beste autonomia erkidegoetan ez bezala. Baina guri iruditzen zaigu hurrengo urteetan jarraitu beharreko irizpidea dela eta hor ezarri behar ditugula gure ahalegin guztiak. Ez dugu jarraituko esanez arazo demografikoa dugula eta gero ezer egin».

Bengoaren irudiko, Osasun Sailak jarraitu beharreko estrategian beharrezkoa da gaixo kronikoak identifikatuta edukitzea. «Lehen arreta eta ospitalekoa in-

tegratzen hastea beharrezkoa da, eta gaixo kronikoak radarrean izatea, radarrean ez daudelako». Horren bidez, gaixoei behar dituzten sendagaiak identifikatu eta helarazi nahi ditu Osasun Sailak, eta «gizarte zerbitzuen bidez erizaindegi komunitario bat gaixoaren etxera doala bermatu».

Sistema hori «bi edo hiru urtean» antolatuko dutela iragarri zuen. Horren bidez, «behar gehien» duten gaixoei sailkatu nahi ditu Osasun Sailak, eta «haiek in etxera lotuta egon».

Beraz, Bengoak joan den hilean azaldutako asmoa berretsi du. Orduko hartan, osasunaren auto-



Euskadik orain eta etorkizunean duen arazorik handiena demografia da»

«Gaixo kronikoak radarrean izatea beharrezkoa da, radarrean ez daudelako»

«Osasun sistemaren antolaketa ez da izan behar 1970ean erabakitzeko bezalakoa»

RAFAEL BENGOA
Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

gestioaren alde agertu zen, hezkuntzaren bidez «gaixo aktiboak» sortuz. Osakidetza «komunitatearen barruko eta etxeko zaintzak» sustatzeko asmoa duela azaldu zuen, gaixo kronikoek ospitalean ematen duten denbora murrizte aldera. «Hamar eritasun dituen batekin zailagoa izango da, baina diabetesa duen bati bere osasuna kudeatzen irakats dakioke».

Pediatria gabeziaren arazoaz ere mintzatu zen Osasun sailburua atzoko elkarrizketan. «Eus-


kadin pediatria falta» dago, haren ustez, eta hori ikusirik «lanerako hainbat bide» ireki dituztela jakinarazi du. Horren harira, Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora jotzeko asmoa du pediatria bila. «Euskadin gainerako autonomia erkidegoetan baino baldintza hobek dauzkagulako, soldatei dagokienez».

Pediatria arretarako adina

Era berean, «beste formulak» kontuan izatea beharrezkotzat jotzen du, eta horien arteko bat pediatria arretarako adina jaistea dela aztertzen ari direla aitortu du. «Aukeretakoa bat da, baina horren inguruan ez dago ezer erabakita. Arazo hau gainditzeko hainbat alternatiba aztertzen ari gara».

«Osasun sistemaren antolaketan ez da izan behar 1970ean erabakitzeko bezalakoa. Milaka aurrerakuntza teknologiko daude, eta giza baliabideak oso ongi prestatuta. Gauza asko aldatu beharra daude, eta hurrengo hilabeteetan pediatria sistema ona egongo da Euskadin».

Azken hilabeteetan eztabaidagai izaten ari da osasun sistemaren erreforma Hego Euskal Herrian eta Espainian. Hauts gehien harrotu duen gaia izan da medikuarengana joateagatik ordainarazteko proposamena. Iragan maiatzean Maria Kutz Nafarroako Osasun kontseilariak adierazi zuen une hura ez zela «egokia» hori eztabaidatzeko. Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak jakinarazi zuen «pentsio altuena» zuten erretiratuek botikengatik ordaintzea aztertzen ari zirela. Ramon Jauregi, PSOEko eurudiputatuak, berriz, joan den astean adierazi zuen «osasun unibertsa la eta aurreratua» nahi izanez gero ordainketa sistemaren bat ezartzea «posible» dela. «Gehienok *doako kultur*an hezi ditugure seme-alabak».



Rafael Bengoa, laneko bulegoan, artxiboko irudi batean. JUANAN RUIZ / ARP

Gurutzetako ospitalean institutua sortuko dute, osasunaren ikerketan sakontzeko

Biocruces Institutua. Izen hori eman diote Gurutzetako ospitalean egokituko den osasunaren ikerketarako zentroari. Zabalkunde handiko gaixotasunak bezala, eritasun arraro edo ezohikoak ere ikertuko dituzte Biocrucesen. Ospitalearen aldarneneko eraikin batean kokatuko dute ikerketa zentro hori. Marian Busturia Gurutzetako Ikerkuntzako zuzendariaren hitzetan, 4.000 metro karratuko eremua izango du, eta kreditu publiko batekin finantzatu dute. Osakidetza egiten diren ikerketa guztien heren bat egiten du Gurutzetako ospitaleak egun, eta Osakidetza argitaratutako artikulu zientifiko guztien %40 bertako ikertzaileek egindakoak dira.

Onkologia, diabetesa, neurozientziak, epidemiologia eta biriketako fisiologiari lotutako ikerketak egingo dituzte zentroan arituko diren 250 ikertzaileek. Jakintza enpresetara eramatea ere helburu izango duela zehaztu du Busturiak.



KILOMETROAK 2010
PASAIA-LEZO-LIZENA
www.kilometroak.net

ZOKETEN ZENBAKI SARITUAK:

DACIA SANDERO AUTOA Astigarraga Auto	23128 ordozkoa 18557
KANARIAR UHARTEETARA BIDAIA Eroski bidaiak	04189 ordozkoa 13899
ASTURIASEN EGONALDIA Eroski bidaiak	03771 ordozkoa 10283



MILA ESKER!

Etorkinen zerbitzu juridiko berriak mila kontsulta jaso ditu uztailetik

Heldu zerbitzua bertan behera uztea defendatu, eta zerbitzu bereziak ematearen aurka agertu da Zabaleta sailburua

Jon Rejado Gasteiz

Etorkinei babes juridikoa emateko Eusko Jaurlaritzaren tresna berriak mila kontsulta jaso ditu azken bi hilabete eta erdian. Heldu zerbitzuaren kontratua ez luzatzea erabaki zutenetik. Kontsulta horietatik, 450 Heldu zerbitzuan txostena irekita zeukaten

pertsonak egin dituzte, 300 zerbitzura lehengoak jo duten atzerritarrenak izan dira, eta 200, oinarrizko gizarte zerbitzuen langile edo teknikariak.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailak 2002. urtean ireki zuen Heldu zerbitzua, baina berau emateko modua aldatzea erabaki du, eta administrazioaren egituraren txertatu. Oinarrizko zerbitzuetan edota egoera irregularrean dauden atzerritarren kontsultei erantzuteko helbide elektronikoa bat eta telefono bat jarri zituen azaroaren 15ean. Orduan jasotako kontsulta gehienak telefonoz argitu dira, eta 110



Gemma Zabaleta, Eusko Legebiltzarrean, artxiboko irudi batean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

aldiz aurrez aurre eman dute arreta, presazko gaiak edota babes zuzena behar izateagatik.

Datu horiek erakusten dute Helduren eredu ez zela «egokia», Gemma Zabaleta Lan eta Gizarte Gaietarako sailburuaren ustez. Heldura iristeko, oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzea ezinbesteko zen, eta horren ostean bilera zuten Helduko bulegoetan. «Kasu guztietan aurrez aurreko

bilera ez da beharrezkoa, batzuetan informazioa baino ez dutelako nahi», nabarmendu du Zabaletak Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordean.

Zerbitzu berezirik ez

Heldu «zerbitzu berezia» zela berretsi du Zabaletak, hau da, egoera irregularrean zeuden atzerritarrei administrazioaren beste

eremu batzuek ematen dizkieten zerbitzuak ematen zizkiela. Eta zerbitzu bereziak ematearen aurka agertu da Zabaleta. «Bertokoei jarraitzen duten bidetik aldentzen baditugu, orduan gerta liteke bazterkeria».

Zerbitzu bereziak dakartena zerbitzu bera bitan ematea dela gaineratu du sailburuak, eta gaur egun dauden zerbitzuak indartzera jo behar dela arrazoitu du.



7. zozketako IRABAZLEAK

Jose Ignacio Basterretxea

(ZARATAMO)

Idoia Arruti

(TOLOSA)

SARIA:
OSTARGI ekoizlearen

2 barazki kontserba sorta



Aritz Zearra (GERNIKA-LUMO)

Julen Agirrezabala (IGORRE)

SARIA:

2 produktu sorta

3 Larre-gain sagardo botila

2 Alfar olio botila eta

2 Serrats hegaluze pota

Sartu eta erosi gurean



Euskal Herriko Plaza
onlaidia



EHkoPLAZA

Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure eskura

www.euskalherriko
PLAZA.com



Iruñean atzo egin zuten elkarretaratzearen irudi bat. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Bikotekidea jo dute hiru gizonezko Bizkaian

Ertzaintzak hirurak atxilotu ditu, haietako bi Bilbon eta beste bat Artzentalesen, genero indarkeria leporatuta

Erredakzioa Bilbo

Bizkaian hiru gizonezko atxilotu zituen igandean Ertzaintzak, genero indarkeriako delituak egotzita. Artzentalesen, 41 urteko gizonezko bat hartu du preso Ertzaintzak; duxako barra batekin buruan jo zuela salatatu zuen emakumeak, ertzainei deituta. Gizonak ukatu egin zuen bikotekideari eraso ziola; baina, andrearen kolpeak ikusita, gizona atxilotzea erabaki zuten polizia.

Bilbon eraso zieten beste bi andreri, igandean. Gizonezko batek,

32 urtekoa bera, bikotekide ohiari muturreko bat eman eta eskuko hatzak bihurritu zizkion. Emakumea erietxera eraman zuten ertzainek, eta gizona atxilotu egin zuten. Andreak, gainera, salaketa ipini du epaitegian. Bikotea banatu berria zen, eta elkarrekin bizi izandako etxea husten ari zirela gertatu zen eraso.

Igandean, 23:00etan, gizon bat emakume bat jotzen ari zela ikusi zuten ertzainek Barrenkalen. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak adierazi du ostikoka eta kolpeka ari zitzaizola eta ertzainek atxilotu egin zutelako gizona, 26 urtekoa, nahiz eta emakumeak ez zuten eraso salatatu nahi izan.

Genero indarkeriaren aurka, eta emakumeentzako justizia eskatzeko, elkarretaratzea egin zuten atzo Iruñean, Astelehen Lilak ekimenak antolatuta.

Bi kamioik elkar jo, eta pertsona bat hil da N-121-A errepidean, Sunbillan

Andoainen kamioi batek artaziarena egin du, eta 15 kilometroko auto ilarak izan dira N-1 errepidean

Erredakzioa Donostia

Euriak eta haizeak hainbat ezbehar eta gorabehera eragin zituzten atzo errepideetan. Larriena N-121-A errepidean izan zen, Sunbillan (Nafarroa). Bi kamioik talka egin, eta pertsona bat hil zen. Foruzainek jakitera eman zuten, 07:00 inguruan izan zen ezbeharra. Larrialdi zerbitzuak eta suhiltzaileak hara joan ziren, baina ordurako gizona hilda zegoen. Beste pertsona bat ere ibilgailuetako batean geratu zen harrapatuta, baina ateratzea lortu zuten.

N-1 errepidean hamabost kilometro arteko auto ilarak izan ziren, trailer batek Andoainen (Gipuzkoa) izandako ezbeharraren ondorioz. Ibilgailuak artaziarena egin zuen, eta zeraman ibilgailu astuna bidera erori zen. Goizeko zazpiak eta hamar aldera izan zen istripua, eta errepidea erabat moztuta geratu zen. 08:40ean bideetako bat ireki zuten, eta handik hogeita minutura bestea. Bien bitartean, Ertzaintzak Urrietatik desbideratu zuten zirkulazioa.

Kamioi batek artaziarena egin zuelako, halaber, ordubetez egon zen itxita AP-8 errepidea, Irunen (Gipuzkoa). 11:20ean izan zen istripua, eta kamioi gidaria Bidasako erietxera eraman zuten. Ertzaintzak G-636 errepidetik desbideratu zuten zirkulazioa, baina lau kilometro arteko auto pilaketak izan ziren Baionarako noranzkoan. Irun erdialdean, berriz, sabai leiho bat erori zen. Eraikin baten aurka jo zuen, baina ez zen inor zauritu. Donostiako suhiltzaileek, bestalde, 30 irterera baino gehiago egin behar izan zituzten, haizearen eta euriaren ondorioz izandako gorabeherak direla eta. Baina ez zen gertaera larririk izan.

Dena den, herenegun hasi ziren lehen arazoak eguraldiarekin. Treton (Kantabria, Espainia) Basauriko (Bizkaia) motor gidari bat hil zen. 28 urteko emakumea da hildakoa. Gidatzen zuen motorra bidetik irteten zen, eta jasotako kolpearen ondorioz hil zen.

Lezaman (Bizkaia), bestalde, haizeak haurrentzako puzgarri bat bota zuen, eta lau lagun zauritu ziren: hiru ume eta emakume bat. Emakumea eta umeetako bi erietxera eraman zituzten.

Bernadette Soulek hartuko du EEPko zuzendari postua, hilaren 20an

Estebe Eiherabide ordezkatu du, administrazio kontseiluak haren hautagaitza onartuz gero

Iñaki Petzarroman

Bernadette Soulek hartuko du EEP Euskararen Erakunde Publikoko zuzendari postua, hilaren 20an, Administrazio Kontseiluak haren hautagaitza berresten badu. Izan ere, orain arte karguan izan den Estebe Eiherabidek postua utziko du Garazi-Baigorri elkargoko zerbitzueta zuzendaria izateko.

Atzo Pays Basque.info kazeta digitalak eman zuen albistearen berri, eta BERRIAK baieztatu ahal izan du Soulek haren hautagaitza aurkeztuko diola EEPko administrazio kontseiluari. Souleren hautagaitzak aurrera egiteko ez luke aparteko arazorik egon behar. Izan ere, sortu zenetik lan egin du erakunde horretan Soulek, eta dagoeneko zuzendari lanetan hasita dago.

Soule Donibane Garazin sortu zen, duela 42 urte. Ekonomialaria da, eta Baionako Merkataritza Ganberan lan egin izan du. BERRIA egunkarian ere kolaborazioak egin ditu, Egitura ekonomiako gehigarrian.

Euskal gaietan diplomatua da Soule, eta euskalgintzan aski ezaguna. Euskaldun berria da,



Bernadette Soule. BOBEDME

AEKn jardun zen euskara ikasten. Berriki Euskaltzaindiak izendatu du euskaltzain urgazle. Iker zentroarentzat Euskal Herriko toponimiari buruzko lan bat egin du, eta azken hilabeteetan buru-belarri aritu da Ipar Euskal

Herrian ETB telebista ikus dadin, aro digitalera igarotzen denean.

Orain arteko zuzendari Eiherabidek iragan uztailan jakinarazi zuen EEP utziko zuela.

Soulek zeregin garrantzitsuei

egin beharko die aurre orain, EEPren barruan. Besteak beste, 2010-2016 eperako erakundearen erronka eta ardatzak zein izango diren zehaztu beharko du, alegia, erakundearen ondoko sei urteotako plangintza. Plangintza horretan euskararen erabilera indartzea izango da xede nagusieta bat.

Brissonen jarraipena

Horretarako, taldea antolatu beharko du Soulek. Eta, besteak beste, egitura handitzea beharrezkotzat jotzen dute EEPn, heldu diren urteetako erronkei heldu ahal izateko. Izan ere, hori bera aitortu dute Parisko ikuskariek erakundeari buruz egindako txostenean, alegia, hizkuntz politika eraginkorrek giza baliabide gehiago behar dituela: egun erakundeak zortzi langile ditu, baina hamabi behar dituztela azaldu diote Frantziako Gobernuari. Urtea amaitu aurretik erabakiko du zer egin Parisek.

Bidenabar, zain egon beharko du zalantza baten inguruan: ea Max Brisson egungo lehendakariak (UMP) karguan jarraituko duen, edo beste norbaiten eskutian utziko duen.

Euskararen Erakunde Publikoa 2004an sortu zen, interes publikoko elkarte gisa. Bi helburu nagusi ditu: euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea eta definitzea, eta horretarako behar diren finantza baliabideak bermatzea.

Eskuratu Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma **DOAN!**

BERRIAren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxaren eskutik.

10 LIBURUKKA:
4 PARKE NATURAL: Alako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta
3 BIOTOP: Leitzarain, Iñurritza eta Flysch Deba-Zumala
Parketxe sareak • Talai bidea
Ibilbide iragarriak: Larraitz eta Arantzazu
BAKOITZEAN HAINBAT IBILBIDE + GUZTIA BILDUKO DUEN ZORROA

Harpideduna bazara, eskatu **943-30 43 45** telefonon, **harpidetza@berria.info** helbidean edo **www.berria.info** webgunean, eta etxean jasoko duzu bilduma.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ
berria

Euskal Herriko Mitologia
ARITZA BERGARA

Euskal Herriko Mitologia
JENTILEN AZTARNEN ATZETIK

Liburua: **25€**
DVDa: **15€**
Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
943-30 43 45 · **harpidetza@berria.info**
www.berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Borrokaldia hasi dute Caceresko euskal presoek

DONOSTIA > Arantza Zulueta abokatu eta preso bakartuta daukate Caceresko espetxean, apirilaren erdian espetxeratu zutenetik. Amnistia Aldeko Mugimenduak jakinarazi duenez, hori aldatzeko exijituz, borrokaldian daude espetxe horretako presoak. Elkarretaratzeak egin dituzte orain arte, eta datozen asteotan borrokaldia gogortzeko asmoa dute.

Odon Elorza alkatetzara aurkeztea aztertzen ari da

DONOSTIA > Datorren urtean egingo diren udal hauteskundeetan Donostiako alkatetzara aurkeztu edo ez oraindik ez duela erabaki esan du Odon Elorzak. PSE-EEko zuzendaritzak atzo egin zion berriz aurkezteko eskaintza, «lidergo eta lan gaitasuna» duela iritzita. Bi hamarkada alkatetzan egon ostean, «osagai etikoei» buruzko gogoeta egiten ari dela dio.



Iñaki Arriola Garraio sailburua, erdian. A. CANELADA / ARP

Beste 50 milioi euro jarriko dituzte AHTa egiteko

DONOSTIA > Abiadura handiko trenaren Gipuzkoako zatiko lanak egiteko, Eusko Jaurlaritzak beste 50 milioi euro jarriko ditu. 2011ko aurrekontu proiektuan aurreikusi du diru kopuru hori, eta, hala, guztira 275 milioi euro emango ditu datorren urtean. Lanak oso azkar egiten ari direlako justifikatu du diru igoera hori Iñaki Arriola Jaurlaritzako Garraio sailburuak.

Gizon bat atxilotu dute, ustez bi ertzaini eraso egiteagatik

DONOSTIA > Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen herenegun Donostian, bi ertzaini katana batekin eraso egiten saiatzea leporatuta. Bizilagun batzuek Ertzaintzara deitu zuten, solairuko beste bizilagunetako bat soinu handia egiten ari zela esanez. Bi ertzain bertaratu ziren, eta esan zenez zuela soinu gehiago egingo. Ez zen hala izan, eta itzuli zirenean egin zien eraso.

Erljioko irakasleak Iralen sartzeko eskatu dute

GASTEIZ > Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko irakasleak Iralen parte har dezaten beharrezko neurriak hartzeko, euren hizkuntz eskakizuna lortu ahal izateko. Ekimenak aurrera egin du Legebiltzarreko talde politiko guztien aldeko botoekin; Aralarrek, aldiz, bigarren puntuaren aurka egin du.

24.999

■ **Iruñean bizi diren etorkinak.** Iruñeko Udaleko Soziologia Arloak egindako ikerketa baten arabera, egun, Nafarroako hiriburuan 127 herrialdeetako 24.999 etorkin daude errolatuta, biztanleriaren %12,6. Talderik ugariena bulgariarra da. Denera, Bulgariako 2.846 lagun bizi dira Iruñean.

1.245

■ **Bilboko gizarte laguntzen banaketan izan diren irregulartasunak.** Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzaren Arloan lehen sei hilabetean eman diren gizarte laguntzetatik 1.245 ikertzen ari dira, irregulartasunik izan den ebazteko. Oraingoan, 669 kasu aztertu dituzte, eta 249 laguni diru sarrerak bermatzeko errenta kendu diete, baldintzak ez betetzeagatik.



Tomas Gomezen adibidearekin, Lopezek ikasi behar du Zapaterori plantoa eginda ez dela ezer gertatzen»

ANTONIO BASAGOITI
EAEko PPreh lehendakaria

ETA jardunean eta lozorroan dago. Horregatik, onena sugari burua moztea da»

ENRIQUE PAMIES
Espainiako Poliziaren EAEko arduraduna

Trebiñuko gizon bat bahitzeko erabilitako furgoneta oraindik ez du aurkitu Guardia Zibilak

Erredakzioa Gasteiz

Guardia Zibilak Trebiñun (Araba) izandako bahiketa ikertzen jarraitzen du. Espainiako Gobernuak Burgosen duen ordezkariak jakitera eman duenez, 40 urteko gizona da bahitutakoa. Igande goizean izan zen gertaera. Ustez lau gizonen furgoneta batean sartu zuten biktima. Gizonaren bikotekidea bizilagunengana irten zen laguntza eske, baina ordurako erama zuten. Guardia Zibila furgonetaren eta han inguruan zebilen beste auto baten bila ari da, baina oraingoan ez dute aurkitu. Bahitu duten gizona, berez, Bizkaikoa da. Baina urte erdia zeraman Trebiñuko Doroño II etxebizitza multzoan, bikotekidearekin eta beste gizonetako batekin alokairuan bizi zuten. Lehen ikerketen arabera, gertatutakoa kontu garbiketa izan da. Dena den, lekuko bila jarraitzen dute.

Frantziako Estatuko gazte iraultzaileekin bilduko da Segi datorren astean

Jenofa Berhokoirigoin Baiona

Gazte iraultzaileen topaketak antolatuz, kapitalismoaren eta kolonialismoaren aurkako borrokan jarduten duten Frantziako Estatuko bederatzi gazte taldeekin bilduko da Segi, datorren astean. Sistema kapitalistan gazteek duten tokiaz ala proiektu iraultzaileak, hamaika gairen inguruan izango dituzte trukaketak. Barne gogoeta horiez gain, hainbat ekitaldi irekiko dizkiete herritarrei. Hala nola asteazkenean Bolognako hitzarmenari buruzko hitzaldia egingo dute Baionan, eta ostegunean erakunde bakoitzarekin topatzeko aukera eskainiko dute Uztaritzen (Lapurdi).

Larunbatean Azkainen (Lapurdi) antolatu Altxamendu Egunaren kari, bazkari, hitz hartze eta kontzertuak izango dira, *Estatu zapaltzaileen aurrean altxa gaitze*en lelopean.

Irudia > Beasain



CAF-EKOEK ELKARTASUNA UDALBILTZARI


Cafeko langileek elkarretaratzea egin zuten atzo, Beasaingo lantegiaren aurrean, *Udalbiltza auzian* egunotan Madrilan epaitzen ari diren hogeitau lagunei elkartasuna adierazteko. Urko Iratzortza auzipetuak enpresa horretan egiten du lan. Langile

batzordeak onartutako testuan, auzia salatu dute batetik, eta bestetik, haren akusazioa erretiratze eskatu diote Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzari. Gainera, *Egunkaria auzian* gertatu gisara, auzipetu guztiak libre uzteko eskatu dute. **BERRIA**

Laburrean



↓ Langabezia Hego Euskal Herrian, SPEEren arabera



Herrialdeka

○ Abuztua ● Iraila

ARABA

Tasa %12,52

↑436 Langabe gehiago

○ 19.818

● 20.254

BIZKAIA

Tasa %12,87

↑644 Langabe gehiago

○ 70.747

● 71.391

GIPUZKOA

Tasa %11,47

↑176 Langabe gehiago

○ 38.728

● 38.904

NAFARROA

Tasa %13,28

↑508 Langabe gehiago

○ 40.866

● 41.374

Aldea

2009ko iraila-2010eko iraila

ARABA

↑1.546 Langabe gehiago

(%8,26)

BIZKAIA

↑3.904 Langabe gehiago

(%5,78)

GIPUZKOA

↑1.705 Langabe gehiago

(%4,58)

NAFARROA

↑4.021 Langabe gehiago

(%10,76)

ITURRIA: ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA (SPEE)

Langabeziaren igoerak agerian utzi du krisiaren ondorioak ez direla amaitu

Irailan, beste 1.764 lagunek izena eman dute Hego Euskal Herriko enplegu zerbitzu publikoetan, eta ia 172.000 langabe daude

Lehman Brothersek duela bi urte porrot egin zuenean baino 64.000 gehiago dira

Ivan Santamaria

Krisi ekonomikoaren amaierari buruzko interpretaziorik baiko- rrenak hankaz gora jarri ditu langabeziaren datuak. Irailan berri- ro ere gora egin zuen langabe kopuruak Hego Euskal Herrian. Hazkunde txikia izan da —%1 baino ez—, baina joera kezkagarria da: 2007ra arte, udaren ond- tik enplegua sortzen hasteko gar- ai aproposa izan ohi zen iraila.

Datu makroekonomikoetan oi- narrituta, krisia gaitutuz jo zuen orain dela aste batzuk Carlos Agirre Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailbu- ruak. Ondoren, Patxi Lopez lehendakariak jarrera hori leundu zuen, eta krisia gaituzteko «ha- siera» dela aipatu zuen. Langabe- ziaren gorakadak gobernu bes- telako interpretazio bat egitera behartu zuen atzo. «Langabezia- ren datuak agerian utzi du krisi egoerak jarraitzen duela», onartu zuen Enplegu eta Gizarte Gaieta- ko Sailak, ohar baten bidez.

Langabe kopuruaren igoerak ez dira iazkoak bezain esangura- tsuak, baina ekonomiaren haz- kunde motela ez da gai lanpos- tuak jarraian sortzeko. Galduta- ko enplegua berriro lortzea da orain erronka. Orain dela bi urte

Lehman Brothers bankuak por- rot egin eta krisiak ekonomia errelera jauzi egin zuenean bai- no 64.000 langabe gehiago daude gaur egun Hegoaldean.

Irailan herrialde guztietan handitu zen langabezia. Hazkun- derik adierazgarriena, bigarren hilabetez jarraian, Arabak jasan zuen (% 2,2). Hala ere, tasarik handiena Nafarroak du, ia krisia hasi zenetik gertatu den gisara: populazio aktiboaren %13,28k ez dute lanik.

Negoiazio kolektiboa geldirik dago; 433.000 langilek ez dute oraindik laneko hitzarmena berritu

I.S.

Lanean jarraitzen duten pertso- nentzat ere krisiaren ondorioak ez dira samurrak. Lan Harreman- en Kontseiluak Araba, Bizkai eta Gipuzkoan abuztu arte nego- ziatu diren lan itunen berri eman



Langabeak, enplegu zerbitzuen bulego baten aurrean. JUANJO MARTIN / EFE

Enplegu zerbitzuen bulegoeta- ra lan bila doazen emakumeen kopuru handitu da batez ere. Hala, joan den hilabetean izena eman zuten langabeen %78 emakume-

ak ziren. Urtea hasi zenetik indar- tu da joera hori, gainera. Abendu- tik hona beharrik gabe dauden gi- zonen kopurua %3,3 gutxitu da. Tarte horretan, ordea, langabe-

zian dauden emakumeen kopu- rua %7 baino gehiago handitu da.

Eraikuntzan, industrian eta nekazaritzan langabezia murriz- tu bazen ere, ez zen izan zerbitzue- tan izandako igoera berdintzeko adina. Lehen enpleguaren bila ari direnen kopurua ere handitu zen irailan. Industria da joan den ur-

Industria da joan den urtetik langabe kopurua gutxitu duen sektore bakarra

Irailan lana bilatzeko izena eman zuten langabeen %78 emakumeak ziren

teko hilabete berean baino langa- be gutxiago izatea lortu duen sek- tore bakarra.

Erreformaren arrastorik ez

Kontratazioaren emaitzetan ez da oraingoz lan erreformaren era- ginik nabari. 2009ko irailan bai- no 5.000 kontratu gehiago egin zi- ren, baina soilik aldi baterakoak handitu dira. Aurtengo irailan sinatutako kontratu guztietatik %8 baino ez ziren mugagabeak. Espainiako Gobernuak lan erre- forman bultzatu nahi duen eredu- tik —kontratazio mugagabea sus- tatzeko kontratua— 949 sinatu zi- ren, ehunetik bat, alegia.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako langabeen egoerari buruzko bes- te datuen bat eman zuen Jaurlar- itzak. Gaur egun, 45.000 lagun epe luzeko langabeak dira. Hots, urte bat edo gehiago lan egin gabe daramate. Hegoaldeko langabe- en %43k soilik dute kotizatutako- aren arabera langabezia saria jasotzeko eskubidea.

Erreakzioen artean, gobernuei lanpostuak sortzeko helburuari uko egin izana egotzi zien ELAK. LABek, berriz, gazteen langabe- ziaren hazkundera salatzen duen. «Errealitate hori ikusita, PSOEek, EAJk eta beste lankideek laneko bizitza luzatzea nahi dute». Con- febask patronalak «sasoikako arrazoiei» egotzi zien igoera.

Soldata hazkundera ia izozturik daude

du. Akordio horretan hitzartu den soldata igoera inoizko eskase- na da: %0,85.

Datua EAEn sinatu diren akor- dioei nahiz Espainian sinatu eta EAEn eragina izango duten lan itunei dagokie. Iaz, esaterako, ba- tez beste adostu zen igoera %2,69 izan zen. Araba, Bizkai eta Gipuz- koan negoziatzen diren akordio- ak onuragarriagoak dira langile- entzat: %1,3ko igoera. Gipuzkoan halako bi da, gainera.

Lan ordutegia estutu da, hala- ber. Aurretik indarrean zeuden lan itunek 1.704 orduko lanaldia

hitzartuta zuten, guztira. Aurten, dagoeneko, 21 lan ordu gehiago dira. Igoera txikiagoa da soilik Araba, Bizkai eta Gipuzkoan si- natu direnak aintzat hartuta. Ho- rien kasuan, urteko batez besteko lanaldia bederatzi ordu luzatu da.


Itun gehienak berritu gabe

Soldata hazkunde txikiak eta la- naldiaren igoera islatzen dute 2010eko abuztu arte itxi diren lan itunek. Alta, argazkia ez dagoera- bat osatuta. Izan ere, negoziazio kolektiboa ia erabat geldirik dago. 600 itun sinatu gabe daude

oraindik, aurten berritu behar zi- ren hamarretik zortzi.

Hori dela eta, negoziazio kolek- tiboaren estaldura duten langile gehienek hitzarmena berritu gabe dute oraindik, 443.000 lagu- nek, hain zuzen ere. Indarrean zeuden itunek eta aurten sinatu- taokoe 200.000 langileren baldin- tzak arautzen dituzte.

Negoiazio kolektiboaren para- lisiari beste faktore bat gehitu zaio: datozen hilabeteotan hau- teskunde sindikalen parterik gar- rantzitsuen egingo da EAEko lantokietan.



Aralarko hogeitaz artzain inguruk agerraldia egin zuten atzo, EHNEko kideekin batera. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

EHNE: «Aralarko artaldean osasuna arriskuan jarri du diputazioaren utzikeriak»

Artzainak kezkatuta daude kanpaina pasatu gabeko abereek gaitzak zabaldu ditzaketelako, iaz gertatu bezala

Miren Garate Donostia

Kontrolatu gabeko abereen erruz Aralarko artaldean osasuna arriskuan dagoela salatu du Gipuzkoako EHNEk. Diputazioa jo du egoeraren erantzulez, «abere batzuk kontrolik pasatu ez dutela jakin arren beste aldera begirteagatik».

Aralarren ibiltzen diren hogei-eren bat artzainek agerraldia egin zuten atzo Donostian. Gipuzkoako Diputazioak mendiko abeltzaintza jartzeko duen araudia «oso zorrotza» dela azaldu zuten. Artaldeetako animalia kopurua zehazteaz gain, zein arrazako abereak egon behar duten zehazten du. Aralarko kasuan, ardi latxa mutur gorriek dute baimena. Halaber, beharrezkoa da mendira iago aurretik artalde guztietako

ahari guztiei odola ateratzea eta abeltzaintza zerbitzuko datu bazean izema ematea.

Udaberrian igo ohi dira artzainak Aralarrera. Maiatzean, kontrolatu gabeko eta kanpaina pasatu gabeko ardiak aurkitu zituztela azaldu dute Iñaki Lazaro baster Gipuzkoako EHNEko presidentek eta Jon Murgiondo sindikatuko artzaintza ardudunak. «Hasieratik eman zieten

120 ahari kendu behar izan zituzten artzainek 'Brucella ovis' gaitzaren eraginez

egoeraren berri Foru Aldundiko ardudunari, beharrezko neurriak har zituzten, baina ez dute erantzunik eman», azaldu du Lazaro basterrek.

Enirio-Aralar mankomunitateko buruari jakinarazi zioten egoera lehenbizi, eta basozainari ondoren. Beharrezko neurriak hartu ez zituztela iritzita, Carlos Boix abeltzaintza zerbitzuko buruari eta Jose Luis Korkostegi Inguru-

men Saileko ardudunari eman zioten egoeraren berri ondoren. Erantzunik jaso ez zuten, abuztuan, Rafa Uribarren Nekazartza diputatuari idatzi zioten. «Isiltasun administratibo horrek diputazioaren axolagabekeria uzten du agerian», salatu dute.

Artzainak gaitzasunaren beldur dira, kanpaina pasatu gabeko ardiek han jarraitzen dutelako. Iazko kasua aipatu dute. *Brucella ovis* gaitzak —gizakiak ez dira kutsatzen— eragin zuten Aralarko artaldei. 120 ahari kendu egin behar izan zituzten artzainek, eta ardi asko ez ziren ernai geratu. «Kalte ekonomikoaz gain, artzain bakoitzak bere artaldea genetiko-ki hobetzeko egiten duen ahalegina ezerezean geratzen da ahariak kentzean», azaldu dute.

Animaliak menditik jaistean ikusiko da gaixorik dauden edo ez. Hala ere, sindikatuaren iritziz, «irtenbidea ez da gaixorik daudenak kendu eta diru laguntzak bantzea, prebentzioa baizik». Aralarren Gipuzkoako berrogei artzain inguru aritzen dira, eta 18.000 ardi dituzte.

CEOEko bozak deitzera behartu dute Diaz Ferran

Hauteskundeetara aurkezteko asmoa duela aitortu die ingurukoei; ofizialki, oraindik ez du ezer adierazi

Aitziber Arzallus

Gerardo Diaz Ferran Espainiako patronaleko (CEOE) presidentek hauteskundeetara deituko du, bere ondorengo izendatzeko. Elkarteko 21 presidenteordeei atzo eguerdian eman zien erabakiaren berri, eta urriaren 20an jakinaraziko die batzorde exekutiboko eta zuzendaritza batzordeko gainerako kideei. Haiek ados badaude, hauteskundeetarako eguna zehaztea besterik ez da faltako.

Denbora kontua zirudien, eta azkenean amore eman behar izan du. Ezin izan die eutsi kargutik kanpo ikusi nahi dutenen presioei. Eta berez 2013ra arte iraun behar zuen, baina agintaldia bukatzea erabaki du. Baina litekeena da agurtu beharrik ez izatea, bozetara aurkezteko asmoa duela aitortu baitie ingurukoei. Ofizialki ez du ezer adierazi.

Azken hilabeteak ez dira batere gozoak izan Diaz Ferranentzat. Ia egunero agertu da egunkarietako tituluetan, baina ez bere lorpe-

nengatik, bere enpresetan egindako kudeaketa kaskarragatik baizik. Izan ere, patronaleko presidentez gain, enpresaburua ere bada Diaz Ferran. Dozenaka enpresa ditu, eta azkenaldian porrot egin dute haietako zenbaitek, Marsans bidaia agentzien taldeak eta Air Comet hegazkin konpainiak besteren artean. Ehunka lagun lanik gabe geratu dira, eta baldintza txarretan, jakinarazi dutenez. Horrek, jendaurrean duen irudiari kalte handia egin dio, patronaleko burua, enpresaburu eredugarria izan behar lukeena, kontrakoa dela ikusi delako.

Enpresarioen buruak irudi txarra emateak elkarre osoari kalte egiten diola uste dute CEOEko buruzagitzako gainerako kidek. Hain zuzen, kargua utzi eta hauteskundeetara deitzeko eskatze-koak ziren atzoko bazkarian. Eta lortu zuten nahi zutena.

Arratsaldean, patronaleko zuzendaritzak prentsa ohar bat kaleratu zuen gertatutakoaren berri emateko. Oharraren arabera, presidenteordeek oso ontzat jo dute Diaz Ferranek patronalaren zuzendaritzan egindako lanaz. «Kudeaketa gardena, modernizatzen egindako lana eta CEOEko ordezkagaitasuna zabaldu izana» nabarmendu zituzten, besteak beste.

→ Laburrak

Fitchek kalifikazioa jaitsi die Vital Kutzaren kredituei

GASTEIZ Fitch kalifikazio agentziaren irudiko, okerrera egin du Vital Kutzaren maileguren kalitateak. Luzerako zorrak, esaterako, A kalifikazioa zuten lehen, eta A- orain. Aurrezki kutxak bere maileguren kalitatea defendatu du.

Erretren erreforma gaur iritsiko da Senatura

BAIONA Gaur hasiko dira Frantziako Senatuan erretren erreforma aztertzen. Nahiz eta François Fillon lehen ministroak erran al daketak «posible» direla, argi utzia dute erretiratzeko adina 60 urtetik 62ra atzeratuko dutela. Sindikatuak senatariekin harremanetan dira, batez ere zentrokoekin, eskuinak haien bozak beharrezkoa dituelako erreforma pasarazteko. Erabat legearen aurka agertua da ezkerria.

Euskal Herrian Euskaraz Bizi!
Euskal Herri euskalduna eraiki!

ASTE BETEKO EGONALDIA
eta BIDAIA BI LAGUNTZAT
FLANDRIAN

www.kultour.com

KULTOUR

Saridun Zkia: **17.977**

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

IRAGARKIA

2010eko urriaren 7an etxebizitza-leslependunak hautatzeko zozketa egingo da ondoko etxebizitza sustapenean:

► **Abadiño:**
69 babes ofizialeko etxebizitza, erosketan.

2010eko urriaren 7an, osteguna, 12:00etan, Abadiñon, Udal Probalekuan.

www.etxebide.info

Iñaki Arriola López
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua

ETXEBIDE
ERREKUPERO ETXEBIZITZA
ERREKUPERO ERREKUPERO
ERREKUPERO ERREKUPERO

ERROTA
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN ZAINZAILEAK

Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

Ekologistek erabakiko dute bigarren itzulua Brasilen

Marina Silvaren Alderdi Berdeak eman du ezustekoa presidentetzako bozetan, botoen %20 eskuratuta

Dilma Rousseffek ingurumen eskaerak aintzat hartu beharko ditu, irabazi nahi badu

Amagoia Mujika


Kanpainaren azken txanpan, PT Langileen Alderdiko ordezkarien kontrako ustelkeria ateratzea izan da, adituen ustez, Dilma Rousseffek —botoen %46,56— presidentetza lehen itzulian ez eskuratzeko arrazoi nagusietako bat; beste bat, ustelkeria kasu horiek direla-eta Brasilgo komunikabideekin Luiz Inacio da Silva *Lulak* izan duen borroka —komunikabide gehienak oposizioko PSDB alderdiaren ondoan jarri dira—. Bigarren itzulira igarotzea lortu du PSDBko Jose Serrak (%32,71), eta bai eskuina, baita ezkerre ere Marina Silvaren botoei begira jarri dira (%19,51): PV Alderdi Berdearen ordezkariak ez du ezkutatu poztasuna. Inkestak %10 inguruan jarri izan diote babes kopurua, eta azken egunetan %5ean. Hori izan da ezustekorik handiena, eta euren estrategia erabakitze gaur bertan lanean hasiko direla esan du; bi hautagaiek bere agenda kontuan hartu beharko dutela ere bai, berdeen babesaren truke.

Gobernuko PT alderdiaren boto-emaileen kontzientzia kritikoa bilakatu da Silva, *Lulak* bideratu dituen politika liberalekin ados ez dauden ezkeriarrena. *Lularen* Ingurumen ministro izan zen 2008 arte, baina dimisioa eman zuen, presidentek Amazonian bideratu dituen industria eta energia proiektuen ondorioz. Hala ere, Serrarengandik baino gertuago dago Rousseffengandik, baina ez dio babes besterik gabe emango. Andre Pereira Cesar analistaren ustez, «ez du sekula Serraren aldeko botoa emango, baina berari botoa eman diotenen artean PTrekin oso haserre dagoen jende asko dago, eta gobernua zigor dezakete egin dituen ingurumen politikengatik». Urriaren 31 arteko epea dute bi hautagaiek boto horiek bereganatzeko.

Rousseffena garaipen handia den arren, gazi-goza izan dela

↓ Emaitzak

Parte-hartzea: %82



esaten ari dira, *Lularen* ganako herritarren %80en babes ez duela baliatzen jakin. Atzo bertan, eta kanpainan egin bezala, *Lulak* gogorarazi zuen bera bigarren itzulian aukeratu dutela bi hautagundeetan.

Oposizioaren garaipenak

Atzoko hauteskundeetan presidentetza baino gehiago egon da jokoan: 27 gobernadore, 513 diputatu eta 54 senatari aukeratu dituzte brasildarrek, eta ehunka udal ordezkari. Brasilgo bi estaturik jendetsuenak PSDB kontserbadorearen esku geratu dira: Sao Paulo eta Minas Gerais. PTren garaipen esanguratsua, berriz, Rio Grande do Sulgoa izan da, eta Rio de Janeiro PTren aliatuen esku geratu da, PMDBren esku. Hamar estatutan —Brasilia barne— bigarren itzulian erabakiko dute nor gobernaturiko duen.

Diputatuen eta Senatuen kasuan, berriz, PMDB alderdiak lortu du boto gehien, baina alderdi horrek ez du presidentetzarako hautagairik aurkeztzen, eta garaiarekin negoziatzen du bere boterea. Beraz, *Lularen* aliatu izan direnak Rousseffek alde jarri dira orain, Michel Temer presidenteordea barne. Legebiltzarrean PTK 513 diputatuetatik 380ren babes du, eserlekuen %78.



Marina Silva Brasilgo PV alderdi berdearen ordezkaria bozen balorazioa egiten, atzo, Sao Paulon. MARCOS ALVES / EFE

↓ Soslaiak

Dilma Rousseff «Presidentearen laguna»

PSDB oposizioko taldeak telebistan, iragarki batean, lan bila dabilen emakumea erakutsi du, Dilma Rousseffek antzekoa (Belo Horizonte, 1947). *Curriculum*a gezurrez jostez eta merkatarik eskasa izateaz akusatu ondoren, hauxe esaten du emakumeak: «Barkatu, baina presidentearen laguna naiz». Hala ere, merkatarik txar bat baino zerbait gehiago ikusi zuen Luiz Inacio da Silva *Lulak* ezagutu zuenean, 2002an. «Nire gobernurako ministro bat topatu dut», pentsatu zuen. *Lula* presidente hautatu zutenean, Energia ministro izendatu zuen, denen ezusteko, eta handik bi urtera Presidentetzako Ministerioko arduradun. Bizkorra, langile amorratua, gogorra eta gauzak lortzen dituen delako aukeratu zuen *Lulak*, ezustean orduan ere.

Rousseffek Nietzschek esaldi bat asko gustatzen zaio: «Hiltzen ez zaituenak indarra ematen dizu», eta bere ibilbidea bada horren isla. Preso politikoa hiru urtean, 22 egunetz torturak jasandakoa eta loraldi politikorekin bat minbizi linfatikoari aurre egin izana dauzka bere gain, baita generoaren aurreiritzien kontra borrokatu behar izatea ere, oso matxista den herri batean.

Lan egiteko eta ikasteko gaitasuna duela esaten dute. Zolaren eta Dovstoeskiren irakurle nekazaria da, eta horrenbeste existentzialismok, aitaren bizitzeko sobietar munduaren eza-guerak —bulgariar komunista zuten aita— eta 1968ko mugimenduak militantzia politikora eta armatura bideratu zuten, Belo Horizonteko Ekonomia Fakultatea zapaldu bezain pronto.

Polop eta Colina taldeetan aritu zen lehenik, eta horiek bat egindako Palmares taldean gero —70eko hamarkadan Brasilgo gerrillari talderik sendoenetako bat—, baina ez dago argi zenbaterainoko partaidetza izan zuen. Batzuek diote buruzagia zela. *Veja* aldizkari eskuindarraren arabera, 1969an Sao Pauloko gobernadorearen mai-talearen etxeko ekintzan parte hartu zuen. Dioenez, lapurtu zituzten 2,5 milioi dolar zeramatzaten ekintzaileei ihes egiten lagundu zien. Hamarkada batzuk geroago oroitzen hori lausotua duela esaten du.

Gerrillari iragan hori gorabehera, espetxetik atera ostean ekonomia ikasketetan sakondu zuen, eta Brasilgo garapenaren ardatz diren oinarri programati-koak ikertu zituen. Porto Alegreko gobernuan Energia Ministerioan egindako lanak eman zion prestigioa eta aukera *Lularen* ondoan lan egiteko. Orain ere ondo-ondoan dauka laguna. ■ **A.M.**

Jose Serra Bizitza osoa presidente izateko

Jose Serrak (Sao Paulo, 1942) bizitza osoa presidente izateko lanean egin duela esaten du, bere ametsa ez lortzeko aukera asko dituen arren. Hau du azken aukera, besterik ez baitote emango alderdian. Politikari garden eta justuaren irudia ematen du; gobernuaren ustezko ustelkeria du aliatu onena bozak irabazteko, baina Brasilgo enpresari kontserbadoreen aldeko jarrerak pobreen babes kendu dio.

«Brasilgo estatu kolpetik bizirik iraun dut, baita Txilekotik ere», nabarmendu izan du alde ezkeriarrena ateratzerakoan.

Oposizioak eskuin neoliberalaren parte gisa aurkeztu du, eta Sebastian Piñera Txileko presidente eskuindarraren gertuko izatea ere kritikatu diote.

Militantzia politikoa duela hogeitau urte hasi zuen, Eliza katolikari lotutako AP ezkerreko taldea sortzen lagundu zuenean, eta 1964ko Joan Goularten diktadurarekin erbesteratu behar izan zuen. Txilen amaitu zituen ekonomia ikasketak, baina handik ere alde egin behar izan zuen 1973an, Augusto Pinochetek etorrerarekin. Brasileren 1977an itzuli zen, eta 1986an Legebiltzarrean eserleku bat lortu zuen

PMDB Brasilgo Mugimendu Demokratikoaren Alderdiarekin; baina bi urte geroago utzi egin zuen desadostasunengatik, eta alderdia utzitako beste batzuekin sortu zuen PSDB sozialdemokraten alderdia.

Cardoso presidentearekin lan egin zuen 1999an, baina publikoki kritikatu zuen haren ekonomia politika zorrotza. Gobernua utzi, eta Sao Pauloko alkatezarako aurkeztu zen, baina galdu eta gobernura itzuli zen. Osasun Ministerioan egindako lanari esker ospe handia lortu zuen, baina ezin izan zion irabazi *Lulari* presidentetzarako bozetan. 2006an Sao Paulo Brasilgo estatutik boteretsuneko gobernadore egin zuten, eta joan den maiatzean utzi zuen kargua, abentura berrirako. ■ **A.M.**



Geert Wildersek egindako adierazpenen aurkako protesta, atzo, Amsterdamgo auzitegiaren kanpoaldean. KOEN VAN WEEL / EFE

Herbehereetako eskuin muturreko buruak dio ez dela esandakoez damu

Musulmanen aurkako adierazpenak egin zituelako epaituko dute Wilders; gaur ekingo diote berriro epaiketari

Allande Sokarros

Herbehereetako eskuin muturreko buruzagi Geert Wildersen aurkako auzia hasi orduko atzeratu zuten atzo. Gaur ekingo diote berriro PVV Askatasunaren Alderdiko buruzagi eta diputatuaren aurkako prozesuari, Amsterdamen. Islamaren eta musulmanen

aurka eginiko adierazpenengatik auzipetu dute Wilders. «Arrazen arteko gorrotoa piztea» egotzi dio zehazki Justiziari. Wildersek iritzi dio, aldiz, bere aurkako epaiketari «adierazpen eskubidearen» inguruko dela.

Haren aurkako akusazioak aztertzen hasi aurretik, Wildersek honako hau adierazi zuen atzo: «Nire aurkako auzi honetan gutxienez 1,5 milioi herritarren adierazpen eskubidea dago jokoa». Hala, iragan ekainaren 9an egin zituzten Legebiltzarrerako hauteskundeetan PVV alderdiak lortutako emaitzei erreferentzia egin die Wildersek. Hauteskunde

haietan eskuin muturreko alderdiak 24 diputatu lortu zituen. Honezker, VVD Alderdi Liberalak eta CDA Alderdi Demokristauak PVVren sostenguen beharra dute. Joan den astean, hain zuzen, koalizio gobernurako akordioa sinatu zuten: liberalak eta demokristauak agintean egongo dira, eta eskuin muturrekoek Parlamentuan emango die babesa, hainbat kontzesioen truk.

Errekusazioa

«Eztabaida publiko batean nire iritzia plazaratu besterik ez dut egin. Eta ziurtatzen ahal dizuet geroan ere halakoak esango ditu-



Nire aurkako auzian gutxienez 1,5 milioi herritarren adierazpen eskubidea dago jokoa»

GEERT WILDERS Herbehereetako Askatasunaren Alderdiko burua

dala», adierazi zuen atzo Wildersek, ez dutela isilduko adierazteko asmoz. Izan ere, eskuin muturreko politikariaren esanetan, «demokraziak eztabaida ireki eta askeen beharra dauka, bereziki gai minberei dagokienez».

Alabaina, hitzurre hori egin ondoren, Wildersek zehaztu zuen beste ezer ez duela esango prozesua martxan den bitartean. Jarra hori ikusita, epaimahaiko presidentek adierazi zion berari egingako galderak ez lituzkeela erasotzat hartu behar. Aurrez galderari behar bezala ez erantzutea ere egotzi zion magistratuak Wildersi. Haren ustez, baina, epailearen hitzak «desegokiak» izan dira, baita «lotsagarriak» ere. Horregatik, epaimahaiko presidentea aldatzeko eskatu du eskuin muturreko buruzagiak. Wildersen eta haren defentsaren eskaria aztertzeko xedean, epaiketari gaur arte etetea erabaki zuten.

Auzitara eraman duten adierazpenak 2006. eta 2008. urteen bitartean eginikoak dira. Herbehereetako hainbat hedabidetan eta Interneteko foroetan islamaren aurkako eta sinestun musulmanen kontrako hitzak zabaldu zituen eskuin muturreko politikariak. Haren irudiko, Adolf Hitlerrek idatzitako *Mein Kampf* liburuaren antzeko zerbait da Korana. 2008an eginiko *Fitna* film laburrean, berriz, Korana indarriara bultzatzen duen obra baten gisa aurkeztu zuen Wildersek. Koraneko zenbait atal ekintzaile islamistegi egotzen dizkieten atentatuen irudiekin batera jaso zituen filmean. Erruduntzat jotzen badute, Wildersek urtebeteko espetxe zigorra bete eta 7.600 euroko isuna ordaindu beharko du.

Bosniako bozek agerian utzi dute komunitateen arteko zatiketa

Serbiar Errepublikan ez dute nahi instituzio bateratuak sendotzea; kroaziar-musulman federazioan, ordea, bai

Erredakzioa

Bosnia-Herzegovinan igandean egin ziren hauteskundeetan emaitzek agerian utzi dute 1995. urtean Daytongo akordioetan finkatutako egoera politikoak ez duela horrenbesteko hobekuntzarik izan. Orain dela 15 urte, nazioartekak estatu honetako hiru giza taldeak —kroaziarren, musulmanen eta serbiarren— elkarrekin bizitzera behartu zituenetik, agerian da ez dela urratsik egin bategite honen sendotzean.

Bosniako presidentetza bateratua osatzen duten hiru komunitate

teetako agintariak aukeratu behar zituzten igandean. Horrez gain, baina, RS Serbiar Errepublikako eta Federazio Kroaziar-Musulmanen Parlamentuak eraberritzeak ziren. RSn, berriz, eskualdeko presidentea bera ere hautatzekoa zen.

Herrialdeko presidentetza bateratuko ordezkarien hautatzeari dagokionez, musulmanek Bakir Izetbegovic eman diote babesa. Hau da, Bosniako gerra garaian Bosniako presidentea kargutuan zegoena eta Daytongo akordioetan sinatzailetako bat izan zen Alija Izetbegovic zenaren semea. Bosniako kroaziarren izenean, aldiz, orain arte presidentetza bateratuan zegoen Zeljko Komsicek jardun horretan eusteko aukera du, behin-behineko botoen arabera.

Serbiarren ordezkaria hautatzeko bozketetan, ordea, kalapita giroa sortu da, iruzur salaketak

izan dira eta. Behin-behineko emaitzek aurrean jarri dute orain arte kargu horretan egon den Nebojsa Radmanovic, botoen %49,9 lortu baititu. Bigarren lekuan, Mladen Ivanic da; botoen %47 lortu baititu. Arazoa da, baina, Hauteskunde Batzordeak jakinarazi duela bozen %13,2 «zalantzakoa» liratekeela. Hortaz, atzo iluntzera artean, Radmanovicen hautaketa ez zen egiaztatu.

RSn, Milora Dodik aurrean

RS Serbiar Errepublikako presidentea ere hautatzekoa zen igandean. Bozketan horretan orain arte lehen ministro kargutuan zen Milora Dodik atera da garaile, bozen %53 lortuta. Dodikek arbuio egin dio Bosniaren batasuna sendotzeari, ez ordea RS indartzeari. Bi entitate konfederatuen etorkizuna, beraz, nekeza izango da zatiketari erreparatuz gero.

Belgikako Gobernuaren osatzeko negoziazioak eten ditu N-VAk

Erredakzioa

Belgikan iragan ekainaren 13ko hauteskunde federalen emaitzek utzitako egoera politiko korapilatsua ez da oraindik konpontzekotan. Ezen, orduz geroz gobernu federala eratzeko helburua duten indar politikoaren arteko negoziatioetatik alde egitea erabaki zuen atzo N-VA Flandriako alderdi independentistak.

Flandriako Aliantza Berriko buru Bart De Weverrek azaldu du alderdi frantses-hiztunek ez die tala «inolakako erantzunik eman» flandriar indar politikoek eskualdeen autonomia garatzeko asmoz egin dizkieten proposamenei. «Hizketa hauek ez zihozazen inora», esan du De Weverrek.

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. Iragarkia

Administrazio Kontseiluak, 2010eko irailaren 24ean burutu bilkuran 5 informatzaile, 2 ingurumen teknikari eta 2 koordinatzaile kontratatzeko oinarriak eta prozedurak onartu ditu.

Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak, prozesuaren nolakotasuna, **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**, eskabideak eta oinarriak Garbitaniako bulego nagusian daude eskuragarri (Puntapax kalea 10 behea, 20170 Usurbil. Goizeko 9:00etatik 14:00k bitarte).

Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea urriaren 12an, asteartea amaituko da. Postu bakoitzeko erreferentziak argi azalduta. Erreferentziak honako hauek dira:

- 1) Teknikarirako. Erref. Inguru Garbi
- 2) Koordinatzaileerako. Erref. Koordinatzaile Garbi
- 3) Informatzaile posturako. Erref. Informatzaile Garbi

Biltzaileentzat epe muga urriaren 15a izango da eta erabili beharreko erreferentzia honakoa:

- 1) Biltzaileerako. Erref. Biltzaile Garbi

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. Administrazio Kontseiluaren Idazkaria. Marian Beñalarrangolia Lizarralde.

Polizien matxinada eragin zuen neurria onartu dute Ekuadorren

Batzar Nazionalak aho batez onartu du polizia eta militarrei pizgarriak murrizten dizkien lege proiektua

Erredakzioa

Ekuadorko Batzar Nazionalak iragan asteko matxinada eragin zuen lege proiektua aho batez onartu zuen atzo. Polizia eta militarrei hainbat pizgarri murriztea dakar proiektu horrek, eta horregatik matxinatu ziren presidentearen kontra. Rafael Correak estatu kolpe sairotzat jo zuen altxamendu hura, eta bera hiltzeko «B plan» bat ere bazegoela salatu zuen. Iragan asteartean pizgarriak mantentzearen alde agertu ziren batzarreko kideak, baina presidenteak beto eskubidea baliatu zuen, eta biharamunean, asteazkenarekin, ez zuten eskubide horri aurka egiteko aski sostengu jaso. Poliziak horregatik atera ziren kalera ostegunean.

Jose Gualinga buruzagi indigenak, berriz, joan den astean gertatutakoa «show» bat baino ez zela izan salatu du.

Hondurasen gaur egitekoa den bilera nazionalari uko egin dio Zelayak

Lobo presidenteak hainbat alorretako eragileak deitu ditu, elkarrizketa nazionala abiatzeko asmotan

Erredakzioa

Porfirio Lobo Hondurasko presidenteak elkarrizketa nazionala abiatzeko asmoa du gaur herrialdeko hainbat eragileekin. Manuel Zelayak, baina, uko egin dio elkarrizketa horietan parte-hartzeari erbestetik argitara emandako ohar batean —Dominikar Errepublikan dago presidente ohia, haren kontrako estatu kolpearen ondorioz—. Bileraren asmoa zilegi ez den presidentea bizkotzat jotzea dela salatu du oposizioeko Herri Erresistentziaren Fronte Nazionalak. Lobok Batzar Konstituziogilea sustatu nahi duela adierazi du.



Maputxeen aldeko manifestazioa, irailaren 25ean, Concepcionen. GERMAN CASTRO / EFE

Hamar preso maputxek «azken ondorioetaraino» eutsiko diote gose grebari

Txileko Gobernuak dio ez duela egingo eskaintza gehiago; erreforma ez dela aski salatu dute maputxek

Erredakzioa

Txileko hamar preso maputxek «azken ondorioetaraino» eutsiko diote gose grebari. Angol hiriko kartzelan dauden hiru preso eta ospitalean dauden beste zazpi dira protestari eusteko asmoa duten maputxek; beste 28 presoek ostiralean utzi zuten bertan behera greba, iragan uztailearen 12an abiatutako baraualdia. Gobernuak Lege Terroristan hainbat erreforma egin ostean erabaki zuten presoek protesta ekintza amaitzea, baina grebari eutsi dioten presoek salatu dute erreforma horiek ez direla aski.

Augusto Pinochet diktadorearen garaian ezarritako legeak terrorista egiten zituen maputxek, besteak beste, protesta soil bat egiteagatik. Multinazionalak euren lurrak kendu ostean egindako protestengatik daude, bada, maputxe asko kartzelan. Sebastian Piñera presidentek, maputxeen grebak nazioartean eragiten ari den zalaparta tarteko, presoekin negoziatzea onartu zuen, eta horren ondoren etorri da akordioa. Michelle Bacheleten agintaldian ezarritako kereilak bertan behera uztea, protestak terrorismotzat ez jotzea eta epaiketa zibilak eta ez militarrek egitea onartu du Gobernuak.

Grebari eutsi dioten presoek, baina, erreforma horiek ez direla aski salatu dute, besteak beste, epaiketetan babestutako lekukoak izateari eusten diotelako. Hasiaren egiten zituzten aldarrikapenak zabalagoak zirela argudia-

tuta, beste presoek amore eman izana ere deitoratu dute grebari eutsi dioten maputxek. Gobernuak egindako aldaketak, zentzu horretan, itxurazkoak baino ez direla salatu dute, maputxeen oinarriko giza eskubideak urratzen segitzen direla zehaztuta. Indarrez kentzen dizkieten lurrak berreskuratzeko borrokaren atzean autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena ere badagoela jakinarazi dute maputxek.

Gobernuak, bien bitartean, mezu bat luzatu die grebari eutsi dioten presoek eskaintza gehiago ez direla egongo ohartaraziz. Cristian Larroulet Presidentziako ministroak azaldu du akordioa jada iragarri zutela eta, ondorioz, elkarrizketak etenda daudela. Ospitalean dauden presoek, berriz, greba uzteko mehatxuak jaso dituztela salatu dute; Jaime Mañalich Osasun ministroak berak egin dizkie mehatxuak.

→ Laburrak

Afganistango armadan infiltratu dira talibanak

KABUL » NBE Nazio Batuen Erakundeko Afganistango langile ohi batek jakinarazi duenez, talibanak armadan eta Polizian infiltratu dira. NATOko bozeramaile batek, berriz, ezohikoa dela zehaztu du arazo hori ez dagoenik baztertu ez badu ere. Lau urteko epean 140.000 soldadu errekrutatu behar dituzte, eta, antza denez, hori baliatzen ari dira talibanak infiltratzeko.

Uste zena baino petrolio gehiago dago Iraken

BAGDAD » Iraken hasiera batean uste zutena baino petrolio erre-serba handiagoak daudela iragarri dute. Hussein al Shahareshan jakinarazi duenez, 143.000 milioi upel daude, uste zutena baino 28.000 upel gehiago. Lur azpian, berriz, beste 505.000 milioi upel daudela uste dute agintariek.

'Heriotzaren merkataria' ez dute estraditatu

BANGKOK » Viktor Bout heriotzaren merkataria-ren estradizioa eten du orain Thailandiak. Fiskaltzak iruzur eta zuritze salaketak kendu ostean hartu dute erabakia. AEB Ameriketako Estatu Batuek FARCI armak saltzea leporatzen diote Bouti.

Madrilgo sozialistek diote Zapatero ez dela ahuldu

MADRID » Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako Gobernu-ko presidentea ez dela ahuldu esan du Madrilgo Alderdi Sozialistak. Tomas Gomez nagusitu da alderdiko bozetan, Trinidad Jimenezen aurrean —Zapateroren hautagaia zen—.

MONDRAGON LINGUA, S.COOP.
(KOOPERATIBA BEREGANATZAILEA)
IKASONDO, S.L.U.
(ENPRESA BEREGANATUA)
Bat-egiteari buruzko iragarkia

Aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera, 2010eko irailaren 30ean, MONDRAGON LINGUA, S.COOP. eta IKASONDO, S.L.U. sozietateen Batzar Nagusiak eta bazkide bakarrak, hurrenez hurren, MONDRAGON LINGUA, S.COOP. kooperatibak IKASONDO, S.L.U. sozietatearen gain egindako absortzio bidezko bat-egitearen inguruko akordioak hartu direla jakitera ematen da, 2010eko ekainaren 30ean itxiatuak bat-egite balantzeak onartuz eta 2010eko abuztuaren 5an Euskadiko Kooperatiben Erregistroan eta 2010eko abuztuaren 2an Gipuzkoako Erregistro Merkantilean gordailatutako Bat-egite Proiektura egokitu, guzti hau IKASONDO, S.L.U. likidaziorik gabe desegin eta bere ondare guztia osotasunean eta unibertsalki MONDRAGON LINGUA, S.COOP. sozietatera eskualdatuz.

Halaber, espresuki jakinarazten da bazkideek eta hartzekodunek eskubidea dutela adostutako akordioaren testua eta bat-egite balantzeak eskuratzeko, baita hartzekodunek bat-egitearen aurka egiteko eskubidea dutela eta bazkideek kooperatibatik ateratzeko ere, aplikagarri den araudian ezarritako moduan.

Arrasate-Mondragon-en, 2010eko urriaren 1ean.
MONDRAGON LINGUA, S.COOP. eta IKASONDO, S.L.U. sozietateen Kontseilu Errektoreko Lehendakariak eta administratzaile bakarrak

berriak harpidedunen fideltasuna saritu nahi du!!!

Urriaren 11n,

BERRIAko harpidedunen artean,

Nafarroa Oinez-eko 20 produktu sorta zuzenean zozkatuko dira.

Pedro Luis
conservas artesanas




HARPIDEDUN IZATEAREKIN NAHIKOA DA.
erraza, ezta?

Saridunen izenak urriaren 12an argitaratuko dira egunkarian.



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Kirola >



Claudio Bravo, irribarretsu, joan zen larunbatean, Espanyolen aurkako partida amaitu berritan. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

Onenek egin ez zutena

Realean denetik hamaikagarren erakustaldia eman zuen Bravok Espanyolen aurka

Atezainak garrantzia kendu die laudorioei, eta zehaztu du larunbatekoa ez zela izan txuri-urdinekin jokatu duen lehiarik onena

Xabier Lopetegui Donostia

Txilek atezain onak eman ditu betitik: Sergio Livingstone, Mario Osben, Oscar Wirth eta Roberto Condor Rojas *Condor*, esaterako. Baina futbolzale bati bote lasterreen herrialde hartako jokalaria

ren bat aipatzeko eskatzen baldin bazaio, zaila izango da Marcelo Salas edo Ivan Zamorano ez aukatzea. Bi aurrelari, alegia. Ez da kasualitatea, golak sartzen dituztenak baitira sarritan jokalaria maitatuenak eta gogoan gelditzen direnak. Baina golak saihe-

ten ere badago erabakigarria izatea eta jarraitzaileen gustua egitea. Mende bateko historian, hori erakutsi duten atezain ugari edukitu dituzte Realak. Azkena Txilen jaio zen, hain zuzen ere, eta Claudio Bravo ditu izen-abizenak.

Bosgarren denboraldia du Bravok talde txuri-urdinean, baina azken bietan jo du goia. Egia da aurrenekoan bere mailaren berri eman zuela eta gol gutxi sartu zizkiotela, baina irregulartasuna ere erakutsi zuen, eta Realaren jaitsierak haren jarduna ilundu zuen. Bigarren Mailako lehen sasoian, berriz, Asier Riesgok aurrea hartu zion hasiera-hasiera-

↓ Nortasun agiria

- **Izena.** Claudio Andres Bravo Muñoz.
- **Jaioterria.** Buin (Txile).
- **Jaioteguna.** 1983ko apirilaren 13a.
- **Garaiera.** 1,84 metro.
- **Pisua.** 84 kilo.
- **Postua.** Atezaina
- **Ibilbidea.** Colo Colo (2003-2006) eta Real (2006tik).
- **Partidak Realarekin.** 93 partida jokatu ditu, eta gol bat sartu du.
- **Bestelakoak.** 47 aldiz jokatu du Txileko selekzioarekin. Munduko Kopa batean (aurten) eta bi Amerika Kopatan aritu da (2004an eta 2007an). Aurreko sasoian, Bigarren Mailan gol gutxi sartu zioten atezaina izan zen.

eta ezin izan zion postua kendu, baina kezarik gabe onartu zuen ordezko izatea. Baina Juanma Lilloren bigarren denboraldian eta, batez ere, aurreko sasoian, makina bat erakustaldi eman zuen, eta horiei esker puntu asko lortu zituen Realak. Gimnastici falta jaurtiketa batean sartutako golarekin jo zuen gailurra. Gero min hartu zuen, baina Eñaut Zubikarrik ondo bete zuen haren hutsunea.

Hegoafrikan Munduko Kopa jokatu ondoren, bide beretik jarraitzen du txiletarrak Lehen Mailan. Almeriaren eta, batik bat, Vila-real aurkako norgehiagoketan berebiziko garrantzia izan zuten haren geldituek. Mallorcaren eta Osasunaren aurka, berriz, hotzago aritu zen. Ez zuen zer eginik izan goleko jokaldietan, baina atetik ateratzerakoan ohi baino zaltzatiago zebilela antzeman zitzaion. Deigarria da, ausardi handiko jokalaria baita. Joan den larunbatean, ordea, Bravorik onena itzuli zen: zailtasunak ikusita kiltzen ez dena eta presiopean azken minutuetan bikain erantzuten duena. Zerbaitegatik oihukatuzuten zaleek haren izena Espanyolen aurkako partida bukaeran.

Ordutik jaso duen laudorio zaparradari garrantzia kendu zion atzo: «Garrantzitsuena taldeak irabaztea zen. Aste zaila eduki genuen. Kosta egin zitzaigun, baina balio handiko hiru puntu lortu genituen». Onartu zuen atsegina dela taldeari emaitzari eusten laguntzea: «Horretarako entrenatzen naiz astero. Tristeia izango zen azken minutu horietan gola jasotzea. Gertatu izan zaigu, eta oso mingarria izaten da». Ez du uste Realarekin jokatu duen partidarik onena izan zenik: «Beharbada, inoizko bost minutu onenak bai, lauzpabost aldiz iritsi zirelako. Baina, agian, norgehiagoka osoagoak izan ditut. Egia da pozik joan nintzela, gauza onak egin nituelako».

Gelditu guztien artean, harri-garriena ekarri zioten gogora. Iker Casillasek joan zen denboraldian Sevillari egindako baten antzekoa izan zen. «Baloia gurutzatu zuten area txikian, eta oso urrunetik joan nintzen bila. Agian aurrelariak uste zuen ez nintzela iritsiko, eta gehiegi fidatu zen, baina haren oinetara bota nintzen ahal bezain azkar. Fede kontua izan zen». Hala ere, talde izaera azpimarratu zuen une oro: «Gauza bera gertatzen da aurrekoek asmatu eta golak sartzen dituztenean. Garaipenak denoi esker lortzen dira». Atea hutsean mantendu izanaren garrantzia ere aipatu zuen: «Guretzat egoera berria zen hainbeste partida jarraian galtzea eta hainbeste gol jasotzea, baina lasai geunden, bagenekielako hobetzeko tarte handia geneukala».

Nolanahi ere, defentsan oraindik ere badago zer egina, haren ustetan. «Gu guztion erantzukizuna da, eraso bezala. Hemen ez dago errudunik. Baina aukera dezente sortzen dizkigute eta horretan apur bat ari gara huts egiten». Atsedendia gauzak zuzentzeko ondo etorriko zaiela esan zuen. Txileko selekzioak lagunarteko partidak jokatu behar ditu, baina Donostian geldituko da Bravo, ez dutelako deitu. Hala ere, kezkarik ez zuen azaldu: «Azalpenik ez dut



Beharbada, inoizko bost minutu onenak jokatu nituen, bai, lauzpabost aldiz iritsi zirelako»

«Lasai geunden, bagenekielako hobetzeko tarte handia geneukala»

CLAUDIO BRAVO
Realeko jokalaria

eskatu behar. Gauzak nahasi daude, federazioko presidentetzarako hauteskundeak daude tartean eta beste jokalaria garrantzitsu batzuk ere kanpoan gelditu dira».

Donostiara iritsi zenetik, arazorik gabe onartu du Bravok bere helburua talde handi batera jauzi egitea dela. Bere garaian merkaturan merke jarri zuen zuzendari-tzak, Riesgorekin batera; baina, zorionez, eroslerik ez zen azaldu. Orain 2015. urtera arte du kontratua; etete klausula handiarekin, gainera. Eta klubaren aktiborik garrantzitsuenetakoa da; bai kirol aldetik, goi mailan bermea ematen duen atezaina edukitzeak asko balio duelako, eta bai ekonomia aldetik, erakusleho bikaina delako Lehen Maila eta horrela jarraituz gero asko igoko delako haren kotizazioa. Txileko atezain onenek lortu ez zutena lortzeko bidean da: Europar arrakasta eduki eta bertan finkatzea.

23» Sebastien Loeb frantziarrak zazpigarren urtez jarraian irabazi du Munduko Rally Txapelketa

Aulkitik begira

Aitor Manterola



Baloiarekin, arnasa; baloirik gabe, ito

Denentzat onuragarria. Denboraldi honetako lehen idatzian, futboleko modu askotara joko daitekeela esan nuen. Talde bakoitzak nahi duen eredu hartzen duela. Baina, nire ustez, talde guztiek honako ezaugarri hau eduki beharko lukete: baloia erabiltzen jakitea. Gorde-tzea, edukitzea. Joko ez zuzena gutxi-asko menderatzea.

Bi adibide: Larunbatean Athleticen eta duela astebete Realak Mallorcan erakutsi zuten behar-beharrezkoa dela baloia edukitzea jakitea. Partida hasiera txarra egin zuten biek. Realak ez zen gai izan bizpahiru pase jarraian emateko. Baloia azkar galtzen zuten, eta Mallorcan estu hartu zuten lehen minutuetan. Realak ezin zuten atzetik atera. Baloia zuzen erabili izan balu, lerroak aurreratuko zituen. Taldea kokatu egingo zen zelaian. Konfiantza hartuko zuten. Defentsako lana hobetzeko aukera emango zion. Athleticen ere arazo bera izan zuten larunbatean, Valentzian. Lehen zati osoan etxekoen mende egon zen. Aitor Ociok esana partida ondorenean: «Ez ditugu bizpahiru pase jarraian eman lehen zatian». Ondorioz, taldea atzean sartuta gelditu zen. Ezin zuten aurrera egin. Ezinezkoa zitzaion eroso egotea.

Orekan oinarrituz. Baloiarekin joko ez zuzena egiteko aukera bat baino gehiago daude. Teknikan oinarritzen da bat nagusiki, eta taktikan, bestea. Espainiako selekzioa dago lehen multzoan, eta Bartzelona bigarren. Taktika esaten dudanean, oreka esan nahi dut. Mikel Etxarrik ederki definitzen du zer den futbola: «Jokoan kontzentrazioa edukitzea, baloiarekin eta baloirik gabe egindako mugimenduekin oreka lortzeko». Mugimenduak taktika dira. Taktika mugimendua da.

Erasoan defenditu egin behar da, eta defentsan eraso. Horretarako, oreka behar da. Eta oreka lortzeko, mugitu egin behar dute jokalariek

Joko ez zuzena lantzeko, teknika ere funtsezkoa da, jakina: pase motzak, ez hain motzak, kontrol onak, norabide zuzenean egindakoak eta abar. Espainia ez da oso aberatsa taktikaren aldetik, nire ustez, orekaren printzipioari erreparatzen bazaio, behintzat. Gehiago oinarritzen da teknikan. Bartzelona trebea da taktikan, orekatuak dira jokalarien mugimenduak. Baina teknika ikusgarri ona daukate.

Mugitu beharra dago. Ez dut esan nahi Realak eta Athleticen Espainiak eta Bartzelonak bezala jokatu behar dutenik. Orekaren kontzeptua azaltzeko erabili ditut. Gauzak asko errazten ditu. Defentsan ari den taldeari erasoan prest egoteko balio dio, eta erasoan ari den taldeari defentsan jarduten hasten laguntzen dio. Erasoa defenditu egin behar da, eta defentsan eraso. Horretarako, oreka behar da. Eta oreka lortzeko, mugitu egin behar dute jokalariek, norabide zuzenean. Realari, adibidez, horixe falta zaio. Baloia daukan jokalariai laguntzak eman behar zaizkio, paseak emateko, baina askotan geldirik egoten dira baloia ez dutenak. Hegaletan izaten da mugimendurik, baina zelaiaren erdian apenas. Mugituko balira gehiago, baloia galtzen dutenean, ondo kokatuta egongo lirake. Eta horrek bi aukera emango lizkioke taldeari: presioa goian egiteko modua eta aurkariaren kontraerasoa saihesteko bidea. Ez al dizkiote kontraeraso asko egiten kontrarioek?

Nola mugitu? Etxarri ikasi nion ondoko kontzeptua: «Baloia daukan jokalaria engandik gertuen dagoena mugitzen da, eta mugimendu hori urrutiago dagoenak zuzentzen du». Zuzentzea orekatzea da, taldea ez haustea. Gaur egun, oreka gutxi ikusten dut futboleko. Etxarri berari beste lagun entrenatzaile batek ondokoa esan zion behin: «Futboleko partidak eskoletako jolas garaietako partiden antzekoak dira orain». Realak eta Athletic ez dira aparte egungo bolada horretatik. Alde horretatik, futbolaren aberastasuna galtzen ari da.

Irudia ◦ Madril



HASI DIRA LASAITZEN MADRIL ALDEAN

Real Madrilek 6, Deportivo 1. Hiru puntu, Cristiano Ronaldok bi gol —irudian horietako bat ospatzen ageri da—, sei partida jokatu ondoren sailkapenean Bartzelonaren aurretik... Hasi dira lasai-

tzen Madril aldean. Real Madrilek denboraldiko partidarik txukunenetako bat jokatu zuen herenegun Deportivoaren aurka. Zelai erdian ikusgarri aritu zen Xabi Alonso. JAVIER LIZON/EFE

↓ Sailkapena

LEHEN MAILA

6. jardunaldia	
Jokatutakoak	Emaitza
Zaragoza-Sporting	2-2
Realak-Espanyol	1-0
Valentzia-Athletic	2-1
Sevilla-At. Madril	3-1
Getafe-Hercules	3-0
Vila-real-Racing	2-0
Almeria-Malaga	1-1
Osasuna-Levante	1-1
Bartzelona-Mallorca	1-1
R. Madril-Deportivo	6-1

Sailkapena

	Puntuak	J	I	B	G
1. Valentzia	16	6	5	1	0
2. Vila-real	15	6	5	0	1
3. Real Madril	14	6	4	2	0
4. Bartzelona	13	6	4	1	1
5. Sevilla	11	6	3	2	1
6. Getafe	10	6	3	1	2
7. Atletico Madril	10	6	3	1	2
8. Espanyol	9	6	3	0	3
9. Mallorca	8	6	2	2	2
10. Malaga	7	6	2	1	3
11. Athletic	7	6	2	1	3
12. Hercules	7	6	2	1	3
13. Realak	7	6	2	1	3
14. Almeria	6	6	1	3	2
15. Osasuna	5	6	1	2	3
16. Sporting	5	6	1	2	3
17. Levante	5	6	1	2	3
18. Racing	4	6	1	1	4
19. Zaragoza	3	6	0	3	3
20. Deportivo	3	6	0	3	3

■ Txapelaldia Ligara ■ Europako Ligara
■ Bigarren Mailara

7. jardunaldia (urriak 16-17)

Bartzelona-Valentzia
Athletic-Zaragoza
Sporting-Sevilla
At. Madril-Getafe
Hercules-Vila-real
Racing-Almeria
Malaga-Real Madril
Deportivo-Osasuna
Levante-Realak
Mallorca-Espanyol

→ Laburrak



Andoni Iraola, orain astebete, Bartzelonaren aurkako partidari. L.T./EFE

Zaragozaren aurka 300. partida jokatu du Iraolak

ATHLETIC ▶ Joaquin Caparrosek ezustea ematen ez badu, Zaragozaren aurka 300. partida jokatu du Andoni Iraolak Athleticen, Lehen Mailako 250.a. Urriaren 16an edo 17an jokatu da partida hori. 1999an iritsi zen Iraola Lezamara, Antiguokotik. Gazte mailan jokatu hasi zen, eta 2003ko abuztuaren 30ean egin zuen debuta lehen taldearekin, Bartzelonaren aurka. Ernesto Valverde zen orduan Athleticen entrenatzailea. Ligako 249 partidez gain, Espainiako Kopako 29, UEFA Kopako, Europako Ligako eta Txapelaldien Ligako 19, eta Espainiako Superkopako beste bi partida jokatu ditu. 29 gol sartu ditu.

Gurpegi: «Goi-goian egin behar genuen presioa»

ATHLETIC ▶ Carlos Gurpegi Athleticen jokalariai autokritika egin zuen atzo Lezamako prentsa aretoan. «Valentziaren aurkako lehen 35 minutuetan argi ikusten da nola ez dugun jokatu behar. Goi-goian egin behar genuen presioa». Jarraian bi partida galduta, ez daudela momenturik onenean onartu zuen atzo Gurpegik.

Damia: «Egoera ez da larria, eta taldea gorantz doa»

OSASUNA ▶ Damia Abella Osasunako atzelariak lasaitasun mezua helarazi zuen atzo: «Egoera ez da larria, eta taldea gorantz doa». Jaitsiera postuetatik puntu batera daude nafarrak. «Baina azken hiru partideetan itxura hobea eman dugu. Puntu gehiago merezi ditugu». Masud, Nekunam eta Vadocz atzo ez ziren Taxoaren izan, euren selekzioekin daudelako.

Lagunak lehen postuan jarri da, Athletic irabazita (1-0)

SUPERLIGA ▶ Lagunak da Superligako lehen multzoko liderra. Nafarrek ezuste handi samarra eman zuten herenegun Barañainen, Athletic ordura arteko liderri 1-0 irabazita. Lehen zatia amaitzeko zela, Elenak sartu zuen etxekoen gola, penaltiz. Eibarrek, berriz, 4-1 galdu zuen Prainsaren aurka. Lagunak (10 puntu), Athletic (9) eta Realak (9) lehen hiru postuetan daude, eta Eibar azkena da (2).

Zonakako defentsa

Andoni Urbistondo



Pazientziaren koskak

Lidertatik lidertara. Ekainaren 20an ligako titulua irabazi zuen Baskoniak. Hiru hilabete eta bi aste geroago, lidergoan da berriro, Alacanti 45 punturen aldearekin irabazi ondoren. Pazientzia eskatu zuen Dusko Ivanovicek Espainiako Superkopan; pazientzia emango diogu taldeari, igandeko Baskonia ez baita benetakoa. Pazientzia eskatu du Katsikarisek, Manresa hankapean ibili arren. Hilabete gutxian ikasi du Bilbon zerutik infernura azkar pasatzen dela. Lasok ere pazientzia eskatu du. Jendea larritzen has ez dadin. Asteburua bikain dator, hiru partida puska begi bistan: Unicaja-Baskonia, Bilbo Basket-Valentzia eta Lagun Aro-Cajasol.

Stanko Barac. Isila da. Lotsatia. Kazetariren bat gertu ikusten duenean beldurtu egiten da. Gaztelaniaz moldatzen da, baina zaila da haren ahotik espero ez diren hitzak entzutea. Jakin badaki Baskoniako zaleen kutuna dela. Inoiz ez diote keinu txarrik egin. Trukean, beti eman dizkiote animoak, eta kroaziarrak ondo hasi du liga. «Hasi» azpimarratzea komeni. Bizpahiru partida on lotzea falta baitzaio. Konfiantza, fedea bere gaitasunean. Buruko indarra irabazten badu, berea da etorkizuna.

Putzua. Bilbo Basketeko jokalariek Manresan ikusi zutena. 18 hiruko jaurti, eta 11 saskiratu zituzten, horietako bakarren bat ez sinesteko modukoa (Janis Blumsek sartutakoa). Hirukoetan %61 asmatzen duen taldeari irabaztea zaila da, aurkariaren kemena itzaltzen duelako hirukoz hiruko. Manresak %20 bakarrik asmatu zuen, eta Katsikarisek halakoetan erabaki erraza dena hartu zuen: zonakako defentsa egin, aurkaria hirukoak jaurtitzera behartzeko. Ona da Manresako garaipena, baina Valentzia eta Real Madril datoz Miribillara. Horiek emango dute bizkaitarren sasoiaren benetako neurria.


Lagun Aroko jokalariek batzuek esnatu egin behar dute. Baronen hiruko ikusgarriek zaleen marmarra eragiten dute, baina ez dute ezertarako balio garaipena lortzen ez bada

Baina ugari. Lagun Arok bere historia beltzeko beste orri bat idatzi zuen Fuenlabradan. Ezin kantxa hartan irabazi, eta urte batzuk badira hara lehen aldiz joan zela. Arlo askotan huts egin zuen Donostiako taldeak, eta haien batuketak porrota ekarri zuen. Kamuts hirukoetan, ezinean defentsako errebotetean, epaileekin ere konforme ez... Ez da ezer pasatzen, lehen partida da, baina jokalariek esnatu egin behar dute. Baronen hiruko ikusgarriek zaleen marmarra eragiten dute, baina ez dute ezertarako balio haiekin garaipena lortzen ez bada.

Carlos Suarez eta Luis Casimiro. Indarrean hasi dira ACB ligako talde boteretsuenak. Real Madrilak Madrilen irabazi zuen, baina Estudiantesen kantxan. Carlos Suarezek eman zuen zeresana, Estudiantes taldearekin hazi eta hezi ostean fitxatu baitu Real Madrilak, talde horretako beste jokalariek batzuk bezala. Suarezek hautsi zuen partida Real Madril alde, eta aldageletan, Estudianteseko Luis Casimirok bota zuen esaldia: «Pozik gaude Suarez fitxaketak utzi digun diruarekin, eta asko estimatzen dugu urteetan gure proiektuari eman dion bultzadagatik. Baina azken mesede bat egitea ez zen hain zaila harentzat. Puntu erdiak sartuta ere ez zen inor konturatuko». Zintotasuna esaten zaio horri.

Bartzelona, Valentzia eta Unicaja. Arazo handirik gabe irabazi zuten lehen biek, kostata andaluziarrek Zaragozan. Bartzelonak aurreko denboraldian bezala jarraitzen du. Eman eta eman, oharkabean. Valentzia ere antzera aritu zen. Handien aurka ere horrela aritzeko gai izango ote den da zalantza. Unicajak jokalariek handia fitxatu du: Terrell McIntyre. Hamalau puntu bakarrik saskiratu zituen, baina horietako zortzi saskiratu behar zirenean sartu zituen. Erabakigarria izaten da kienaren talentua.

Irudia > Valentzia (H. Katalanak)



SANPEDORREKO AZTIA

Rafa Martinez bere jaioterriko pertsona ezagunen artean bigarrena da. Saskibaloi jokalaririk onena, zalantzarik gabe, baina zereginik ez du Pep Guardiolaekin. Bartzelonako entrenatzailea ezagunagoa da, eta hala izango da beti. Udan talde aberatsenen eskaintzak jaso zituen, Baskoniarena tartean, baina Valentzian geratzea erabaki zuen. Lehen partidaren 25 puntu sartu zituen, eta 12 jaurtiketatik bi bakarrik kale egin. Aparta. Argazkian, Martinez, Mamadou Samb Granadakoaren aurrean saskiratu nahian. KAIFORSTERLING/EFE



Oliver Estudiantesekoa eta Sergio Rodriguez Real Madrilkoak. J.L./EFE

Itzulera gozoa plaza zail batean

REAL MADRIL > NBA n lau denboraldi egin ondoren itzuli da Espainiako ligara, eta partida txukuna egin zuen bere gazte garaiko etxean, Estudiantes taldeko zaleen aurrean. NBAra gazteegi joan zela diote batzuek, liga hura bere mailarako handi geratzen zitzaioela. Las-ter argituko da zalantza.

↓ Sailkapena

ACB LIGA

Lehen jardunaldia

Jokaturakoak	Emaizta
Valentzia-Granada	104-81
Estudiantes-Real Madril	79-84
Caja L. Baskonia-Alacant	92-47
Bartzelona-Kanaria Handia	83-58
Cajasol-DKV Joventut	85-80
Zaragoza-Unicaja	76-79
Manresa-Bizkaia Bilbo Basket	59-86
Fuenlabrada-Lagun Aro	71-64
Menorca-Valladolid	73-61

Sailkapena

	J	I	G	PA	PK
1. C. L. Baskonia	1	1	0	92	47
2. Bizkaia Bilbo B.	1	1	0	86	59
3. Bartzelona	1	1	0	83	58
4. Valentzia	1	1	0	104	81
5. Menorca	1	1	0	73	61
6. Fuenlabrada	1	1	0	71	64
7. Cajasol	1	1	0	85	80
8. Real Madril	1	1	0	84	79
9. Unicaja	1	1	0	79	76
10. CAI Zaragoza	1	0	1	76	79
11. Joventut	1	0	1	80	85
12. Estudiantes	1	0	1	79	84
13. Lagun Aro GBC	1	0	1	64	71
14. Valladolid	1	0	1	61	73
15. Granada	1	0	1	81	104
16. Kanaria Handia	1	0	1	58	83
17. Manresa	1	0	1	59	86
18. Alacant	1	0	1	47	92

■ Kanporaketetara = Urrezko LEB Ligara

Bigarren jardunaldia

2. Jardunaldia (urriak 9 eta 10)

Larunbata	Ordua	TB
Unicaja-C. L. Baskonia	18:00	TDP.
Valladolid-Estudiantes	19:00	
Igandea	Ordua	TB
Real Madril-Manresa	12:30	
Bizkaia Bilbo B.-Valentzia	12:30	ETB1
Alacant-Fuenlabrada	12:30	
Joventut-Menorca	12:30	
Granada-Bartzelona	12:30	
Lagun Aro GBC-Cajasol	18:00	
Kanaria Handia-CAI Zaragoza	19:00	TDP.

ESTADÍSTIKAK

Puntuak partidako

1. Rafa Martinez (PEV)	25
2. Rob Kurz (GRA)	24
3. Carlos Suarez (RMA)	21
4. Louis Bullock (CAI)	19
5. Kristaps Valters (FUE)	19
6. Jimmy Baron Jr. (LGA)	19
7. Saul Blanco (UNI)	18
8. Dusko Savanovic (PEV)	18
9. Will McDonald (JOV)	18
10. Andres Miso (CAI)	18

Errebotek partidako

1. Gustavo Ayon (FUE)	11
2. Caio Torres (MEN)	10
3. Serhii Listuk (PEV)	9
4. Davis Doblak (LGA)	9
5. Josh Asselin (EST)	9
6. Esteban Batista (FUE)	8
7. Jordi Trias (JOV)	8
8. Xavi Rey (KNH)	8
9. Rob Kurz (GRA)	8
10. Carl English (JOV)	8

Asistentziak partidako

1. Ricky Rubio (BAR)	11
2. Omar Cook (UNI)	7
3. Paolo Quinteros (CAI)	7
4. Marcelinho Huertas (CLB)	6
5. David Logan (CLB)	6
6. Javi Salgado (LGA)	6
7. Berni Rodriguez (UNI)	5
8. Joe Ingles (GRA)	5
9. Russell Robinson (JOV)	5
10. Victor Claver (PEV)	5

ACBko balorazioak

1. Rob Kurz (GRA)	30
2. Carlos Suarez (RMA)	29
3. Rafa Martinez (PEV)	27
4. German Gabriel (EST)	26



Buesa Arenan gauza ulertezinak entzuten dira, harmailak kaskarkeriaz bete dira»

PABLO PRIGIONI
Real Madrilko jokalaria

27

■ **Betiko alde handiena.** Bizkaia Bilbo Basketek handikiro hasi du 2010-2011ko denboraldia. Garaipen erosoak Manresan, kantxa zail batean, eta ACB ligako historian etxetik kanpo inoiz lortu duen aldeko puntu kopuru handiena: 27. Gogoeta bat ere bai: partidako zazpigarren minuturako Fotis Katsikarisek kantxaratu zituen jokalariek denek lortu zuten punturen bat; zortzik, hain zuzen ere.

→ Laburrak

Europak 14,5-13,5 irabazi die AEBei, Ryder kopan

GOLFA Graeme McDowell irlandarrak eman zion atzo garaipena Europako taldeari AEBen aurka Ryder kopan. McDowelllek Hunter Mahani irabazi zion azkeneko buruz burukoan. Orain lau urte nagusitu zen Europa azken aldiz.

Nazabalek nagusitasunez irabazi du berriz Nafarroako Txapelketa

Joseba Zubiaur

Floren Nazabalek irabazi zuen igandean Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketa, etxean, Etxarri Aranatzan. Horrenbestez, seigarren txapela eskuratu zuen. Hasieratik aritu zen aurretik garaipenaren bila, eta lehen enborra kenduta gainerako guztiak bota zituen aurretik. Nazabalek 28 minutu eta 18 segundotan amaitu zituen lanak.

Juan Jose Lopez izan zen txapeldunordea, 29.57ko markarekin. Donato Larretxea sailkatu zen hirugarren postuan, 33 minutu eta 28 segundoko denborarekin. Txapel eta dominetatik kanpo gelditu dira Antonio Senosiain eta Ohian Larretxea. Olaguearraren marka 37.30 izan zen, eta Berrarena, 41.57.

Irigoienek laugarren urtez jarraian jantzi du harri txikietakoko txapela

I.Z.

Aimar Irigoienek laugarren urtez jarraian irabazi zuen Harri Txikietakoko Euskadiko Harri-jasotze Txapelketa. 12.500 kilo jaso zituen 107 altxalditan, igandean jokatu-tako finalean, Anizen (Nafarroa Garaia). Joseba Ostolaza izan zen txapeldunordea, 11.900 kilo sordaldan berdindu ostean (102 jasoazldi). 600 kiloren alde atera zion txapeldunak. Azkenik, brontzeko domina Hodei Iruretagoiena Izeta IV.arentzat izan zen. 10.725 kilo bizkarreratu zituen 92 altxalditan. Ez zen kirolari gehiago aritu finalean.

Thor Hushovd nagusitu da Munduko Txapelketan

TXIRRINDULARITZA Thor Hushovdek jantziko du urtebetez ortzadar maillota, herenegun Melbourne (Australia) errepideko Munduko Txapelketa irabazi baitzuen. Norvegiarra azkarrena izan zen 18 txirrindulariko talde batean. Matti Breschel dani-markarra eta Allan Davis australiarra sailkatu ziren haren atzetik. Haimar Zubeldia 39.a izan zen, eta Juanma Garate eta Imanol Erbiti erretiratu egin ziren.



Thor Hushovd, podlumean. T.K./EFE

Ordizia irabazi, eta Bera Berak eta Gernikak galdu

ERRUGBIA Ampo Ordizia izan zen Espainiako Ohorezko Mailako euskal taldeen artean irabazi zuen bakarra. Ordiziarrek 28-37 hartu zuten mendean Valentzia. Pegamo Bera Berak eta Bizkaia Gernikak, ordea, galdu egin zuten: donostiarrek 10-24 El Salvadorren aurka, eta gernikarrek 42-16 La Vilaren aurka. Sailkapenean, Ordizia hirugarren da; Bera Bera, bosgarren; eta Gernika, seigarren.

Barberena anaiek irabazi dute Trontza Txapelketa

HERRI KIROLAK Iñaki eta Josetxo Barberena anaiek irabazi zuten iragan larunbatean Gizonen Maila Nagusiko Euskadiko Trontza Txapelketa, Iraizotzen (Nafarroa). Euren marka 10.32 izan zen. Rezabal-Roteta sailkatu ziren bigarren postuan (15.56). Iragan asteburuan ere, Joxe Lazaparanek Euskadiko Ingude Altxatzea Txapelketa irabazi zuen, eta Xabier Urrestik, orga jokoarena.

Sebastien Loebek Frantziako Rallya irabazita lortu du zazpigarrenez munduko txapela. «Arriskuan» egoteaz nekatuta, heldu den urtean hartuko du erretiroa.

Azken-aurrekoa, etxean

Imanol Magro

Historiaren atea hizki larri ireki zituen herenegun Sebastien Loebek. Alsaziarra (Frantzia, 1974) jaiotzez, etxetik kilometro eskasera irabazi zuen herenegun Frantziako Rallya, eta, bide batez, munduko txapela, zazpigarrena. Aurretik inork lortu gabeko marka da, eta beste argazki bat errekor bilduman: proba gehien irabazi duen gidaria (60), proba bera aldi gehienetan irabazi duena (Alemaniakoa, 8) eta rally bat tarte guztietan denborarik onena lortuz irabazi duen bakarra (Korsika, 2005). Lorpen guztiak Daniel Elena kopilotuaren alboan irabazi ditu. Mitoak, baina, badu azken atala, heldu den sasoiaren akaberran erretiroa hartuko duela aurreratu baitu, ez duelako jarraitu nahi bere bizitza «arriskuan jartzen».



Sebastien Loeb, txapelduna. R.B./EFE

Gimnastika entrenatzaile baten seme, lau aldiz izan zen Alsaziako txapeldun gaztetan, eta oraindik sasoi harrigarria du. Gazte hark, baina, gasolina zuen zainetan. Dirua bildu bezain laster erosi zuen Renault 5 GT Turboa. 30.000 kilometro egiteko di-

seinaturiko pneumatikoez 2.500 irau zioten bakarrik, eta gidaibaimena maiz egon zen polizia-aren eskuetan. Ezpala bazegoen, eta 2002an hartu zuen parte aurreneko Munduko Txapelketan.

2003a izan zen bere lehen urte osoa, eta McRae eta Sainz taldeki-deak baino hobea izan zen. Azken proba txapeldun izateko aukerarekin iritsi zen, baina Citroen etxeak ez zion utzi oldarkor izaten eta Peter Solberg estutzen, talde mailako titulua lehenesten zelako. 2004an iritsi zen lehen txapel handia, eta beste sei etorri ziren gero. Egun ez du parekorik, eta litekeena da aurten azken-aurrekoa izatea. Eta hori da kritikarietako egotzen diotena: mitoa izan badela baina ez duela Juha Kankkunen eta Tommi Makkinen onenak bezalako aurkaririk izan eta txapelketa bera galbidean dagoela. Agian horregatik esango du agur hurrengo urtean.

Irudia o Motegi (Japonia)



KOLPE GOGORRA DU «SOILIK» VAZQUEZEK

Efren Vazquez moto gidari bilbotarrak (Derbi) istripu larria izan zuen herenegun Motegiko zirkuituan, Japoniako Sari Nagusian. Irteera eman eta segundo gutxira, Bradley Smith ingelesa erori egin zen, eta erorketan Vazquez bota zuen lurrera. Okerrena, baina, gero etorri zen, lurrean zela Jo-

nas Folger alemaniarrek gainetik pasatu baitzuen bere motoarekin —argazkian— eta Vazquez paretaren kontra bota. Istripu larria izanagatik, medikuek atzo esan zuten bilbotarrak «bakarrik» kolpe gogorra duela eta asteburu honetan Malaysian korritzeko moduan izango dela. K.MAYAMA/EFE

Erkiaga-Alliez eta Bereikua-Felix binakako finalerdietarako sailkatu dira

I.M.

Bereikua eta Felixek partida go-goangarria irabazi zieten Erkiaga eta Alliezi atzo, Gernikan, (35-34). Ordu eta erdiko norgehiagokaren ondoren, bi bikoteek jaso zuten saria, emaitzak biak sailkatzen baititu binakako munduko txapelketako finalerdietarako. Jaialdiko bigarren partida are luzeagoa izan zen, 102 minutu, eta Egiguren II.ak eta Lopezek sailkatze faseko lehen postua ziurtatu zuten Beaskoetxea eta Irastorzari 35-31 irabazita.

Gauzak hala, finalerdietarako azken txartela etzi erabakiko da. Beaskoetxeak eta Irastorzak Forondaren eta Hernandezen aurka jokatu dute Berriatuan. Aurrenekoek 27 tanto behar dituzte sailkatzeko, eta emaitzaren arabera 3. edo 4. izango dira. Bigarrenak, berriz, garaipena behar dute. Azkenik, Goikoetxea eta Arriola aukerarik gabe gelditu dira.

↓ Jaialdiak

ATZOKO EMAITZAK

■ **Gernika.** Bereikua-Felix 35; Erkiaga-Alliez 34. Beaskoetxea-Irastorza 31; Egiguren-Lopez 35.

GAURKO PARTIDAK

■ **Agurain (17:15).** Retegi Bi-Eulate / Apezetxea-Goñi III.a. Irujo-Laskurain / Titin-Barriola.
■ **Atarrabia (19:30).** Olaetxea-Eskudero / Lemuno-Argote. Olaizola I.a-Begino / Berasaluze VIII.a-Beloki.

■ **Galarreta (16:00).** Etxabe II.a-Zubiri / Matxin VI.a-Barre-netxea. Zeberio II.a-Zubizarreta / Matxin III.a-San Miguel. Agirresarobe-Agirrezabala / Etxeberria IV.a-Olazar. Matxin VI.a-Gaztelu / Endika-Aizpurua II.a.

Agenda



RAUL BOGAJO/ARGAZKI PRESS

Itsaso del Rey ◦ Moda diseinatzailea

Kustomizazioaren inguruko ikastaroa emango du Itsaso del Reyk Arrasaten (Gipuzkoa). Jantziak birzirkulatu eta berrerrabiltzeko aukera izango dute parte-hartzaileek datorren astetik abenduaren 1era.

«Erabiltzen ez ditugun jantziak birziklatu eta berrerrabiltzea da helburua»

Maite Alustiza Donostia

Moda eta diseinuko ikasketak egin zituen Itsaso del Reyk (Arrasate, Gipuzkoa, 1980). Orain, ikasitakoa praktikan jartzen eta besteei erakusten dabil. Kustomizazio ikastaroa emango du urriaren 13tik abenduaren 1era, Arrasateko Kulturaten (Gipuzkoa). Oraindik zabalik dago epea parte hartu nahi duen guztiarentzat; 943-25 20 65 telefono zenbakira deituta edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net helbidean eman daiteke izena.

Zer da kustomizazioa?

Jantziak birziklatu eta berrerrabiltzea da. Denok dauzkagu etxean erabiltzen ez ditugun jantziak, eta ikastaro honen bitartez, erabiler berria eman nahi diegu arropa horiei.

Zein jende motak parte hartzen du? Lehenengo aldia da kustomizazio ikastaroa egiten duguna, baina suposatzen dut gazteak izango direla gehienak. Asteazkeneko pare bat orduz ariko gara lanean.

Josten jakitea beharrezkoa da? Ezagutza minimo bat izatea beharrezkoa da; zenbat eta gehiago jakin, orduan eta hobeto. Dena den,

ez da inolako jakintza mailarik eskatzen, edonork parte har dezake.

Zer moduz moldatzen da jendea?

Askok pentsatzen dute ezingo dutela egin, baina, azkenean, pozik joaten dira ikastaroa amaitzen denean. Gainera, zenbait ikastarok zailtasun handiagoa dute, gehiago jakitea eskatzen dute. Baserritar jantziak egiten ikastea eman nuen ikastaroan, esaterako, josteko makinak erabili genituen. Horrek beste ezagutza bat izatea eskatzen du.

Zein jantziekin egingo duzue lan?

Askotariko jantziekin lan egingo dugu. Eurek ekarriko dituzte berridiseinatu nahi dituzten jantziak; erabiltzen ez ditugun horiek berrerrabiltzeko aukera da. Galtzekin poltsa bat egin, kamisetak moldatu... bakoitzak nahi duena egingo du.

Zein da ikastaroaren helburua?

Norberaren sormena eta irudimenaren bitartez birziklatzea. Birziklatzea eta erabili gabe genituen gauzak berreskuratzea.

Ikastaroa beste herri batzuetara eramateko asmorik ba al dago?

Oraingoz Arrasaten egingo dugu. Honek zer-nolako arrakasta duen ikusi beharko da.

→ Ekitaldiak

Musika

- **Bilbo.** Interpol. Gaur, 21:30ean, Campos Eliseos antzokian.
- **Bilbo.** Lagun artean kantuan egiteko saio irekia, Anje Duhalderekin. Bihar, 20:00etan, Kafe Antzokian.
- **Bilbo.** Audience, Eten. Ostegunean, 21:30ean, Kafe Antzokian.
- **Donostia.** Los Chets. Chet Bakerri omenaldia. Ostegunean, 23:00etan, Sagueseko El Muro tabernan.
- **Errenteria.** Peachy Joke eta Oreindik taldeen emanaldia. Ostiralean, 22:30ean, Kelysen.
- **Gasteiz.** U.K. Bill. Gaur, 20:30ean, Parral tabernan.
- **Getxo.** Proyecto Brundel Mosca taldearen kontzertua. Ostegunean, 20:00etan, Algortako Satisfestegi kafean.
- **Tolosa.** Naturan Project eta Laurobaren kontzertuak. Ostiralean, 22:30ean, Bonberenean.
- **Zaldibia.** Imuntzo eta Beloki. Gaur, 23:00etan, herriko plazan.

Antzerkia

- **Arrigorriaga.** Pinotxo, Bihar txotxongilo taldearen eskutik. Bihar, 17:30ean, ekitaldi aretoan.
- **Ermua.** Mas gorditos que nunca, Tangorditos taldearen eskutik. Ostiralean, 22:15ean, Lobiano Kultur Gunean.

Dantza

- **Bilbo.** Rosso ikuskizuna, Rafael Amargo eta Lola Greco-rekin. Bihartik astelehenera bitartean, 20:00etan, Arriaga antzokian. Igandean eta asteartean, 19:00etan.

Hitzaldiak

- **Arrasate.** Nola kontrolatzen dituzte gobernuak beste herrialdeetan?, Manu Alphonse eta Luis Albirenarekin. Gaur, 18:30ean, Kultur Aten.
- **Azkoitia.** Euskal Jaien mendeurrenari buruzko hitzaldia. Hizlariak: Paul Davila, Ana Izagurre eta Juan Bautista Mendizabal. Gaur, 19:00etan, Intsausti jauregian.

- **Bilbo.** Lo bueno si breve... Mahai-ingurua. Solaskideak: Pedro Ugarte, Txani Rodriguez eta Jon Bilbao. Gaur, 19:00etan, Liburuaren Etxean.
- **Bilbo.** Gobernuen kontrolari buruzko solasaldia. Alboanek antolatutako jardunaldien barnean. Hizlariak: Manu Alphonse (Indiako Social Watch), Luis Albierna (Vigila Peru), Manuel Venegas (CIDEPE El Salvador), Tanya Notley (Ingalaterrako Tactical Tech). Bihar, 19:00etan, Arrupe etxean.
- **Donostia.** Begiz begi, Alberto Iñurrategirekin. Bihar, 19:00etan, Elkar liburu eta disko dendan.
- **Donostia.** Guztion berdintasunean oinarrituriko hiri eredu baten bidean, Begoña Petxarroman antropologoa eta Edurne Aperribai arkitektoaren eskutik. Bihar, 19:00etan, Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxean.
- **Erandio.** Independentzia: atzo, gaur eta bihar, Floren Aozzen eskutik. Ostegunean, 19:30ean, udaletxe azpiko erakusketa gelan.
- **Ondarroa.** Amaiurko Gaztelua: arkeologia eta oroimen historikoa, Juntxo Agirrerren eskutik. Ostegunean, 19:00etan, Kofradia Zaharreen.
- **Donostia.** Bizitza, maitasuna eta batasuna mintegiko hitzaldia, Maria Jose de Truebaren eskutik. Ostegunean, 10:30ean, Santxo Jakintsuan (Nafarroako Kutxaren egoitza).

Ikus-entzun

- **Bilbo.** Das Weisse Band, Michael Hanekeren filma. Gaur, 19:45ean, Karmen aretoan (Indautxu metroan).
- **Donostia.** Rock-Ola emanaldia. Bihar, 19:00etan, Donostiaklubean.
- **Ermua.** Nadie sabe nada de gatos persas emanaldia. Ostegunean, 19:00 eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean.

Bestelakoak

- **Astigarraga.** Lokatzetan ipuin kontaketa, Lur Kortaren eskutik. Ostegunean, liburutegian. 17:45ean, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, eta 18:15ean, 6 eta 9 urte bitartekoentzat.
- **Donostia.** Xabi San Sebastian eta Harkaitz Cano. Poesia eta kantua jardunaldien barruan. Bihar, 19:30ean, Koldo Mitxelena.

UR-MOZKETA ABISUA			
Gipuzkoako Urak, S.A. Horniketa Sarean hobekuntzak direla-eta			
HERRIA	EGUNA	TOKIA	ORDUA
Deba	Urriaren 6an	Astillero kalea 13, 15, 17, 19, 21, 2 San Josepe kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6.	09:00-13:00
Villabona	Urriaren 6an	Poligono larrea 34	09:00-12:00
Tolosa	Urriaren 6an	San Esteban auzoa	09:00-11:00
Legazpi	Urriaren 6an	Guriditegi auzoa	10:00-13:00

Iraupena ustezkoa da, beraz gerta daiteke pentsatu baino lehenago bukatzea, kasu horretan abisunik gabe ura emango dugu. Bestalde luzatzen bada, Uraren Telefonoan mozketaren berri izango duzue. Mozketa dela-eta, presio jeitsierak, uheretasuna eta nahi gabeko beste ondorio izan daitezke. Mesedez, barkatu eragozpenak.

Uraren Telefonoa
902 30 22 22



Erakusketak

- **Donostia.** Fotciencia argazki erakusketa. Urriaren 10era arte, egunero, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Aquariumeko Nau-tilus aretoan.
- **Elbar.** Fernando Beorlegi Begiristain: *Gogoaren pintzelkada garratzak*. Urriaren 12ra arte, astetik igandera bitartean, 18:30etik 20:30era, Portalean.
- **Erandio.** *Nafarroa, euskal estatua*. Ostiralera arte, 18:00etatik 20:00etara, Udaletxe azpiko udal erakusketa gelan.
- **Legazpi.** *Alberto Velasco*. Pintura eta eskultura erakusketa. Ostiralera arte, astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era, kultur etxean.

Ikastaroak

- **Astigarraga.** Aretoko dantzak, argazkigintza digitala, Bollywoodeko dantzak, patch-

Musika



ROCK UKABILKADAK GASTEIZEN

U.K. Bill rock taldeak kontzertua emango du gaur Gasteizko Parral tabernan, 20:30ean. 2005. urtean sortu zen taldea Utikan, Asgarth eta Lauroba taldeetako jendea bilduz. Estreinako diskoa bi urte geroago plazaratu zuen Añorgako (Gipuz-

koa) taldeak, Añorghetto zigiluaren bitartez. Iaz, *Paradisu sekretua* diskoa kaleratu zuten, hamahiru kantuz osatua. Hilabete amaieran atsendaldi bat hartuko dute, kanta berriak prestatzeko eta disko berria osatzeko. **BERRIA**

work, sendabelarrak, literatura tailerra eta zura tailatzea. Informazioa: www.astigarraga.net edo 943-33 50 64.

■ **Bilbo.** Antzerki Sozialeko ikastaroa, San Frantziskoko Zentro Zibikoan. Informazioa: 647-93 36 25.

■ **Donostia.** Haur eta gazteen aisialdiko zuzendari ikastaroa. Izen emateko eta informazioa: 943-3114 74.

■ **Ibarra.** Alurr Dantza Taldearen dantza eskolak. Izen emateko: 635-75 70 48 astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo www.alurr.net.

Lehiaketak

■ **Donostia.** Hi ta Hire Munduak *Gaztezulo* aldizkariaren I. Bideo Lehiaketa. Azaro erdialdera arte dago epea zabalik. Informazioa: www.gaztezulo.com helbidean.

■ **Hondarribia.** Bordari eta Sartzarka Literatur Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: 2010eko urriaren 31. Informazio gehiago: www.hondarribia.org.

Hilberriak

DON RAFAEL RUIZ MEDRANO

Iruñean hil zen, 2010eko urriaren 4an, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

*Argia ikusi nuen, pakea
Argia sentitu nuen, lasaitasuna
Argia izan nintzen, maitasuna
beti izango zara gure argi izpia*

Emaztea: Ramonita Larreta Jauregi; alabak: Habene eta Rafa, Begoña, Gotzone eta Atzio; bilobak: Alaitz, Naiara eta Jaume, Harbil; birbiloba: Julen; anakak, ezkon anakak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideak, lagunak eta Christian.

Hileta gaur izango da, asteartea, hilak 5, arratsaldeko sei eta erdletan, San Nikolas elizan. Hilotza Iruñeko hilerria eramango da gaur, asteartea, goizeko hamabiak laurden gutxiagotan, Iruñeko Irache belatokitik, eta hilerrian bertan erraustuko da.

Familiak eskerrak eman nahi dizkie San Juan de Dios ospitaleko langileei jasotako arretarengatik. Aldez aurretik, mila esker.

IRUÑEAN, 2010eko urriaren 5ean

RAFAEL RUIZ MEDRANO

*Maitasuna eta duintasuna
Zure bizitzaren zutabe
Ibilbidearen lekuko gu gara jasole
Izar berri eta argitsua
zervan hor zaude.
Mila esker, Rafael.*

Gotzoneren lankideak



FERNANDO ETXEBESTE ALDAZABAL jauna

Atzo hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren arimaren zuzendaria: Juan Mari Olaetxea; emaztea: Teresa Mozo; seme-alabak: Luis Fernando eta Rosa Ibañez, Juan Carlos eta Agurte Eizagirre, Izaskun eta Tomas Arenal; bilobak: Arrate, Beñat, Uxue, Xabier; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela hiletara. BIHAR izango da, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Blas auzoa, Santamari aldea
Oharra: Gorputz beila Tolosako FUNERARIA VASCONGADA belatokia egongo da, bihar, asteazkena, goizeko 09:45ak arte.

TOLOSA, 2010eko urriaren 5a

ESKELAK

(0034)943 30 40 30
eskelak@iragarri.net

OCTAVIANO VIRTO SORONDO

(Konstan Virto gure lankidearen aita)

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
familiaren saminarekin*



ETXERAINO



TANATORIO TALDEA
IRACHE
ARDAIZ · AZKONA · ORTIGOSA · UNZUE

TANATORIOAK · HILKUTXAK · HILOBI-HARRIAK · ERRAUSKETAK
PARTIKULARRAK KUDEATZEA · MARMOLAK
GORPU ERAMATEAK NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK
TANATOPRAXIA · LOREAK · ESKELAK



IRUÑEA: Iratxe Monasterioa, 60

DOLUMINAK SAREAN

www.tanatoriosirache.es

948 19 70 70
24 orduko zerbitzua

Agenda

Eguraldia

JON ALBISU

Joera


Osteguna, 7 Ostirala, 8 Larunbata, 9

Gaur

Hego-mendebala eta ostarteak

- **Zerua.** Irlandako mendebaldean dagoen zurrumbilak hego-mendebaldeko haizea bultzatuko du. Egonkortasun atmosferikoa areagotuko da Euskal Herrian. Ostarteak zabalduko dira, eta epeldu egingo du. Giro sanoaz gozatzeko aukera, beraz.
- **Haizea.** Hego-mendebaldeko haizea.
- **Temperatura.** Gora. Beroenak, ipar partean eta mendialdean, 20 eta 25 gradu artekoak. Barnealdean, berriz, 22 eta 28 gradu artekoak.

Bihar



Hego haizea nagusi


- **Zerua.** Aroak ez du aldaketarik izango. Egunsentiaz geroztik, lanbroa eta behe lainoa izango dira ohiko tokietan. Orduak aurrera egin ahala, ostarteak zabalduko dira Euskal Herri osoan. Hego haizeak hodei dezente bultzatuko ditu, eta zertxobait freskatuko du. Giro egonkorraz gozatzeko aukera izango da.
- **Haizea.** Hego haizea.
- **Temperatura.** Behera. Beroenak, ipar partean eta mendi inguruetan, 18 eta 23 gradu artekoak izango dira. Barnealdean, berriz, 17 eta 26 gradu artean ibiliko dira.

Itsasoa

- **Itsasoko egoera.** Lehenengo 20 milietan, hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, 4ko indarrarekin, eta itsaskirria eragingo du.
- **Olatuak.** Bi eta hiru metro artekoak.

Itsasaldiak	ORDUA	METROAK
Itsasgora	02:40	3,97
Itsasbehera	08:48	1,05
Itsasgora	15:03	4,29
Itsasbehera	21:17	0,83

Isobara mapa




Eguzkia	SORTU	GORDE
	08:12	19:59
Ilargia		
Ilberri	Urriaren 7a, osteguna	
Ilgora	Urriaren 14a, osteguna	
Ilbete	Urriaren 23a, larunbata	
Ilbehera	Urriaren 30a, larunbata	

Hitz-jokoak

BAGABIGA

Hitz gurutzatuak



Ezker-eskuin

1. Gintuzuen. 2. Bizkaieraz, eramana. Guda. 3. Kontakizun. Erdi, hitz elkarketan. 4. Pare bat. Aldundi. 5. Biloa. Iodoaren ikurra. Euskaldunen alegiazko aitalehena, Agosti Xahok XIX. mendean asmatua. 6. Berrogeita hamar. Lipar, momentu. Bat. Bokal errepikatua. Potasioaren ikurra. 7. Egitekoa, betebeharra. Epe. 8. Ipar Euskal Herrian, mami. Uzker isil. 9. Bat. Har ezak. Hostoa. Uranioaren ikurra. 10. Erromako enperadore. Partitiboaren atzizkia. Bokal errepikatua. 11. Ulu egilea. Erbioaren ikurra. 12. Joaki naiz. Ohitura zahar.

Goitik behera

1. Zuri, genbiltzan. 2. IX. hilabete. Bizkaiko herria. Nafarroako herria. 3. Galdetzailea. Euri ugarikoa. 4. Turkiako itsasartea. 5. Gizon izena. Euskara titulu. Norat atzizkia. 6. Sei gehi bat. Guztiz larritu. R bikoitza. 7. Kontsonantea. Bike. Txingurria. 8. Euskal Herriko zenbait tokitan bizi zen jatorri ezezaguneko giza talde bateko kidea. Bokala. Arabiako hiriburua. 9. (Her.) Zer. Gipuzkoako herria. ... egin, pilotak paretaren eta lurraren arteko zokoan jo. Bat. 10. Ihinzatua. Ukatzeko. 11. Ibai. Kanpo. Gaixo. 12. Zuei, nator. Zero.

Sudokua

	8		4		2		5	
		4					2	
5			3	6	8			9
7								2
	1		5		3		9	
8								3
1			8	5	6			7
		9					8	
	7		2		4		3	

9x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

Esaldi ezkutua

«B_z_tz_n, z_nb_t_t_n, b_ld_rr_k_t_tx_r_p_n_k g_b_b_rr_k_tz_n j_k_n b_h_r_d_».

Falta diren bokalak idatzita Alessandro Pertini politikari italiarraren gogoeta bat azalduko zaizu.

Atzoko erantzunak

M	I	L	I	T	A	N	T	Z	I	A	K
A	M	E	R	I	K	A	N	O	Z	A	
T	I	R	A	E	R	T	Z	A	I	N	
E	T	B	O	R	O	O	T	E	A		
M	A	K	A	R	D	I	T	E	N		
A	T	E	Z	A	I	N	U	R	D	E	
T	U	I	Z	A	I	N	P	A	U		
I	G	A	I	Z	K	I	L	E	S		
K	E	A	O	K	I	N	A	B	K		
A	S	T	A	O	I	N	D	I	A		
R	A	Z	Z	I	A	K	T	X	A	R	
I	N	A	R	K	A	T	Z	K	A		

2	5	1	3	7	6	8	9	4
3	6	4	2	9	8	1	7	5
7	8	9	1	5	4	3	6	2
8	1	7	4	6	3	2	5	9
4	3	5	8	2	9	6	1	7
9	2	6	5	1	7	4	3	8
5	4	2	9	3	1	7	8	6
6	9	3	7	8	2	5	4	1
1	7	8	6	4	5	9	2	3

Esaldi ezkutua: Oso oldarkorra naizela esaten didate lagunek, baina oihuka esaten didate.

Komunikazioa →

Asebetetzen ez nauten pozak



Ekografiak
Jokin Labaien

Esku bakarrek hatzak nahikoa eta sobera dira, haien adinean, Donostiako Zinemaldi entzutetsuan bi lan aurkeztu dituzten pertsonak zenbatu ahal izateko. Nabaria da. Euskal Herrian ez dira asko,

haien adinean, bi ekoizpen herri-herri erakutsi ahal izan dituztenak. Nabaria da. Euskal Herrian zein kanpoan, gutxi dira, duten adina dutela ere, halako gai korapilatsuak aukeratzeko dituztenak gehien maite duten lan-gintzan muturra sartu eta etorkizuna eraikitzen hasteko. Nabaria baita isilarazitako gaiekin zaila dela bide egitea.

Hori horrela, itxaropentsu ekin nion igandean ETB1en eman zuten dokumentala ikusteari. Josu Martinez eta Txaber Larreategik zuzendutako lanak (*Debekatuta dago oroitzea*) Saturra-

rango emakumeen espetxean izandako hainbat presoren eta haien senideen testigantzak biltzen ditu. 1937tik 1944ra bitartean erregimenaren aurkako gorrak zigortzeko lekua bilakatu zuen Francok seminario eta bainuetxea zena. Gorriek gorriak ikusi zituzten lekua, Mutriku eta Ondarroa artean.

Pasa berri den Donostiako Zinemaldian *Sagarren denbora. 25 urte deserritik itzultzen* lana ikusi ahal izan dut, egile berek ondura. Igandean izandako sentipen bera eragin zidan. Nola da posible gutako askok euskaldunon iragana

eta orainaldia osatzen duten gertaeren berri ez izatea?

Horregatik pozten nau ETB1en *Debekatuta dago oroitzea* ikusi ahal izateak. Ase, oostera, ez nau asetzen. Dokumentala gaztelaniaz egina dago. Dena den, ETBren euskarazko katean eman zuten, azpidatuta. Gutxienez lau aldiz, errotuluen bidez, azpidatutak estali zituzten datozen egunetan izango diren hainbat saioen iragarpena egiteko. Noski, ez da beste munduko kontua, gurean gutxi izango baitira euskaraz soilik dakitenak. Baina errespetuaz ari naiz. Zain nago, lan bera

ETB2n noiz ikusiko. Emanaldia-eren erdialdera, tripazorriek ere zer pentsatua eman zidaten. Normala al da dokumental bat iluntzeko bederatzietan ematea? Hamarrak inguruan hastekoa zen saioak (*Gol festa*) ikusten ari nintzenak baino garrantzi handiagoa ote zuen? ETB2n ordu berean estreinatzekoa zenari (*El conquistador de Aconagua*) halako itzala egingo ote zion? Ba ote beste arrazoi ezkuturik?

Akaso, oroitzeko debekua indarrean dago oraindik, zenbaitzuk kamerari zuzenean begiratzeko gai izan arren.

EITBren Iruñeko eta Baionako egoitzak kendu nahi dituzte UPDk eta PPK

Bi egoitzak desagerrarazteko legez besteko proposamena eztabaidatuko dute gaur Eusko Legebiltzarrean

Urtzi Urkizu Donostia

EITBren arrazionalizazio ikerketa batekin gastuak aurreztearekin batera, Iruñeko eta Baionako egoitzak desagerrarazi nahi ditu UPD alderdiak. Hori legez besteko proposamen gisa jaso zuten uztailearen amaieran. Eta gaur eztabaidatuko dute proposamena Eusko Legebiltzarrean EITBren Kontrol Batzordean. PPK hauxe dioen zuzenketa bat gaineratu dio proposamenari: «Eusko Legebiltzarrek Eusko Jaurlaritza eta



Iparaldearen Orena saioa Baionako egoitzan egiten dute. ETB

EITB deitzen ditu, krisialdia eta EAeko errealitate ekonomikoa kontuan hartuko dituen kontratu programa berri bat egin dezaten. Gastuen murrizketaren eta zerbitzu publikoaren kalitatea

hobetzearen bidetik jo beharko luke kontratu berriak».

Iruñeko eta Baionako delegazioak mantentzeko asmoa azaldu du orain arte EITBko zuzendaritzak. Baionako egoitza kudeatze-

ko lehiaketa bat antolatu zuten udaberriaren, eta K2000 ekoizpen etxeak irabazi zuen.

UPDren arabera, «EITB, euskal autonomia erkidegoaren irrati-telebista izan arren, komunitatetik kanpo jaso daiteke, eta egiturak ditu bere lurraldetik kanpo. Egitura propio bat ere badu Estatutik kanpo, Baionan». «Pentsatzen dugu EITBren helburu nagusiak zergak ordaintzen dituzten herritarrek zerbitzatzea izan behar duela. Eta EITBk bere ekimena EAE-ra mugatu behar du», dio UPDk.

Gaurko eztabaidan, ETB4 katea sortzea bertan behera uzteko eskatuko du UPDk. Kirol kate bilakatzeko ikerketa egin den arren, EITBren egoera ekonomikoak ez du aukerarik emango oraingoz laugarren katea sortzeko.

Radiokulturak haurren ametsak jasoko ditu

‘Zein da zuen ametsik handiena?’ galdera egingo die Radiokultura Interneteko irratiak 52 ikastetxetako haurrei

Erredakzioa Donostia

Proiektu pedagogiko berezia abiarazi du Radiokultura irratiak, Euskararen Erakunde Publikoaren sostenguz. 6-11 urte bitarteko haurrengana joango da, honako galdera hau egiteko:

«Zein da zuen ametsik handiena?». Guztira 52 ikastetxetan egingo dute galdera. Aurreneko esperientzia Azkaineko ikastolan egin dute. Proiektuak bi helburu ditu: batetik, euskararen erabilpena baloratzea tresna moderno eta ludiko baten bidez eta, bestetik, ikasleei tokiko hedabideen garrantzia erakustea. Erreportaje guztiak www.radiokultura.com gunean hedatuko dituzte.

Irratiak, bestalde, webgunea berritu du, eta errazago erabil daiteke orain. Artxiobotako emankizun guztiak erraz aurki daitezke.

BBCko langileek gaur ez dute grebarik egingo

Hala ere, hilaren 19rako eta 20rako egindako greba deialdiari oraingoz eutsi egingo diote

Erredakzioa Donostia

BBCko langileek 48 orduko greba deialdia egin zuten gaurko eta biharko, baina deialdi hori bertan behera uztea erabaki dute. Bihar David Cameron lehen ministroak Alderdi Kontserbadorearen urte-

ko biltzarrean hitzaldia eman behar du, eta azkenean BBCk eman egingo du horren berri.

BBCren zuzendaritzak defizita murrizteko proposamena egin die langileei: norberaren pentsioa zehazteko orduan, etorkizuneko soldata igoerarik kontuan ez hartzea, %1etik harago. Sindikatuek baztertu egin dute proposamena, eta haren aurka protesta egiteko egin zuten aste honetako greba deialdia. Urriaren 19 eta 20rako 48 orduko beste greba deialdi bat egin dute, eta hori mantendu egingo dute akordiorik lortzen ez badute.

→ Laburrak

Blog lehiaketa Bilboko gazte euskaldunentzat

INTERNET Nontzeberri atariak Bilblogari lehiaketa jarri du martxan, Bilboko Udaleko Euskara sailarekin. Bilboaldeko 15-35 urte bitarteko euskaldunentzat da lehiaketa. Lanak azaroaren 22a baino lehen bidali behar dira. Informazio gehiago, www.bilblogari.net gunean.

Tele5-Cuatro bat-egitea mehatxutzat du La Sextak

TELEBISTA La Sextako kontseilari ordezkari Jose Miguel Contrerases adierazi du Tele5-Cuatro bat-egitea «mehatxu larria» dela lehiaren jokoan. «Talde horrek izango duen ahalmena ez da existitzen ia inon», gaineratu du. Bestalde, Contrerases iragarri du La Sexta3 kate berriak azaroan hasiko dituela emisioak. Fikzioa izango da katearen ardatza.

Tele5ren CincoShop katea itxi dute

TELEBISTA CincoShop katea, El Corte Inglesek kudeatzen zuten teledendako katea, itxi egin du Espainiako Industria Ministerioak, legea hausten zuelako.

Berria.info

Berria.info-ko Berria TBn ikus daitezkeen azkeneko bideoak:
 ■ **Debekuen kontrako eta eskubide denen aldeko manifestazio jendetsua Bilbon.**
 ■ **Biltzaileak prest, baina onddorik ez.**
 ■ **CCOOK eta UGTk deitutako Bilboko manifestazioa.**

Agenda

Gaurko filmak

Pirinioetako herrixka batean piztuko da maitasuna

Giza harremanen konplexutasunean murgiltzen den an abila dela erakutsi izan du Cesc Gay zuzendari kataluniarak (*Krampack, En la ciudad*). Film honetan maitasun istorio bat kontatzen du, eta hemen ere ez dio muzin egiten maitasunaren konplexutasunean sakon-

tzeari. Ondorioz, mamitsua da drama erromantiko hau. Mami-tua eta pixkanaka arnasten doan edertasun batek ziprztindua.

Alex gizon lotsati eta barnera-koia da. Zinema zuzendaria da eta azken gidoia idazten ari da. Gidoia amaitzeko emaztearen-gandik eta seme-alabengandik urrunduko da, Pirinioetan lasaitasun pixka bat aurkitu nahian. Mendiko herrixka batean pasatuko dituen egunetan Monica biolin jotzailea ezagutuko du. Bien artean maitasuna sortuko da, eta maitasun hori hazten jo-



ango da egunek aurrera egin ahala. Baina haien arteko senti-menduak azaleratzeko orduan zailtasun emozionalak agertuko dira.

Isiltasunek zein hitzek garrantzia hartzen dute istorioaren kontaktetan. Eta hautu horietan Gayk asmatzen du. Hori bai,

ikusleak nolabaiteko enpatia bat izan behar du pertsonaiekin, istorioan bete-betean murgildu ahal izateko. Behin esfortzu txiki hori eginda, sentiberatasunez betetako lan batez gozatzeko modua izango du filmaren aurrean jartzen denak.

■ Maitane Mitxelena

La revanche de Clint Cooper

■ ETB2, 18:25. Zuz.: Sidney Salkow. Akt.: Audy Murphy, Merry Anders, James Best. AEB. 1964.

Robocop 3

■ La Sexta, 22:15. Zuz.: Fred Dekker. Akt.: Robert Burke, Nancy Allen, Rip Torn, Remy Ryan. AEB. 1992.

An American crime

■ ETB2, 22:40. Zuz.: Tommy O'Haver. Akt.: Catherine Keener, Ellen Page, James Franco. AEB. 2007.

The hunted (La presa)

■ Cuatro, 23:45. Zuz.: William Friedkin. Akt.: Tommy Lee Jones, Benicio del Toro. AEB. 2003.

Mujer blanca soltera busca 2

■ Antena3, 00:00. Zuz.: Keitch Samples. Akt.: Kristen Miller, Allison Lange, Brooke Burns. AEB. 2005.

Qual des orfèvres

■ France2, 00:45. Zuz.: Henri Georges Clouzot. Akt.: Suzy Delair, Bernard Blier, Louis Jouvet. Frantzia. 1947.

→ Telebista

ETB 1

08:55: Mihiluze.
09:25: Elkartasunaren bide-ak.
09:55: Kerman mintzalagun bila.
10:00: Travel notes.
10:25: Gaztea klip.
11:00: Nick dut nik.
11:25: National Geopafic: une zirrargarrienak.
12:15: Kerman mintzalagun bila.
12:20: Bidaide.
14:00: Gaur egun. Amala Cayeroren eta Xabier Usabiagaren eskutik.
14:45: Eguraldia.
14:55: Arratsaldero. Estitxu Fernandezek eta Oihan Vegak aurkeztutako magazin berria.



'Azipimarra' saioa. 20:50

18:00: Iparraldearen orena.
18:05: Kerman mintzalagun bila.
18:10: Arratsaldero. Estitxu Fernandezek eta Oihan Vegak aurkeztutako magazin berria.
20:00: Gaur egun. Saioa Martijaren eskutik.
20:45: Eguraldia.
20:50: Azipimarra. Maddalen Irlartek aurkeztu duen saioa. Gonbidatua: Eider Alkorta eta Laura Garrido.
21:30: Mihiluze.
22:00: Goenkale. Telesaila.
23:10: Kresala.
00:00: Gauberri.
00:30: Azipimarra.
00:55: Zirri eta irri.

ETB 2

08:05: Forum. David Barberoren eskutik. Gonbidatua: Sonia Pascual.
08:30: Egun on Euskadi. Vanesa Sanchez eta Aitzol Zubizarretaren eskutik. Gonbidatua: Aintzane Ezenarro.
10:15: Kerman mintzalagun bila.
10:30: Rex. Telesaila.
11:25: Kerman mintzalagun bila.
11:30: Rex. Telesaila.
13:25: Navarra directo. Albistegia (Nafarroan).
13:30: Euskadi directo.
14:30: Robin Food. David de Jorgeren eskutik.
14:58: Teleberri. Africa Baetaren eskutik.
16:10: A2. Magazinea.



Aintzane Ezenarro. 08:00

18:25: Zinema. 'La revanche de Clint Cooper'. Zuz.: Sidney Salkow. Akt.: Audy Murphy, Merry Anders, James Best. 1964.
20:00: Euskadi directo. Mirian Duqueren eskutik.
20:58: Teleberri. Asier Odriozolak eta Andrea Arrizabalagak aurkeztu duen albistegia.
22:15: La noche de... Felix Linaresen eskutik. (22:40) Zinema. 'An American crime'. Zuz.: Tommy O'Haver. Akt.: Catherine Keener, Ellen Page, James Franco. 2007.
00:25: Teleberri.
00:55: EITB Kultura.
01:25: A2.

Hamaika

09:00: Marrakiz bizidunak.
09:50: Bilbo esnatzen. Magazinea.
12:25: Onein. 'Panaxea'.
12:45: Ikusten. Saskilegia.
13:10: Harrobia.
14:00: Bat eta bat. Magazinea.
14:50: Hamaikakoa. Reala-aren inguruko mahai-ingurua.
15:40: Ur eta lur.
16:15: Erritmoz Bizl.
18:25: Marrakiz bizidunak.
19:00: Kliik. Interneteko bitxi-keriak.
19:30: Herriz herri. Ultzama-koak.
20:00: Gipuzkoa kultura.
20:30: Ikusmira. Urdaibai arraun taldea.
21:00: Bat eta bat. Urtzi Urrutikoetxearen eskutik. Albistegia. (21:20) Hona hemen. (21:30) Elkarrizketa.
22:15: Kiroloak.
22:45: Frontoia. Pilota partida.

ETB 3

16:30: Spirou eta fantasio.
16:55: Dragoi ehiztariak.
17:20: Lamu.
18:20: Jidou jokoak.
18:40: Cliff hanger.
19:00: Herensuge gartsuak.
19:20: Kare kano.
19:45: Avatar-azken aire maisua.
20:05: Valerian eta Laureline.
20:30: Avatar-azken aire maisua.
20:50: Berebiziko espioiak.
21:15: Team galaxy.
21:35: One piece.
22:00: Gaztea klip.
22:35: KTX.
23:00: Gaztea live: Capsula, Gomez eta Paul Weller.
00:35: Abbey road zuzenean III.
01:25: Gaztea klip.

La 1

06:30: Telediario matinal.
09:00: Los desayunos de TVE. Ana Pastorrek aurkeztutako saioa. Gonbidatua: Elena Salgado.
10:15: La mañana de la 1. Mar-tilo Monterok, Jose Angel Leirasek eta Ines Pazek aurkeztu duen magazinea.
14:00: Albistegia.
14:30: Corazón. Anne Igarti-buruk prentsa arrosari buruz aurkeztu duen magazinea.
15:00: Telediario 1. Ana Blancok eta Jesus Alvarezek aurkeztu duen albistegia.
16:05: Eguraldia.
16:15: Amar en tiempos revueltos. Telesaila.
17:00: El clon. Telesaila.
17:30: Mar de amor. Telesaila.



'Españoles en el mundo'. 22:15

18:20: España directo. Pilar Garcia Muñizek aurkeztu duen magazinea.
20:00: Gente. Maria Avizandak aurkeztu duen magazinea.
21:00: Telediario 2. Pepa Buenok eta Sergio Saucak azken berriak biltzen dituen albistegia aurkeztu dute.
22:05: Eguraldia.
22:15: Españoles en el mundo. 'Singapur'. 'Dinamarca'.
23:55: Destino: España. 'Cantabria II'.
00:50: Paddock GP.
01:20: La noche en 24 horas. Albistegia.
02:50: TVE es música.
03:00: Noticias 24h.

La 2

07:30: Para todos la 2.
09:30: Aquí hay trabajo.
10:00: La aventura del saber.
11:00: Creadores.
11:30: Universo matematico.
12:00: La casa encendida.
12:30: Para todos La2.
14:30: Miradas 2.
15:00: La mitad invisible.
15:30: Saber y ganar.
16:00: Grandes documentales. 'Rusia salvaje'.
17:00: Documentales naturaleza. 'Echo y los elefantes de Amboseli'.
17:25: Documentales culturales. 'La caravana del manuscrito andalusí'.
18:25: Bidiario.
18:30: Creadores. 'Antonio Abad, la medida del espacio'.



Javier Muguruza. 01:05

19:00: Paso a paso con Nacho Duato. 'Arenal'. Dantza ikuskizuna.
19:30: El hombre y la tierra (fauna iberica).
20:00: La 2 Noticias.
20:30: Miradas 2.
21:00: Pagina 2. Elkarrizketa-tua: Jean Echenoz idazlea.
21:25: La fabrica.
21:35: Nube de tags.
22:00: Zinema. 'Ficción'. Zuz.: Cesc Gay. Akt.: Eduard Fernandez, Javier Camara, Montse German. 2006.
23:45: Con visado de calle.
00:20: Crónicas.
01:05: Conciertos de Radio-3. Javier Muguruza.
01:35: Pagina 2.

Antena 3

06:00: Las noticias de la mañana. Sandra Golpe eta Luis Fragak aurkeztu duen albistegia.
08:45: Espejo público. Susanna Grisoren eskutik. Gonbidatua: Jose Blanco.
12:30: La ruleta de la suerte. Jorge Fernandezek aurkeztu duen lehiaketa.
14:00: Los Simpson. 'Mi gran boda empollona'. 'El director y el pollo'.
15:00: Antena 3 Noticias 1. Roberto Arcek, Monica Carrillo eta Ainhoa Arbuzuk aurkeztu duen albistegia.
16:00: Zinema. 'El enigma celta'. Zuz.: Anthony Pullen Shaw. Akt.: Angela Lansbury, Fionnula Flanagan. 2003.



'Espejo público'. 08:45

17:45: 3D. Gloria Serrak aurkeztu duen magazinea.
18:45: El Diario. Sandra Daviuk aurkeztu duen saioa.
20:15: Karlos Arguiñano en tu cocina. Gonbidatua: Ferran Adria.
21:00: Antena 3 Noticias 2. Matias Pratsek eta Manu Sanchezek aurkeztu duen albistegia.
22:00: Fisica o química. Telesaila. 'Crisis'.
00:00: Zinema. 'Mujer blanca soltera busca 2'. Zuz.: Keitch Samples. Akt.: Kristen Miller, Allison Lange. 2005
01:45: La noche mix.
02:45: Adivina quién gana esta noche.



Argiñano eta Adria afaria prestatzen

Ferran Adria El Bulli jatetxearen jabea izango da Karlos Argiñanoren aste honetako gonbidatua berezia. Test gastronomikoa egingo diote Kataluniako sukaldariari, eta berak proposatutako errezeta prestatuko du Argiñanok afaltzeko: txerri hankaz eta mihiaz beteriko piper berdeak.


'Kartos en tu cocina'. Antena 3, 20:15.



Filmatze arazotsuak aztergai

Atal bat estreinatuko dute *La noche de...* saioan: *Aquí no hay quien ruede* izenburupean, zinemaren historian izandako filmatze arazotsuak aztertuko dituzte. Aktoreen arteko liskarrak, parranda amaigabeak eta handinahien arteko talkak dira arazo larrienak, *Espartaco* filmean gertatu zen legez.

'La noche de...'. ETB2, 22:15.



Lanperna bila aterako dira 'Kresala' saioan

Lanperna arrantzatzerara joango dira gaurko saioan. Lanperna bilatzen aditua den batekin izango dira, tarmaina eta arrantzatze teknikei buruz azalpenak emateko. Jarraian, Gaztelugatxe Doniene baseliza eta itsasoko mareen indarrarekin mugitzen den Euskal Herriko errota bakarria bisitatuko dituzte.

'Kresala'. ETB1, 23:10.

Irratia

Euskadi Irratia. Afrikari buruz hitz egingo dute *Faktoria* irratsaioan. Kontinente beltzean boluntario gisa lanean ibilitako pertsona bat izango da irradian, Arantzazu Urreizti, eta bizitako esperientzia eta abenturen berri emango du. Bestalde, Euskal Western elkarteko ki-deekin euskal cowboyen inguruan mintzatuko dira. *Passion for knowledge* jardunaldietan parte hartu zuten lau ikerlari gazte gonbidatuko dituzte *Mezularia* saiora. Autismoari buruz jardungo dute *Ilargipean* irratsaioan. Gaixotasuna zertan datzan azalduko dute, eta maila eta motel buruz hitz egingo dute. Autismoa tratatzeko bideak erakutsiko dituzte, eta sendian pertsona autistak dituzten pertsonekin mintzatuko dira.

Radio Euskadi. The Brew musika talde ingelesari buruz hitz egingo dute *La Jungla Sonora* saioan, 16:00etan.

FM

89.2 Segura irratia
89.7 Antxeta irratia
91.4 Euskalerría irratia
91.8 Irulegiko Irratia
93.6 Arrate irratia
94.4/95.2 Euskadi irratia
95.5 Xiberoko Boza
96.0 Bilbo Hiria
97.0 Tas-Tas irratia
99.8 Herri Irratia
101.3 France Bleu Pays Basque
102.6 Bizkaia irratia
103.5 Gaztea
106.6 Gure Irratia
107.0 Eguzki irratia / Oiarzun irratia
107.5 Txolarre irratia
107.5 Xorroxin irratia
107.7 Hala Bedi

AM

1224 Herri Irratia

Internet

www.info7.com Info7

Cuatro

07:00: Matinal Cuatro. Ana García Sinerizek aurkezten duen albistegia.
09:05: Alerta Cobra. Telesaila. 'Pecado y expiación'. 'En manos del enemigo'. 'La hora de la verdad'. 'Asunto familiar'.
12:55: Las mañanas de Cuatro. Concha García Campoyk aurkezten duen magazinea.
13:55: Noticias Cuatro. Azken berriak biltzen dituen albistegia.
14:50: Deportes Cuatro.
15:40: Tonterías las justas. Florentino Fernandezek aurkezten duen umore saioa.
17:05: Fama Revolution. Paula Vazquezek aurkezten duen dantza lehiaketa.



'Los pilares de la tierra'. 22:30

18:50: Dame una pista. Lujan Arguellesek aurkezten duen lehiaketa.
20:00: Deportes Cuatro.
20:30: Noticias Cuatro.
21:30: El hormiguero. Pablo Motosen eskutik. Gonbidatua: David Otero.
22:30: Los pilares de la Tierra. Telesaila. Zuz.: Sergio Mimica-Gezzan. Akt.: Ian McShane, Hayley Atwell, Eddie Redmayne. 2010.
23:45: Zinema. 'The hunted (La presa)'. Zuz.: William Friedkin. Akt.: Tommy Lee Jones, Benicio del Toro. 2003.
01:35: Zinema. 'Impacto lunar'. Zuz.: Terry Cunningham. Akt.: Stephen Baldwin. 2006.

Tele 5

06:30: Informativos Telecinco. Daniel Gomezek eta Hilario Pinok aurkezten duten albistegia. (08:00) Manuel Chaves elkarrizketatuko dute.
09:00: El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkezten duen magazinea.
12:45: Mujeres y hombres y viceversa. Emma Garciak aurkezten duen saioa.
14:30: De buena ley. Sandra Barnedak aurkezten duen saioa. 'Papá no me gusta tu novia'.
15:00: Informativos Telecinco. David Cantero eta Marta Fernandezek azken berriak biltzen dituen albistegia aurkezten dute.



'Sálvame diario'. 15:45

15:45: Sálvame diario. Jorge Javier Vazquezek prentsa arrosari buruz aurkezten duen magazinea.
20:00: Pasalabra. Christian Galvezek aurkezten duen lehiaketa.
20:55: Informativos Telecinco. Pedro Piqueras eta J.J. Santosek azken berriak biltzen dituen albistegia aurkezten dute.
22:00: Enemigos íntimos. Santiago Acostak aurkezten duen saioa.
02:30: El territorio del 5. Lehiaketa berria.
04:00: Infocomerciales.
05:00: Fusión sonora. Musika saioa.

La Sexta

07:00: La Sexta en concierto.
08:10: Lo mejor de la Sexta.
08:30: La tira. Umore saioa.
10:20: Crímenes imperfectos.
12:35: Yo detective.
13:00: Crímenes imperfectos: ricos y famosos.
14:00: La Sexta Noticias. Azken berriak biltzen dituen albistegia.
14:55: La Sexta Deportes. Ki-rol tartea.
15:25: Sé lo que hicisteis. Patricia Conde eta Angel Martinek aurkezten duten magazinea.
17:10: Numb34s. Telesaila. 'Realidad falsificada'.
18:05: Caso abierto. Telesaila. '08:30am'.



'Caso abierto' telesaila. 18:05

19:00: Navy: Investigación criminal. Telesaila. 'Agente a bordo'.
20:00: La Sexta Noticias.
20:55: La Sexta Deportes.
21:30: El intermedio. Wyomingek eta Beatriz Montanek aurkezten duten umore saioa.
22:15: Zinema. 'Robocop 3'. Zuz.: Fred Dekker. Akt.: Robert Burke, Nancy Allen, Rip Torn. 1992.
00:10: Buenafuente. Andreu Buenafuenteren eskutik. Gonbidatuak: Fernando Leon de Aranoa eta Magaly Solier.
01:30: El intermedio.
02:25: Astro TV.

TF1

06:45: TFOU. Marrazki bizi-dunak.
08:30: Teleshopping.
09:20: Lipstick jungle.
10:10: Une famille en or. Christophe Dechavanneren eskutik.
11:05: Secret Story. Benjamin Castaldiren eskutik.
12:00: Le 12 coups de midi! Jean-Luc Reichmannek aurkezten duen saioa.
13:00: Journal. Albistegia.
13:55: Les feux de l'amour. Telesaila.
14:50: Telefilm. 'Le poids des souvenirs'. Zuz.: David Wellington. Akt.: Annabeth Gish, Chandra West. 2008.
16:35: New York, Police judiciaire. Telesaila.



'Les experts: Miami'. 20:45

17:25: Grey's anatomy. Telesaila. 'La loi du silence (2/2)'.
18:20: Secret Story. Benjamin Castaldiren eskutik.
19:10: Une famille en or.
20:00: Journal. Albistegia.
20:45: Les experts: Miami. Telesaila. 'Miami, on a un problème'. 'Fenêtre sur meurtre'. 'Dernières vacances'.
23:15: Voisins: vont-ils se mettre d'accord?. Magazinea.
00:45: Pascal, le grand frère. Magazinea.
02:50: Secret story. Benjamin Castaldiren eskutik.
03:40: Sept à huit.
04:35: Sur les routes d'Ushuaia.

France 2

06:30: Télématin.
09:10: Des jours et des vies. Telesaila.
09:35: Amour, gloire et beauté. Telesaila.
09:55: C'est au programme.
10:55: Motus. Lehiaketa.
11:25: Les z'amours. Texek aurkezten duen lehiaketa.
12:00: Tout le monde veut prendre sa place. Naguik aurkezten duen lehiaketa.
13:00: Le Journal. Albistegia.
14:00: Toute une histoire. Sophie Davanten eskutik.
15:15: Comment ça va bien! Stephane Bernek aurkezten duen magazinea.
16:20: Le Renard. Telesaila.
17:20: En toutes lettres. Lehiaketa.



'Toute une histoire'. 14:00

18:00: On n'demande qu'à rire. Laurent Ruquierek aurkezten duen magazinea.
19:00: N'oubliez pas les paroles! Naguik aurkezten duen saioa.
20:00: Journal.
20:35: La maison des Roches. Telesaila. 'La maison des tourments (2/5)'. Zuz.: Jacques Otmzguine. Akt.: Alexandre Brasseur, Virginie Desarnauts.
22:15: Face aux Français... Magazinea.
00:25: Journal.
00:45: Zinema. 'Quai des orfèvres'. Zuz.: Henri Georges Clouzot. Akt.: Suzy Delair, Bernard Blier. 1947.

France 3

10:45: Côté cuisine.
11:15: Plus belle la vie.
11:45: Le 12/13.
13:00: Direct chez vous!
13:55: En course sur France 3.
13:50: Inspecteur Derrick.
15:00: Assemblée nationale.
16:05: Nous nous sommes tant aimés.
16:45: Slam. Lehiaketa.
17:25: Des chiffres et des lettres.
18:00: Questions pour un champion.
18:40: Le 19/20.
20:10: Plus belle la vie.
20:35: Chabada. 'Spécial Séducteurs de la chanson française'.
22:40: Soir 3.
23:05: Ce soir (ou jamais!). Magazinea.
00:20: Vie privée, vie publique, l'hebdo.
01:30: Politiquement incorrect.

Arte

17:40: X: enius.
18:05: 360, GEO.
19:00: Arte Journal.
19:30: Signé chanel. 'Le Douce'.
19:55: Alaska. 'Le parc national de Glacier Bay'.
20:40: Les Tudor. Telesaila. 'Ambitions contrariées'.
22:15: Thema: 'Chine, une jeunesse dans le vent'.
22:25: Le Chinatown de Hambourg. Dokumentala. Zuz.: Reinhardt Beetz. Alemania. 2009.
23:25: Les écoliers chinois sous pression. Dokumentala. Zuz.: Marije Meerman.
00:20: Agenda coup de coeur arte culture.
00:25: Au coeur de la nuit. 'Juliette Lewis eta Crispin Glover'.

Plaza > Kultura



Jesus Mari Lazkano, atzo, Bilboko erakusketan, *Giacometti Gorbeian galduta* margolana atzean duela. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Baztertzen, ezabatzen, egiara iristeko

Jesus Mari Lazkanoren obra esanguratsuen erakusketa zabaldu du Arte Eder museoak

Bilboko museoa bera ardatz duen serie berri bat eta Mies van der Rohe eta Wrighten omenez eginiko margolanak daude ikusgai

Irune Berro Bilbo

Arkitektura eta naturarekin batera, denbora da Jesus Mari Lazkanoren (Bergara, Gipuzkoa, 1960) pinturaren ertzetako bat. Ez nolanhikoa. «Denbora ez da alferrik igarotzen, eta denborak nire

obra osoa markatzeaz gain, gauza bat irakatsi dit: eraikitzea, gehitzea eta pintatzea bainoago, baztertzea eta garbitzea eta ezabatzea dela esentziaren sakonera iristeko bidea, egia gailentzeko modua».

Denboraren iragaitearekin



Mies van der Roheren omenez eginiko lana. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



Antxoras margolana, Bilboko Arte Eder museoan. LUIS JAUREGIALTZO / ARP

batera jasotako irakaspen horrek arrastoa utzi du Lazkanoren lanetan. Bilboko Arte Eder museoan irekitako *Arkitekturatik naturara* erakusketan bildutako 80tik gora lanek pintoreak urrututako ibilbidearen berri ematen dute. 1999tik 2006ra artekoak daude batetik; eta Arte Eder museo bera ardatz harturik berriki ondurikoak, bestetik. Azken horiek aurrenekoz daude jendaurrean ikusgai.

Txillida eta Oteiza, basoan

Hogei inguru dira, denera, Bilboko pinakotekan oin hartuta Lazkanok sortu dituen lanak. Museoak, hots, eraikinak indar nabarmena du serie horretako lanetan, baina emeki-emeki paretak desgertuz doaz, eta lerro zurrin horizontal eta bertikalak ezabatuz.

Arkitekturak naturari irekitzen dio bidea; edo naturak berak berreskuratzen du arkitekturak aurrez ebatsi dion espazioa. Paretan ordez, leiho zabal eta beiratek hartzen dute tokia, eta museoaren kanpoaldeko parkeak indarra hartzen eta presentzia irabazten du, lan batzuetan baso itxura hartzeraino.

Txillidaren eskulturak elurrak zuritutako baso sakonean daude orain. Eta baso horretako haize mehe hotzak zeharkatzen ditu Oteizaren esferen espazio hutsak. Naturak arkitekturari gaitza

34» Alberdaniak eta Ereinek bat egin dute Batera sailean, nazioarteko liburuak euskaratzeko

35» 'Nor bere bidea', J. M. Irigoienen 'Orbetarrak' trilogiako hirugarren alearen aurrerapena

hartzen dion heinean azalarazten dira Lazkanoren naturari hertsiki loturiko arkitekturak.

Jose Maria Uzelaik *San Bartolomeko bolo partida* koadroan margotutako zerua itsaso bihurtu du Lazkanok *Gure Uzelai zerruan zarana* margolan handi ederrean. Eta Giacomettiren hanka luzeko gizonetako bat Gorbeiaiko negu hotzera eramanean du, basoan galdaraziz.

Etengabeak dira pinakotekaren bilduma osatzen duten artistei eginiako keinuak. Durero, Bacon, Mogrobojo eta Serraren obrez mintzo diren obrak osatu ditu Lazkanok, ohikoa duen errealismo zorrotzaz. Eskulturez eginiako margolanak argazkiak dirudite askotan.

Tamaina handiak lilura areagotzen du zenbaitetan. Ia arnasa eteterainoko zirrara sentiarazten dute, besteren artean, *Antxoras* eta *Alvar Aalto buscando la luz en Arratxu* margolanek.

Lazkanoren azken urteei begirako erakusketa izanik, ezin zitezkeen faltatu Frank Lloyd Wright eta Ludwig Mies van der Rohe arkitektoen omenezko lanak.

Txillida eta Oteizaren eskulturak elurrak zuritutako basoan daude orain

Jose Maria Uzelairen 1935eko margolan bateko zerua itsaso bihurtu du Lazkanok

2006. eta 2007. urteen inguruan sortuak, arkitektura eta natura bateratzeko artistak izan duen irrikaren erakusle gailenak dira. Wrighten Fallingwater etxea eta Mies van der Roheren Chicagoko Farnsworth etxeak ageri dira koadroetan. Paraje naturaletan daude biak, landaredia berde eta hostotsuaren artean, eta kanpoko espazio horrek, naturak, arkitektura harrapatzen du, hau da, etxeen barrualdea.

Lanok egin zituenean, arkitekturaren alderdi gogorra jorrazetik zetorren Lazkanok, eta gero eta gehiago erakartzen zuen naturari bidea egiten uzteko joerak. Etxe biak arkitektura modernoaren paradigma dira, baina naturak bizi ditu, zuhaitzek, urak, landarediak.

Lazkanoren arkitektura, oro har, naturak bizi du. Arkitektura eta naturaren arteko borroka eta elkargunea da artista gipuzkoararen obra.

Figurazio berria, errealismo berria edota plastizismo berriaren barruan sailkatu izan dute adituek. Alabaina, modu batera edo bestera izendatuz, Lazkanok ez dio mugarik jartzen bere pinturari, etengabean elkarri gainjartzen zaizkion arkitekturari eta

«Askotan, artistak gezurra esaten du hitz egiten duenean; artelanetan dago haren egia»

Lazkanok atondu du erakusketa, komisariarik gabe, ikusleekin lotura azkeneraino edukitzeko eta zaintzeko xedez

I. B. Bilbo

Jesus Mari Lazkanok dio artistak ez duela egia osoa esaten, hitz egiten duenean. Are gehiago, hauxe uste du: «Askotan gezurra esaten du artistak». Lazkanoren irudiko, «artelanetan dago artistaren egia». «Pintatzean, artistak ez gara guztiz lasai geratzen. Ez dakigu nahi dugun hori nahi dugun moduan geratuko den koadroan, ez-

ta ikusleak nahi dugun irakurketa egingo duen ere», azaldu du.

Horregatik, Lazkanok egin du erakusketako komisario lana, alegia, artistak berak hautatu ditu lanak eta horiek erakusteko lerroak. Orobat, Lazkanok idatzi ditu erakusketaren harira museoak argitaratu duen katalogoko testuak. Idatzi horien bitartez, «margolanen emozioetan barrena» gidatunahi du ikuslea, «jakindezan zergertatu den margolan hori sortu aurretik, bitartean eta ondoren». Artistarentzat «garrantzitsua da ikusleak obra bakoitzaren egoera eta baldintzen berri izatea. Eta artista horren ibilbideak zein ezaugarri duen jakitea, baita artearen historiaren zein erreferen-

tzia baliatzen dituen ezagutzea ere».

Irudia, amua baino ez

Esan beharrik ez dago arkitekturaren historiak sekulako itzala du Lazkanoren obran, Erromatik New Yorkera. Bi polo horietan mugitzen da haren pintura. New York espazioaren hiria; Erroma, denborarena. «New York gehiegizkoan oinarritzen da; gehiegizko dentsitate, abiadura eta tentsioan. Aldiz, Erroma denboraren estatigrafia da».

Bi mutur horien erakusle dira erakusketaren hasieran paratutako lanetako bi: *Ombra della memoria a New York* eta *Ombra della memoria a Roma*, 2004koak biak.

Lazkanorentzat, «pintura erakuntza intelektuala da, eta erakuntza horrek gogoetara zaramatza». Baina ikusleari zer pentsatua emateko, eta, esate baterako, Erromak eta New Yorkek bere obran duten garrantziaz jabetzeko «emozioen atea irekitzea» ezinbestekoa dela uste du. «Obraren irudia amua baino ez da, ikuslea harrapatu behar du. Izan ere, ikusleak osatzen du obra. Pintura ez da pintorearen lana soilik. Margolana ez dago amaitua. Lan horrek jasotzen dituen narrazioak deskodetzeko zeregina ikusleak dauka. Nola deskodetzen dituen gutxienezkoa da ia; obra amaitzeko prozesuan parte hartzea, hori da garrantzitsua».



Jesus Mari Lazkanok eta Bilboko Arte Eder museoaz eginiako margolan serieko hiru lan. LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS

naturari jartzen ez dizkien bezala. Arkitektura ordena da, erregularra, zurruna, hotza, trinkoa. Ordea, natura organikoa da, librea, malgua, kaotikoa. Eta pintorearen obran harreman ezegonkorra dute elementu biek. «Kiribil modukoak dira; gora eta behera egiten dute; aurrera eta atzera; baina inoiz ez diote elkarri hartzen guztiz».

Erakusketan aurkeztutako lan guztietan antzeman daiteke harreman bihurria, seriea eta urtea edozein dela ere.

ERAKUSKETA

- **Izenburu:** 'Lazkanok. Arkitekturatik naturara'.
- **Lekua:** Bilboko Arte Eder museoa.
- **Noiz arte:** 2011ko urtarrilaren 16a arte.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2010

KAMPORAKETA

urriaren 10ean, MUNGIAKO OLALDE ARETOAN 17:30ean

**OIHANA BARTRA
XABIER ENBEITA
JULEN EREZUMA
ITSASO PAIA
ANDER ELORTEGI
JULEN SOLOLUZE**

**Gai-erakunde:
MAITE BERRIOZABA**

berria

Kimuak katalogoko film laburrek 800 jaialditan parte hartuko dute

Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira deialdira, eta aurreko urteetan baino film bat gehiago sartu dute katalogoan

Erredakzioa Donostia

Kimuak 2010 katalogoko bederatzia film laburrak 800 zinema jaialditara bidaliko dituzte Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskal Filmategiak. Inoiz baino film labur gehiago aurkeztu dira Kimuak katalogorako hautaketaren azken deialdira, 72 guztira, eta bederatzia izan dira aukeratuak, aurreko ekitaldian baino bat gehiago. Ekoizpenaren hazkundea eta «batez besteko maila urtetik urtera hobea izateak» bulztatu dute epaimahaia katalogoan film bat gehiago sartzera, Txema Muñoz Kimuak katalogoaren koordinatzaileak azaldu duenez.

Katalogoko lanen kalitatearen frogatzat jo ditu Muñozek horietako batzuek jasotako sariak. Isabel Hergueraren *Ámár* Espainiako animazioko film laburrik onena izendatu dute, adibidez, Madrilgo Animadriid 2010 jaialdian. Hauek dira beste zortzi lanak: Asier Altunaren *Artalde*, Angel Aldarondoren *Ondar ahoak*, Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxeren *Exhibition 19*, Kote Camachoren *La gran carrera*, Miguel Angel Jimenezen *Khorosho (Todobien)*, Elias Leon Siminiariaren *El premio*, Enrique Garcia eta Ruben Salazarren *Daisy Cutter*. *La cortadora de margaritas* eta Borja Kobeagaren *Un novio de mierda*.

Nazioartean onetsitako liburuak kaleratuko dituzte Alberdaniak eta Ereinek

Lankidetzan sortu dute Batera saila, eta Arnaldur Indridason eta Suzanne Collinsen obra banarekin abiarazi

Juan Luis Zabala Donostia

Publiko zabal batentzat egokiak izanik, nazioarteko merkatuaren zirkuituetan «onespen bikaina» jaso duten—edo jasotzeko bidean diren—liburuak euskaraz argitaratuko dituen saila sortu dute, lankidetzan, Alberdania eta Erein argitaletxeek. Batera du izena sail berriak, eta Suzanne Collinsen *Dena sutan* eta Arnaldur Indridasonen *Hilobiko isiltasuna* nobelekin jarri dute abian. Lehen bi liburuak nobelak diren arren, beste genero batzuetako lanetara ere irekia dago Batera saila.

Sailaren erronka nagusietako bat nazioarteko merkatuan zirkulazio handia duten—edo izango duten—liburuak atzeman eta haien euskarazko itzulpena inguruko hizkuntzetako itzulpenekin batera kaleratzea izango da, edo ahalizanez gero lehenago. Saileko hurrengo liburua—*Arcadia iratzarria*, Kai Meyerren *Arcadia* trilogiako lehen nobela—alemanez idatzia da jatorriz, eta euskarazko itzulpena gaztelaniazkoa zein frantsesezkoa baino lehenago iritsiko da plazara.

Bi argitaletxeetako arduradunek argi utzi dute Batera bi argitaletxe burujaberaren arteko lankidetzaren ondorioz sortutako saila dela eta sail berriak ez duela ordezkaturiko argitaletxe bakoitza



Koro Navarro, Jorge Gimenez Bech, Olatz Soraluze, Inazio Mujika eta Iñaki Aldekoa, atzo, Batera sail berriaren aurkezpenean. JAGOBA MANTEROLA / ARP

bere kabuz lehendik egiten ari den lana. «Argitalentzari buruzko diagnostia partekatzen dugulako izan da posible lankidetzan», azaldu du Jorge Gimenez Bech Alberdania argitaletxeako arduradunak. «Bat gatz aro digitalak ekarriko dituen aldaketan inguruko diagnostian, eta baita ere arazo horiei eman beharreko irtenbidea aztertzerakoan eta mamitzerakoan». Alberdaniak eta Ereinek «lan eta harreman estiloan» ere bat egiten dute, eta bost goiburu finkatu dituzte beren lankidetzaren ezaugarritzat: leialtasuna, eraginkortasuna, erantzukizun soziala, aniztasuna eta lehiakortasuna.

Horretaz gain, Libenet enpresa berria aurkeztuko dute Ereinek eta Alberdaniak hilaren amaieran, beste bi bazkiderekin lankidetzan. Liburugintzaren industriari «eduki digitalen banakuntza eta konponbide teknologikoa»

eskainiko dizkio Libenetek, Olatz Soraluze Erein argitaletxeako gerenteak aurreratu duenez.

Merkatuak onetsitako bi obra

Koro Navarrok euskaratu du Suzanne Collinsen *Dena sutan (Catching Fire)* jatorrizkoan, *Gose jokoak (The Hunger Games)* trilogiako bigarren nobela. Trilogiako lehen nobela—*Gose jokoak*—iaz kaleratu zuen Alberdaniak, Koro Navarrok euskaratua hura ere. Zientzia fikzioko nobela da, gerrak suntsitutako etorkizuneko AEBetako *reallity* gordin batean gertatuak kontatzen dituena.

Arnaldur Indridasonen *Hilobiko isiltasuna* Julen Gabiriak euskaratu du, ingelesetik abiatuta. Erlendur Sveinsson inspektorearen ikerketa baten berri ematen duen polizia nobela da. Reykjavíkeko urbanizazio berri batean agertutako giza hezurak ditu abiapuntu ikerketa horrek.

→ Laburrak

Montxo Armendariz lan berria filmatzen hasiko da

ZINEMA › *No tengas miedo* izenburua izango du Montxo Armendariz zinemagile nafarraren film berria. Hautzarroan sexu gehiegikeria pairatu duen neskatxa baten istorioa kontatuko du. Iruñean eta inguruetan hasiko dira filmatzen azkar baino lehen. Michelle Jenner, Belen Rueda eta Luis Homar aktoreek jokatu dituzte pertsonaia nagusien rola.

Kirmen Uriberen bilduma euskaraz eta katalanez

LITERATURA › Kirmen Uriberen poemez osaturiko bilduma zabalena argitaratuko du Proa argitaletxe katalanak, euskaraz eta katalanez. Laia Noguera eta Jon Elordi izan dira itzultzaileak, eta *Bitartean heldu eskutik, Zaharregia, txikiegia agian* eta beste poema berriago batzuk dakartza ale berriak.

Luis Iriondok jasoko du II. Ekintzaile saria

MUSIKA › Azkoitiko Antonio Oteiza Fundazioak Luis Iriondori emango dio II. Ekintzaile saria. Zinema eta musikaren munduan egindako lanagatik da ezaguna Iriondo. Etzi egingo da ekitaldia, Azkoitiko Oteiza frontoietan, 19:00etan.

Alondegia mediateka irekiko du urriaren 24an

AZPIEGITURAK › Bilboko Alondegia urriaren 24an irekiko du mediateka. Aurrez, haren erabiltzaile izan nahi dutenek, eralkina ezagutzeko aukera izango dute hilaren 8tik 23ra egingo diren bisita gidatuen bidez.

Eneritz Zabaleta nagusitu da Saran jokaturako kanporaketan

Ipar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bi finalurrekoetan parte hartuko dutenen zerrenda osatu da

Erredakzioa Baiona

Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko Bertsolari Txapelketako kanporaketak larunbatean bururatu ziren Saran (Lapurdia). Eneritz Zabaleta baionesak eskuratu zuen lehen lekua, 214 puntuekin, eta bigarrena, Mixel

Aire *Xalbador II* urepeldarrak, 204 puntuekin. Hirugarren Ekhi Erremundegi baionesa izan zen, 186 puntuekin.

Orain, bi final aitzinekoen aldi da. Horietan parte hartuko dutenek osatu zerrendan, kanporaketa saioetako bi lehenak zuzenean sartu dira. Hau da, Odei Barroso, Patxi Iriart, Kristiñe Txoperena, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta eta Mixel Aire. Baina txapelketa hasi aitzin jakinarazi bezala, Kristiñe Txoperenak uko egin dio kantatzeko aukera horri, ez diolako bere buruari presiorik ezarri nahi. Hasieran lau puntuazio

onenen jabeak sailkatzen ziren, baina antolakuntza taldeak bosgarrena ere sartzea erabaki du Txoperenaren hutsunea ordezkatzeko. Ondorioz, Miren Artetxe, Ximun Cazaubon, Gillen Hiribarren, Joanes Etxebarria eta Ekhi Erremundegi ere sailkatu dira.

Lehen finalurrekoa urriaren 16an finkatua dute, Luhuson (Lapurdi), 17:00etan, Harri Xuria aretoan. Amets Arzallus, Odei Barroso, Eneritz Zabaleta, Xumai Murua, Gillen Hiribarren eta Ekhi Erremundegi ariko dira. Ondoko finalurrekoa urriaren 23an iraganen da, Gabadin.



Areto nagusia. 19:30

Poesia eta kantua

Poesia bi botzetan

Poesia eta musika emanaldia

Urriak, 5 | asteartea

Itxaro Borda. Testuak eta irakurketa
Pierre Paul Berzaitz. Kantaria
Karlos Gimenez. Pianoa
Xanet Arozena. Gitarak



www.gipuzkoa.net/kultura

Urdaneta kalea, 9
20006 Donostia



Liburu aurrerapena →

Nor bere bidean (Orbetarrak III)


Gabino:

Ez dakit gutun hau bidaliko dizudan ala ez. Baina idatzi, bai, orain-txe idatziko dizut, bai baitakit, zuri idatzi arren, neure buruarekin ere ari naizela, ea ariketaren ondorioz barrua hustu eta lasai gelditzen naizen, hori gutxienez. Izan ere, garbi utzi nahi nuke gure arteko kontu bat... nahiz eta gero eta garbiago ikusten dudana nekez hitz egin daitekeela garbi zehar, Freudek inkontzientearen lurralde ezezagun sekretuz josia aurkitu zuenetik. Baina garbi hitz egin ezin bada ere, ahalik eta garbien hiz egiten ahaleginduko naitzaizu. Uste dut, gainera, argi eta garbi hitz egin dezakedala Jainkoari buruz, horixe baita kontua, horixe gure arteko eztabaida. Zuri esateko, konparazio batera, ezetz, ez dudala Jainkoa sinesten. Beharrik ere ez, egia esan. Baina egiaztapen horrek ez zaitu ezustean harrapatuko, zuk zeuk ere ederki antzeman baitzenion zer sinets nezakeen eta zer ez zeure meza berrian... baita lehenagotik ere, behar bada, ama eta zu Pagoagako Ama Birjinaren ustezko agerketekin itsututa ibili zineten garaian, zorrotz ibili bainintzaizun behin baino gehiagotan, eta zuk deabrua bera baintz bezala begiratzeko baitzenidan, pena handiz, bai, baina baita nazkarekin eta beldurrarekin ere, nik uste. Elorrietako komentuan meza berria eman zenuen egunean, baina —1942ko udazkenaren egun hegohaizetsu bat izan zen—, erabakitasun handiz zuzendu zintzaizkidan, zalantzarik izan ez zedin...

Meza eman ondoren izan zen, zuk santutegi zaharreko atariko arkupean zain zenituenak —zure lagun fraideak ez ezik, dozena eta erdi bat lagun ere bildu ginen zure ingurura, tartean izeba Ernestina... baita gure lehengusu Natalio ere, gurpil-aul-

ki batean ibiltzera kondenatua zegoen Teofilo Mariaren ordezkari gisa— agurtuta gero. Mementoa ere ederki aukeratu zenuen —aita eta Bibi ere ez ziren etorri: aita perlesiak jota genuen etxean eta Bibi hura (baita Teo ere) zaintzen—, ni bakar-bakarrik bainengo metro batzuk harantzago, arkupetik at, nora etorri baitzinen zuzen-zuzenean. Eta, ukondotik heldu eta begietara so egiten zenidala, halaxe esan zenidan bat-batean: «Badakit ez duzula Jainkoagan sinesten, baina zaudela lasai, noizbait sinetsiko duzue eta». Ezustean harrapatu ninduzun, baina zu ere urduri zeunden: urduri eta pozik. Zure jarrera, hala ere, ez zen Pagoagako garaian erakutsi zenidanaren antzekoa, eta beraz, ez zeunden defentsiban; aitzitik: ziur zeunden. Arrazoi bat ere bazenuen, itsu sinesten zenuena eta berehala aditzera eman zenidana: «Nik huts


egin dezaket, baina Jainkoak ez, eta nire meza berria orbetarron salbazioaren alde eskaini dut: zure arimaren salbazioaren alde bereziki...». Eta hara, orduantxe erreakzionatu nuen: nola ez, bada, erraiak irauli baitzitzaizkidan, zu oharatu ez bazinen ere... hainbestekoa izan zen zure irri autoaskiak egin zidana mina! Badakit nire erreakzio hura —barruan gorde behar izan nuena, zer erremedio!— harrokeriatzat hartuko duzula; niri, ordea, zure jarrera iruditu zitzaidan, hanpurrutsua eta hantustetsua ez ezik, ezin onartuzkoa ere, pauma batek bezala zabaldu baitzenidan zeure argudioaren isats koloretzua, erakuskeria hutsean... luma haiek ez baitzuten ezer funtsezkorik gordetzen, errealtatezotzat jotzen ez dudana errealtate batetik ari zintzaizkidana eta, azken batean. Eta zer-nolako gogoia etorri zitzaidan, zuri orduantxe



Joan Mari Irigoienek (Altza, Gipuzkoa, 1948) aste honetan aurkeztuko du 'Orbetarrak' trilogiako azken nobela: 'Nor bere bidean' (Elkar). Damasok eta Gabinok, orbetarren sagako azken ordezkariak, norgehiagoka isil eta itsua bizi izan dute txikitatik, izateko, sentitzeko eta pentsatzeko bi era kontrajarri hezur-mamitzen dituztelako: Damaso arrazionala eta eszeptikoa da, munduaren minek mindua eta jendailak nardatua; Gabino, berriz, sentikor eta sentibera, xaloa eta ameslaria, bere kontraesan guztiakin haraindi baten sinesmena gorde eta honaindiko Euskal Herria aldeztu nahi lukeena.

erantzuteko: «Jainkoa ipuin bat da, eta hil zen ipuineko protagonista, baina zuri ez zaizu Nietzsche interesatzen, jakina. Ondorioz, ez dago zerurik ez infernuri, ez hil ondoko saririk eta ez kondenarik. Bizitza den bezalako da eta alferrikakoa da besterik asmatzen ibiltzea. Ezerezetik gatzoz eta ezerezera goaz, hori baino gauza zuzenagorik... ezerezak ez baitu sufritzen, eta ezereza ez baita zoritxarra! Bagatuz, bagoaz, eta ez da ezer pasatzen. Edo pasatzen den gauza bakarra da gu pasa egiten garela. Gogoratu Senekaren hitzak: 'Hoc erit post me quod ante me fuit'...». Gauza gehiago ere bururatu zitzaitzidan, erantzun luzea etorri baitzitzaidan, hitz batek beste hitz batera ninderamala, eta esaldi batek beste esaldi batera: alferrik, hura ez baitzen ezer esateko memento, bistan da, eta isilik gelditu nintzaizun. Gaur arte.

Are garbiago mintzatuko naitzaizu, jakin dezazun: ez naiz agnostikoa; ateo naiz. Gainera, uste baino aspaldiagotik naiz ateo. Lehenengo urratsa, Benjamin Maria hil eta bizpahiru egunera eman nuen, behar bada, oharkabean eman ere, izeba Ernestinak egin zigun iruzkinaren ondotik: «Benjamin Mariaz gogoratzen zaretan bakoitzean, gogora ezazue ahatetxo itsusiaren ipuina. Izan ere, ahatetxo bat zirudiena zisne eder bat zen. Eta orain, aingeru bat da». Ez dakit zergatik, baina ez nion sinetsi. Lehen aldia zen, ezeko bat buruan nagusitzen zitzaidana, baldintza haietan. Horrekin ez dut esan nahi aurreko ipuinetan itsu sinesten nuenik: auzia, gainera, ez zen ipuina sinestea edo ez sinestea, entzutea eta dibertitzea baizik, nik neuk ere izan bainuen neure alditxoa, zeinean bai izeba Ursulak ahoz kontatuak eta bai izeba Ernestinak irakurtzen zizkigunak ere gozokiak bezalakoak gertatzen baitzitzaizkidan... urte gutxiaren buruan, anai-arrebengandik bereizteko ahaleginean-edo, neure jarrera hartaz lotsatzen hasi banintzen ere, ahalegin hark «gizonago» egiten ninduelakoan. Esan nahi dizudana da nik ere denbora-pasa gustagarritzat izan nituela haiek denbora batean —ipuina entzutearekin batera, ikasbideren bat ere ateratzen genuen, bide batez—, baina ipuinaren gozokia, izebaren hitzezko bilgarri urte-itxurakoak bildua zetorkidana, kontrako ettarrira joan zitzaidan egun hartan, paper eta guzti.



MANOL IRIGOIEN

Plaza Bizia

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com



Aurtengo Medikuntzako Nobel saria Robert Edwards britainiarri eman dio Karolinska institutuak


Irene Lasa Donostia

Bederatzi urteko gurutze bidea zuten eginga Leslie eta John Brownek: haurrak izan nahi eta ezin. Falopioren tronpak itxita zeukan Lesliek, eta haiek zabaltzeko jasadako ebakuntzek ez zuten arrakastarik izan. Baina halako batean, Robert Edwards eta Steptoe doktoreengana iritsi eta haiei esker, haurdun gelditu zen Leslie.

Haurdunaldiko azken asteetan hipertentsio arazoak izan zituen, eta fetuak motel hartu zuen pisua. Hala ere, 1978ko uztailaren 25ean, zesarea bidez, 2.700 gramoko pisuarekin eta osasuntsu jaio zen Louise Brown, *in vitro* ernaldutako lehen gizakia. 32 urte ditu gaur egun, eta modu naturalean ernaldutako 4 urteko semetxo bat.

Antzutasunak garai batean bazterketa soziala eta bizitza maila kaskarra ekar zitzakeela pentsatzea zaila egiten da gaur egun, baina hala gertatu zen mende askoan. Ugalketa arazoekin lotutako depresio, antsietate eta abarrek hurbilago zaizkigu, baita Edwards ekarpenaren tamainaz jabetzeko lagungarri ere. *In vitro* ernalkuntzak eta handik eratorritako ugalketa teknikek milioika lagunengan izan dute eragina 32 urteotan. Munduko bikoteen %10ek dituzte ugalketa arazoak.

Lagundutako ernalketa bideei esker, lau milioi jaiotzatik gora izan dira. Munduko hainbat herrialdetan jaioberri guztien %2-3 jaiotzen dira *in vitro* ernalkuntzari esker. Eta haur horien guztien aitatzat jo izan dute berripapere-



Azken 32 urteetan lau milioi lagun jaio dira *in vitro* ernalkuntzaren garapenaren ondorioz. RALF HIRSCHBERGER / EFE

'In vitro' ernalkuntzaren aitarentzat Nobel saria

tako tituluek Robert Edwards biologoa, aurtengo Medikuntzako eta Fisiologiako Nobel sariduna.

Robert Geoffrey Edwards (Manchester, 1925) Cambridge Unibertsitateko irakasle emeritua da gaur egun. Osasunez kaskar dabil eta ezin izan dio Stockholmdik saridunari egiten zaion ohiko telefono deiari erantzun, baina albistea pozez hartu duela azaldu du haren emazteak. Besteak beste, Louise Brownek berak ere zoriondu du zientzialaria.

Lagundutako ernalketa prozesuaren gorabehera nagusiak gutxi-asko ezagunak dira egun, baina Edwardsek hainbat oztupo gainditu behar izan zituen Louise Brown beso artean izan arte.

Mugarriz mugarri

50eko urteen amaieran jarri zuten Edwards giza antzutasunari konponbideak topatzeko lanean, Erresuma Batuko Medikuntza Ikerketarako Institutuan. Ordu-rako, animalien ugalketaren fisiologia ikertzen aritutakoa zen bio-

logoa, eta, beraz, lanari ekiteko prest zegoen. Garai hartan, untxien obuluak saio hodieetan esperma gehituta ernaldutako egiten zirela ikusi zen eta bide horretatik abiatu zen Edwards giza ernalkuntza ikertzeko. Baina untxi eta gizaki arrautzen bizitza zikloa erabat ezberdina zen. Obario ehunetatik ateratako oozitoekin hasi zen lanean (heldu gabe dauden eta, beraz, ernaltzeko prest ez dauden obuluarekin), haien heldutasunerako baldintzak identifikatzen.

Urteak egin zituen oozito loti haiek aktibatzeke baldintzak ikertzen. 1965ean konturatu zen, ordurako dogmaren aurka, *in vitro* heldutako prozesua abiatu aurretik oozitoek 24 orduko inkubazioa behar zutela. Metodo horrekin, gainera, ernalkuntzarako behar besteko heldutasun maila lortu zuen oozitoetan. Aldi berean, Edwardsen ikasle batek hamster espermaren aktibazioari *in vitro* eusteko baldintzak identifikatu berri zituen, eta Edwardsek hori giza esperman apli-



Robert Edwards. EFE

katu zuen. Hala, oozito helduen *in vitro* ernalkuntza lortu zuen 1969an.

Baina ernaldutako oozito haiek ez ziren bi zelulako etapa gainditzeko gai. Beharbada, gorputzetik kanpo denbora gehiegi pasatzen zutelako. Horiek horrela, ernalketarako eta enbrioi garapenerako baliagarriak izango baziren, oozitoek gorputzean (*in vivo*) heldu behar zutelako eta haiek obariorik obulazioa hasi aurretik atera behar zirela hobetsi zuen Edwardsek. Nola, ordea?

Ugatzun emeek milioika oozito

izaten dituzte obarioan, baina horietatik gutxi batzuk baino ez dira heltzen. Oozitoen heldutasun meiotikoa kanpotik hornitutako hormona jakin batzuekin (gonadotropina) kontrola zitekeela aurretik ondorioztatua zuen Edwardsek, saguekin egindako lan batean. Baina nola lortu oozitoak heldutasun fase egokian ateratzea, obulazioa (uterorako migrazioa) hasi aurretik?

Patrick Steptoe ginekologoa (1913-1988) izan zuen lagun horretan, laparoskopiararen aitzindari-tako bat. Gernuko hormonek salatzen zieten obulazio aurreko oozito helduak gorputzetik laparoskopio bidez ateratzeko une egokia. Haiek eta esperma *in vitro* batuz, zortzi zelulako etapako giza enbrioiak lortu zituzten. 1970a zen. Hurrengo urtean hamasei zelulako etapako enbrioiak lortu zituzten.

In vitro ernaldutako enbrioiak atzera emakumeetan ezartzen hasi ziren. Ehundik gora izango ziren saioak, baina haurdunaldi guztiak berehala galdu ziren. Oozitoen heldutasuna bultzatzeko hormonek enbrioiaren ezarpenari kalte egiten ziotela ondorioztatzen zuten zientzialariek, eta hormona haiek erabiltzea baztertu, oozito kopurua hileroko zikloak zekartzanetara mugatuz. Eta horrela jaio zen Louise Brown.

'In vitro' ernalkuntzari esker

Gerora, ultrasoinu xiringek laparoskopioa ordezkatu zuten; intseminazioa, enbrioiaren kriopreserbazioa... *in vitro* heldutako oozitoen ernalketa arrakastatsua ere iritsi zen, eta hormona estimulazioa ezin jasan edota minbiziaren aurkako tratamenduengatik euren oozito erreserba galtzeko arriskua zuten emakumeei haurrak izateko aukerak zabaldu.

Antzutasun arazoak dituzten hainbat gizonen ere aukerak zabaldu dizkiete esperma bakarrekin ernalkuntza laguntzen duten injekzioek. *In vitro* ernalkuntzan landutako metodoak, gainera, lagungarri izan dira gaitz genetiko jakinen arriskua murrizteko erabiltzen den ezarri-aurreko diagnostiko genetikoan ere.

DIABY PROFESOREA, IGARLE-MEDIUM TREBATUA.
Edonolako arazoak konpontzeko gai: laneoak, maitasuna, negoziok, sexu ezintasunak, zori kontuak, begizkoak...
Berehalako emaitzak.
943458109-670997968.
(No sé euskara; te atenderé en castellano).

Osasuna →

Bikotearen sistema ez da asmakizunik zoragarriena. Arazo anitz sortzen dira, askotarikoak, eta horiei irtenbidea ematea ez da batere erraza. Aparteko egoeratzat ditugunak oso ohikoak izaten dira.

Nork esan du erraza denik?



Sexologia

Agurtzane Ormatza Imatz

Hainbatetan entzunak: «Mikel eta Pili, koardrilakoak, banatu? Hain jatorrak ikusi izan ditugu, beti bata besteari laguntzeko prest, hiru ume zoragarri, itxuraz bizitza sana elkarrekin... Egun batetik bestera banatu direla diote. Zelan da posible?». Eredugarritzat hartutako lagun bikotea banatzen.

«Maitalea duela jakin dut, eta harrituta nago nire erreazioarekin. Inoiz horrelakorik gertatuko zitzaidanik ez nuen espero. Baina gertatzekotan oso argi nuen maletak kanpoan utziko nizkiola. Eta, hara, gaur hemen nago aurrez aurre duan egoera ulertzen, edo saiatzen, eta elkarrekin jarraitzeko asmoz. Burutik sano ote nagoen galdetzen diot neure buruari». Bikotekidearengandik sekula ez genuena espero jasaten.

Bikote terapian gabiltzanok emakumeen eta gizonen atzealdean dagoenaren testigu izateko pribilegioa dugu. Prozesuan, barne bikotekideen leku intimoetara

heltzen gara. Euren ematen digute baimena, eta horrekin bat denon konpromisoa estutzen da. Sarrri, aspalditik ezkutuan egon dena lehenengo saioetan azaltzen da. Batzuetan bikotekideari inoiz ez diona esan ere bai.

Hona hemen ariketa arin bat denontzat:

■ Zutaz, zure bikotekideaz edota harremanaz den-dena nork daki?

Seguru asko inork ere ez. Behar bada gura ere ez. Gure esperientzien, emozioen, burutazioen... zatiak banatzen ditugu. Koadrilako lagun bati zer edo zer, bikotekideari zer kontatu ere ez dakizu, nahastuta zaude eta; lankide batekin beste alorreko mokadutxo bat konpartitzen duzu; azken urteotako lagun min horrekin gehiago zabaltzen zara, baina badakizu hamaikagarreneko tirabira ez diozula kontatu; amari zer edo zer esan behar susmoak hartuta dagoelako; aitari txintik ere ez; ahizpari... zertarako! berearekin nahikoa daukalakoan... Zenbat sekretu txiki edo handi gordetzen ditugu, zenbat intimitate zuonak baino ez direnak, sekretu itogarri bat eraikitzen, zenbat haserrealdi gogorak ezin askatu, aspaldiko hutsune lazgarriak gorputza erdibitzen, zelakojokolizun gozagarriak izaren azpian, lankide horrendako zeloak irribarre lotsagarri batekin mozorrotuta, norberaren buruari beldur galdetzeko jada berendako interesa



Bikoteek arazo asko izaten dituzte. ROYALTY-FREE / CORBIS

itzali delako... Bizitzako hainbat pasarte gordetzen dizkiogu geure buruari, gure bikotekideari, gure lagunari... zenbat?

Beraz, ez da harrigarria kanpokoek, nahiz eta oso gertukoak izan, deus ez ulertzea espero ez zizutzen berriak entzutean. Baina galdetu geure buruari zer dakiten besteek gutaz...

Bikote sistema ez da sistemarik zoragarriena; bikotekideek eraikitzen dute euren miseriekin, aberastasunekin, gurariekin, beldurrekin, lotsekin... bakoitzak ahal duen moduan. Baina biak dira ezinbestekoak puzzle korapilatsu hori osatzeko.

Bikotekide bakoitza aldatzen doan heinean, sistema aldatzen da, eta, jakina, urteak pasatu ahal gara bateko kontratuak ez du balio. Bata bestearekiko irria, pasioa, maitasuna, jakin-mina... aldatzen da, zelan ez! Boladak egoten dira erotika alorra porrot eginda geratzen dena, pasarte batzuetan norbera bere bidaia ba-

kartian baino ez duela egon nahi; etxea itogarria bihurtzen dela, bikotekidea ezezagun egiten zaigulako; gure fantasietan edota errealtatean beste lagun bat dagoela; gura dugula harremanari eutsi eta ez dakigula zelan egin; bat bestea behar duela aurrera egiteko, baina laguna ez dagoela behar dugun lekuan momentu horretan; seme-alabak gure babesa eta aitzakia bihurtzen direla azkenean; bikotekideak jadanik ez gaituela erakartzen; seme-alabak hasteko erak desberdinak haserreak ekartzen dizkigutela; bakoitzaren beharrak ez datozela bat; erritmo desberdinetan egoteak denboraldi gorabeheratsuetan murgiltzen gaituela; hirugarren bat agertzeak berpizten duela harremana...

Egoerok ez dira arraroak, ezta latzak ere, bikoteetan eman litezkeenak baizik. Bi elkartzen direnean arazoak sortzea ezinbestekoa da. Kontua da bideratzea mezezi ote duen, eta zelan bideratu. Nork esan du erreza denik?

Umearen eta mendiaren oihartzuna

Adimen emozionala

Jose Antonio Gonzalez

Mendi eder baten magalean, baserri batean, familia bat bizi zen aspaldian. Mendiaren beste aldeka kareharrizkoa zen. Behin, amak errieta egin zion 7 urteko haurrari, bihurrikeria baten ondoren. Umea baserritik atera zen oihuka: «Gorrotu dut neure burua, gorrotu dut neure burua». Mendiak hitzak itzuli zizkion: «Gorrotu dut, gorrotu dut...». Haurra beldurturik etxera itzuli, eta hala esan zion amari: «Ama gorrotu nauen gizon bat dago mendian».

Ama berehala ohartu zen gertatutakoaz. Umea eskutik helduta kanpora atera eta oihukatu egin zuen: «Maitatzen dut neure burua». Eta mendiak oihartzuna itzuli zion. Amak hala esan zion umeari: «Mendian ez da gizonik, baina bizitzan askotan gertatuko zaizu zuk emandakoa horixe bera jasoko duzula gero. Maitasuna ematen baduzu, maitasuna jasoko duzu; gorrotoa ematen baduzu, gorrotoa. Eskatu aurretik eman beti. Batzuetan ez duzu jasoko esperotakoa, baina bai gehienetan».

Nik ere oihartzuna entzuten dut batzuetan, eta entzundakoa gustuko ez dudanean, hausnartu egiten dut: «Zergatik dauka iritzi ezkor hori nitaz?». Horrela, oihartzun naiz lehenik zer eman diot nik pertsona horri. Besteengandik mendiaren oihartzuna entzutea gure kontzientzia entzuteko bide laburrena da. Besteek zutaz pentsatzen dutenaren ardura ez dugu, baina bai besteek esandakoak eta egindakoak.

Aro berriak

Ama naizenetik konturatu naiz iraila hilabete neketsua dela. Lagunen artean aipatu dut, eta, batzuen ustez, hainbeste neke opor osteko sindromea izan daiteke. Zer deritzozu? ■ BEGI.



Psikologia

Arantza Quecedo Urrutia

railean ez da bakarrik ikasurte berria hasten, horrekin lotuta hasiera ugari daude, baita birjasotze anitz ere: gehiengo batentzat oporren

bukaera, ohiko bizilekura bueltatzea, maletak desagitea, ordutegi ezberdineren moldatzea, etxea garbitzea, konpontzeaz utzi genituen zereginak aurkitzea. Umeak daudenean erritmo egokitzeak daude: ordutegiaz gain, ikastola eta haur eskolan hastea, eta horrek ekartzen duen moldatze prozesua: beldurrak, egokitze prozesua (norberarena eta familiarrena luzea izaten da gustura egon arte), nork batu, zaindu, hara edo hona eraman azpiegi-

tura sortu, sasoiko erosketak (liburuak, amantalak, arropak...); umeak txikiak direnean ikasurte hasieran ohiko gaixotasunak eta horiek dakartzaten ordutegi aldaketak, nekea eta urduritasuna...

Mezu elektronikoen galdetzen duzu ea hori guztia opor osteko sindromea ote den. Espzialistek ez dugu uste gaixotasuna denik, eta horixe da sindrome hitzak lotua duen esanahia. Irailean gertatzen dena zera da: egokitze prozesu zaba-

la sortu behar dela, eta horrek gure osotasuna martxan jartzen duela fisikoki (ordutegiak, jatorduak, lo kopurua...), egoera aldaketa (denora librea galtzea, familia eta lagunekin gehiago egotea, eguraldia dela-eta kalena edota naturan gutxiago), gure betebeharrak eta ingurukoak indarrez aurkitzea (lana, eskola ordutegiak, egunerokotasuna), antolakuntza eta erabakiak (nork egingo duen eta noiz etxeko beharrak, umeen laguntza eta betebeharrak).

Moldaketa bio-psiko-familia-soziala da, baina moldaketa.

Horrez gain, ikerketetan eta kontsultako lanean ikusten dugunez, emakumeen artean zera gertatzen da: bederatzirte baino gutxiagoko haurrak dituzten amak dira estresa gehien pairatzen duten emakumeak. Zu konturatu zaren moduan, euren egokitze prozesua irailan gogorragoa baita, batez ere bikotekidea ez dagoenean, edota guraso moduan lan banaketa orekagabekoa denean.

Ezarian > Kilometroak

Zeruak ere bostekoa

Eguraldia lagun, milaka euskaltzale bildu dira Lezon, Pasaia-Lezo lizeoak antolatutako Kilometroak festara

Azpeitiko Ikasberri ikastolak antolatuko du hurrengo urtean ikastolen aldeko jai

Nagore Rodríguez Lezo

Zeruari begira ezin sinistuta zeuden atzo Pasaia-Lezo lizeoak. Zeruari eskerrak ematea besterik ez zuten, atzoko haize boladak eta euri jasak ikusita. Ordu gutxigatik, ekaitzetik libratu zen aurtengo Kilometroak. Zortea izan zuten igandean, eguerdi aldeko euri tantek ez baitzuten asko iraun. Eta haizea lagun, milaka euskaltzale bildu ziren Kilometroak jaira, Pasaia-Lezo lizeokoei bostekoa luzatzeraz. Helburua bete dute antolatzaileek, eta urtebete barru herriko txikienentzat ikastola izango da herrian.

Haurrek herrian ikas dezaten, eraikin horren garrantzia azpimarratu zuen Lezoko alkate Haritz Salaberriak irekitze ekitaldian. Pasaiaiko alkate Maider Zigandak ere parte hartu zuen. Eusko Jauriaritzaren izenean, berriz, Hezkuntza Saileko zuzendari Javier Nogales izan zen, eta Gipuzkoako Aldundiaren izenean, Markel Olano ahaldun nagusia. Hainbat alderdietako politikariak ere gerturatu ziren jaira.

Omenaldietarako tartea ere izan zen igandean, Oiartzualdeko ikastolen mugimenduko bultzatzaileak omendu zituzten antolatzaileek. Haien izenean hitz egin zuen Inazio Esnalek: «Orain arte asko lortu dugu, baina asko dugu egiteko oraindik».

Ekitaldiaren ostean, herritarak izan ziren protagonista zirkuituan. Jaizkibelen begiradapean, paraje ederraz inguratutako sei kilometroko ibilbidea egiteko modua izan zuten Lezora bilduta koek.

Goizean goizetik hasi zen jendea iristen, baina jende bolada handiena eguerditik aurrera ailegatu zen herrira. Autoentzako aparkalekuek gainezka egin zuten, eta antolatzaileen gomendioei jarraituta, euskaltzale ugari hautatu zituzten garraio publikoak; Euskotren eta Renfek jarritako tren bereziek jende ugari eraman zuten Lezoraino. Erreteriariko geltokitik irten eta jarraian sartzen ziren bisitariak lehendabiziko gunera.

Bost gunetan banatu zuten Pasaia-Lezo lizeoak ibilbidea.

Goizean pailazoez bete zituzten agertoki ugari, eta haur eta guraso askok dantzatu eta kantatu zuten haien erritmora. Eguerdian, zelaiak bete zituzten euskaltzalek ogitartekoekin, eta bazkarirako prestatutako bi jangelak ere gainezka izan ziren, txartel guztiak saldu zituzten. Eusko Labeleko postuan erre zuten txahala ere bukatu egin zen eguerdi alderako, eta hainbat gunetan janaria bukatu egin zen.

Mila bostehun boluntario


Arratsalde partean, berriz, musika nagusitu zen. Gaztetxoak bosgarren gunean elkartu ziren, lehenik Betagarriren kontzertua eta ondoren Esne Beltzaren doinuak entzutea. Anje Duhaldek ere ikusle ugari bildu zituen lehen guneko eszenatoki aurrean, haren abesti ezagunenak abestu zituzten denek batera. Gozategi-koek hartu zioten lekukoa Anje Duhalderi, eta haiek ere ikusle guztiak dantzan jarri zituzten. Gose, Ze Esatek, Kupela... kontzertu ugari izan ziren aukeran.

Bisitari guztiak ondo pasatzeke, mila eta bostehun boluntario inguru aritu ziren egun guztian lanean, salmahaietan, ibilbidea eta komunak txukun edukitzeko lanetan...

Pasaia-Lezokoen lana amaitu da, eta orain Azpeitiko Ikasberri ikastolakoak hasiko dira lanean hurrengo urteko festa antolatzeke.



Ikastolako haurrak dantza emanaldia egiten.



Milaka lagun bildu ziren sei kilometroko ibilbidea egitera. ARGAZKIAK: JON URBE / ARGAZKI PR

Ezarian → Kilometroak



Tren geltokitik zuzenean iristen ziren bisitariak zirkuitura.



Haurrentzako joko eta jolas ugari prestatu zituzten.



Txan Magoak txundituta utzi zituen ikusleak bere trikimalluekin.



Gazte koadrila bat, garbiketa lanak egiten.

Agustin Migeltorena •
Pasaia-Lezo lizeoko zuzendaria

«Auzolanerako jendeak erakutsi duen prestasuna handia izan da»

Ekaitz Agirre Donostia

Pozik dira Pasaia-Lezo Lizeoko ikasle, irakasle eta gurasoak. Eta pozik, noski, Kilometroak festaren inguruan lanean aritutako guztiak: jasotako laguntzagatik, batetik, eta igandean atzoko eguraldi traketsaren arrastorik izan ez zelako, bestetik. Boluntarioei eta festara bildutako eskerrak eman dizkie guztien izenean Agustin Migeltorenak, Pasaia-Lezo lizeoko zuzendariak.

Zer gogoeta egin duzue?

Oso pozik gaude; balorazio oso positiboa egin dugu zuzendaritzan. Jendetza bildu zen, jendetza handia. Eguerdian eta arratsalde hasieran trenea hartzeko komeriak izan ziren, jende kopuru handiagatik, eta Portuan prestatu genduen aparkalekuak gainezka

«Gaurko [atzoko] euri eta haizetea ikusita, eguraldiarekin zorte handia izan dugu»

egin zuen. Haizea hasi zenean, 16:30ak aldera, hainbat gunetako egitaraua itxi genduen, baina gainerakoan giroa primerakoa izan zen.

Haizea aipatu duzu, baina eguraldiarekin, behintzat, kexatzeko arrazoirik ez duzue.

Iragarpenak ez ziren onegiak, baina azkenean euririk ez zuen egin —bi tanta baino ez, eguerdian—, eta arratsaldera arte haizerik ere ez zen izan. Gaurkoa [atzokoa] ikusi eta zorionekoak izan garela ez dut zalantzarik.

Aurreikuspenak bete al dituzue?

Oraindik behin-behineko balantzearekin ari gara, baina eraikin berria egin ahal izateko aurreikusi genuena bildu dugula uste dut.

Bildutako dirua zertan erabiliko duzue?

Matrikulazio hazkundera izan dugu, eta horri aurre egiteko azpiegitura indartu beharra dugu. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzarik ez dago Lezon, eta 0 eta 6 urte bitarteko ikasleak Pasaia joan behar izaten dira. Adin tarte horretako Lezon gertatzeko aukera izan dezaten erai-

kina behar dugu. Igandeko laguntza ongi etorria izango da.

Noizko egongo da prest eraikina?

Gure nahia 2011ko irailerako bukatuta egotea da, ikasturtea bertan hasteko. Baina akaso ez da posible izango, eta urrirako behintzat prest egotea nahi dugu.

Festaren leloan nabarmendu zenuen bostekoajaso duzue herritarrengandik, ezta?

Oso pozik gaude auzolanerako jendeak erakutsi duen prestasunarekin. Esker oneko hitzak ditugu lagundu diguten guztiekiko. Jakin badakigu lezotar askori eragozpenak ekarri dizkiela, baina gurekiko azaldu duten jarrera oso ona izan da, baserriarren kasuan, batez ere.

Egitarau sorta zabala izan zen egun osoan. Aitzindariari egindako omenaldia izan al zen hunkigarriena?

Duela 50 urte lanean aritutako belaunaldia omendu nahi genduen, eta ekitaldi xume eta hunkigarria izan zen. Inazio Esnal ekarri genduen belaunaldi horren ordezkari. Gainerakoan, zaila egiten zait ekitaldi bat nabarmentzea, Lezora etorritako pertsona bakoitzak izango duelako berezkat berezia izan zen ekitaldiren bat. Esne Beltzako emanaldia ez nuen ikusi —haiek egin dute Kilometroak 2010eko kanta—, baina jakin dut oso giro ona izan zela.

Festaren biharamunean zein izaten da egitekoa?


Gure asmoa ikasleekin ibilbideko guneetatik pasa eta garbiketa lanak bukatzea zen, baina bertan behera utzi behar izan dugu eguraldiagatik. Haizea, euria... ezin izan dugu aurreikusitakoa egin. Dena dela, igandean bertan garbiketa zerbitzuek lan ona egin zuten, eta txukun dago guztia.

Zerikusirik ez zuen izan igandeko ibilbideak 1997koarekin.

Jende asko etorri zaigu hori esanaz. Orduko ibilbidea gogorragoa izan zen. Jaizkibelera eta Pasaia-Lezo ikastolara igotzen zelako.

Azpetiko Ikasberrikoei eman diezue lekukoa. Zer esango zenie?

Gu, behintzat, laguntzeko prest gaudela. Donostiako Zurriola ikastolakoek guri laguntzeko erakutsitako prestasuna dugu guk orain Ikasberrikoei.



Piriniar arrazako abelgorrien 25. azoka egin dute Gernika-Lumoko urriko lehen asteleheneko azokan. Jon Koldo Bikandik irabazi du ganadutegi onenaren saria.

Hobetuz doan arraza

Ibal Maruri Gernika-Lumo

Euri zaparrada gogorrek eta haitze zakarrak ez dituzte kikildu ganaduzaleak. Urteroko tradizioari jarraituz, hainbat lagun bildu dira Gernika-Lumon (Bizkaia) urriko lehen asteleheneko azokan. Azken urteetan bezala, bi egunez egin dute lehiaketa, Santa Anako apartokalekuan. Igandean lehen aukeraketa egin zuten, eta atzo eguerdian saritu zituzten piriniar arrazako abelburu onenak. Jon Koldo Bikandi iurretarrak irabazi du ganadutegi onenari dagokion saria. Epailen esanetan, aurkeztu duen taldea «berdintsuena eta kalitate handikoa» izan da. Aurreko urteetan ere berak jaso izan du sari hori, eta aurten beste bost eskuratu itzuli da etxera.

Euskal Herriko makina bat tokitatik ekarri dituzte lehiaren parte hartu duten 117 abelburuak. Ganadutegi gehienak Bizkaikoak izan dira, baina Gipuzkoako sei, Arabako bat eta Nafarroako hiru ere izan dira Gernika-Lumoko sariketan. «Izenak dioen modura, Pirinioetan hazten den behi arraza da honakoa», azaldu du Koldo Bilbao antolatzaileak. Edonola ere, ganadutegi gehienak Euskal He-

rrian kokatuta daude; batez ere, Nafarroan. «Herri basoetan bizi izan da betidanik, eta horri esker, mendian ibiltzera eta baldintza txarretara ohitutako arraza bat da». Hala, bizi-itxaropen luzea dauka.

Urtetik urtera kalitate hobeko abelburuak izaten dira Gernika-Lumoko azokan parte hartzen dutenak. «Arraza hobetuz doala ikusten dugu». Horretarako, hobekuntza genetiko lantzen duen programa bat dauka piriniar arraza sustatzeko elkarteak. «Emaitza ona ematen ari da», Bilbaoren esanetan. Abelburuak hobeak dira, eta haragi gehiago ematen dute. Hain zuzen ere, haragitarako hazten dira arraza honetako abelgorriak. Hein berean, emeek geroz eta esne gehiago ematen dute, eta erditze errazagoak dituzte, ezaugarri morfologikoen hobekuntzari esker.

Sektorearen krisia mintzagai

Ganaduzaleak, lehiatzeko ez ezik, elkarri beren esperientzien berri emateko aprobetxatzen dute urriko lehen asteleheneko feria. Besteen abelgorriak ikusi, eta hazteko zer-nolako komeriak izan dituzten kontatzen diote elkarri. Bilbaoren esanetan, sektoreak krisi latza du. «Haragitarako behien krisia aspaldikoa

da, gaur egungo ekonomia krisi orokor hau baino dezente zaharragoa». Esate baterako, haragiaren prezioa duela hamar urtekoa da. Ez da batere igo. Bai, ordea, pentsuarena eta garraioarena. «Behi hazkunderari lotutako kostuek gora eta gora egiten dute, etengabe».

Horiek hala, zaila da abeltzain kopurua mantentzea. Krisiak abeltzain asko ixtea dakar, eta ez dago lekukoa hartu nahi duen gazterik. «Nor hasiko da behiak hazten, aurretik baldin badaki dirua galduko duela?». Gaur egungo abeltzainek ogibideari eusten badiote, beren lana maite dutelako da. Hala uste du Bilbaok. Egoerak izan dezakeen behin-behineko konponbide bat diru laguntzen aldetik etor daiteke. Baina Europako legediak debekatu egiten du abeltzaina zuzenean laguntzea. «Moduren bat aurkitu beharko da sektorea erakargarri eta errentagarri bihurtzeko».

Bi urteko hamazazpi eme ernari saldu ziren igandean egindako enkantean, 1.600 euroan batez beste. Txakolina, gazta, ogia, ezti eta baserriko hainbat produktu ere izan dira salgai, 30 erakusmahaitan. Bi egun hauetan Eusko Label kalitate ziurtagiriko 300 kilo haragi saldu dira, pintxotan.



Maratila

Santi Leone

Unat

Jose Maria Iribarren idazle tuterarrak dakar, 40 eta 50eko hamarkadetan apailaturiko *Vocabulario navarro* liburuan, eta definizioa, hauxe: «Bataioetan, haurrek erabiltzen duten hitza, aitapontekoak gozokiak eta dirua bota diezazkien». Unat. Hona, alegia, euskara batuan. Eta definizioan, haurrak eta bataioak. Ez hizlariarenganako norabidea adierazten duen adberbioa. Ez. Antropologoen begiradapean, herria tribu bihurtzen da, eta horren hitzak, errituetako ele magikoak. Iribarrenendako, unat abrakadabra da.


Joxemiel Bidador zenak ikeritua zuen Errepublikaren garaian EAJtik hurbil ibilia zela Iribarren. Gerra Zibilean, ordea, Molaren laguntzaile izan zen. Gerra ostean, Nafarroako kultura ofizialaren parte. Estimua omen zion euskarari, frankismoko bertze zenbait nafar idazlek bezala, eta horregatik sartu zituen euskal hitz batzuk berez Nafarroako gaztelaniaren aldaera biltzen duen *Nafar hiztegi*an. Baina, anitzetan, bertan agertzen diren definizioek hitzen esanahia baino gehiago, frankismoeko euskaltzalearen mugak erakusten dituzte, argi erakutsi ere. Azken buruan, ba al da, elizkizun eder baten ondoan, haur bat euskaraz egiten ikustea baino gauza maitagarriagorik?

Normala da, beraz, harrezkerotik euskaltzalearen *navarrista* horrek izandako bilakera. Normala, euskara soilik bataioetan eta soilik haurrek erabilia izatetik gelditzearekin batera, ustezko euskaltzale askok euskararekiko interesa eta estimua galdu izana.

Gaur egun, aukeran, bataioetan ere nahiago lukete haurrek «*aquí, aquí*» oihukatuko balute.



Sail bakoitzeko abelgorri onenek hartu zuten parte atzo eguerdiko finalean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



1469637088306 10

Asteartea
2010eko urriaren 5a

berria

